


puntuak

+

Zientziaren 'Leku Historiko' izendatu dute Bergara

Edure Alvarez de Mon (ONCE), lan inklusioaz berbetan



Etorkizuneko Monterron marrazten

Arrasateko parke nagusia herrira zabaltzeko ideia lehiaketak badu irabazlea: irudiko 'Bihurgune 1545' / 11



Victor Vazquez Blancok eta Idurre Garcia Fernandez arrasatearrak aurkeztutako *Bihurgune 1545* proiektua aukeratu du epaimahaia, eta 10.000 euroko saria jaso dute.

ARRASATEKO UDALA

Txotxongiloekin egindako antzerkiaren gune izango da Bergara asteburuan


Atzo hasi eta domekara arte, helduentzako ikuskizunak izango dira / 28



Boris & Ingrid ingelesak.

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



SINADURAK

 MIKEL MUXIKA / 8	 LEIRE ELEJALDE / 16
 ENERITZ URRUTIA / 10	 AGURNE BARRUSO / 48

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

LANBIDE – DIRU LAGUNTZA JASOTZEKO ZAIN DAUDEN IKASTAROAK (DOAKOAK)
GAITASUN ZIURTAGIRIAK (Ikastaro guztiek dituzte praktikak enpresetan)

GAITASUN ZIURTAGIRIAK	IRAUPENA	DATAK
FMEE0308: Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	680 ordu	Aza 19- Eka 5 13:15 – 18:30 Al,As,Az,Og,Or
IMAQ0108: Tresneria industrialaren mantentze eta muntaketa mekanikoa	590 ordu	Aza 19 - Mai 9 13:15 – 18:30 Al,As,Az,Og,Or
FMEM0109: Produzioaren kudeaketa fabrikazio mekanikoan	350 ordu	Ots 4 - Mai 15 13:15 – 18:30 Al,As,Az,Og,Or

HOBETUZ – DIRU LAGUNTZA JASOTZEKO ZAIN DAUDEN IKASTAROAK (DOAKOAK)

IKASTAROAK	IRAUPENA	DATAK
Pertsonen-kudeaketa: lidergoa eta motibazioa	30 ordu	Ots 11 - Ots 26 14:30-18:30 Al,As,Og
CAD 3D- Solidworks	30 ordu	Mar 05 - Mar 26 14:30-18:30 Al,As,Az
Hidraulika	40 ordu	Mar 5 - Mar 26 14:30-18:30 Al,As,Az
CNC FAGOR 8050/55/65 makinetako fresatzeko programazioa	40 ordu	Mar 25 - Api 15 14:30-18:30 Al,As,Az
CAD 2D- AutoCAD	40 ordu	Urt 9 - Urt 30 14:30-18:30 Al,As,Az
Pneumatika	40 ordu	Ots 5- Ots 26 14:30-18:30 Al,As,Az
Eskuzko makinaren erabilera: fresatzeko makina, tornua, daratulia eta artezlea	80 ordu	Ots 5- Mar 26 14:30-18:30 Al,As,Az
Marrazketa teknikoa	40 ordu	Aza 28 - Abe 19 14:30-18:30 Al,As,Az
Tolerantziak: dimentsionalak, gainazalekoak eta geometrikoak	40 ordu	Ots 6 - Ots 27 14:30-18:30 Al,As,Az
Nola hobetu zure produktibitate pertsonala erreminta digitalekin	8 ordu	Aza 21- Aza 22 14:30-18:30 Az,Og
Web orri profesionalen sorrera WordPress eduki kudeatzailea erabiliz	35 ordu	Aza 6 - Abe 4 15:00-19:00 As,Og
Lantegiko metrologia	30 ordu	Aza 21- Abe 10 14:30-18:30 Al,As,Az
CAD-CAM GibbsCAM Fresagailua	40 ordu	Urt 10 - Urt 31 14:30-18:30 Al,As,Og
CAD-CAM Unigraphics NX Fresagailua	40 ordu	Ots 5- Ots 26 14:30-18:30 Al,As,Az
Prozesu urratzaileak (artezketa-teknologia)	16 ordu	Mai 13- Mai 22 15:00-19:00 Al,Az
Kudeaketa proiektuen oinarriak	16 ordu	Mar 11 - Mar 21 14:30-18:30 Al,As,Og
Logistikoak ez direnentzako logistika	30 ordu	Mai 6 - Mai 21 14:30-18:30 Al,As,Og
Oinarrizko elektrizitatea	40 ordu	Ots 11- Mar 4 14:30-18:30 Al,As,Az
Oinarrizko Arduino ikastaroa	45 ordu	Ots 11- Mar 26 14:30-18:30 Al,As



Lecanosticta acicola onddoak kaltetuta dagoen pinudi bat. E.A.

Onddoa akabatzea helburu duen estrategia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioek eta Eusko Jaurlaritzak "konifero basoak berreskuratzeko euskal estrategia" diseinatu dute, azkenaldian intsinis pinua erasotzen ari den 'Lecanosticta acicola' izeneko onddoari aurre egiteko helburuarekin

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, euskal basogintza-aren sektorearen aldeko manifestu instituzional bat sinatzeaz gain, pinuen gaitzari aurre egiteko plan bat abiarazi dute, "konifero basoak berreskuratzeko euskal strategiaren" barruan.

Estrategia honek hiru jardun esparru nagusi ditu: pinuaren gaitzari eta horrek hiru lurraldeetako baso eremuetan eragiten dituen kalteei buruzko ezagutza sortzea; gaitzari aurre egiteko neurriak zehaztea; eta sektorea berreskuratzeko.

Lehen jardunari dagokionez, batetik, eremu kaltetuak eta

gaixotasunaren garapena neurtuko dituzte, azalera kalte mailaren arabera sailkatu, eta eritasunak dituen jokabidea, zikloa eta moztu ondoren irauteko gaitasuna aztertuko dituzte. Bestetik, mendian tratamendu desberdinak modu esperimentalean aplikatu, beste leku batzuetako praktika arrakastatsua identifikatu eta adituekin informazioa trukatu dute. Horrez gain, ikerketa eta informazio biltzea egingo dute produktua, dosiak eta tratamendua egiteko momentuak definitzeko helburuz. Halaber, aldagai klimatikoek gaixotasuna zabaltzen izan dezaketen eragina ere aztertuko dute.

Gaitzari aurre egiteko neurrien bidez erantzun bat eman nahi diete haren prebentzioari, tratamenduari eta tratamenduen aplikazioari loturiko gaiak, eta alternatibak bilatu nahi dituzte. Hala, oxido kuprosoa erabiliz aireko tratamendua egiteko baimen bereziak tramitatzen ari dira, emaitza onak lortu dira eta beste zenbait lekutan, hemengo pinuei erasotu dien onddoaren antzekoen aurkako tratamenduekin. Era berean, gaixotasunarekiko erresistenteak diren landareak inportatu dituzte, foru laguntzen planetan prebentzio neurriak indartuko dira, eta halako kasuetan gomendatzen diren basogintzako praktikak

bilduko dituen gida bat ere prestatuko dute. Bestalde, foru laguntzen planak indartuko dituzte larri kaltetutako masak mozteko eta basoberritzeko.

Sektorea berreskuratzeari erreparatu, gaixotasunarekiko erresistenteak eta sektorearentzat merkataritzaren ikuspuntutik interesekoak diren espezieak identifikatu dituzte, eta horiekin esperimentatu. Gainera, gaitzak jotako landaketak moztu eta espezie erresistenteekin basoberritzea sustatzeko basogintzako laguntzak indartuko dituzte, besteak beste.

Gaitza, bere horretan

Fermin Lezeta basozainak azaldu duenez, gaitzak ez du okerrera egin. "Orain, gehiago hozten du gauetan eta ez da gehiago hedatu". Konponbideari dagokionez, zail ikusten du. "Orain, negua dator eta, hotz egingo balu, hobe izango litzateke. Baina aldaketa klimatikoa dela eta, hotz falta daukagu. Ez dakit azkenean tratamendurik onena hotza ez ote litzatekeen izango".

EHNEren oharra

Gai horren harira ohar bat kaleratu du Gipuzkoako EHNE sindikatuak. "Basoak gaixo ditugu eta herri bezala arazo larri bat daukagu. Hori dela medio, denek, erakunde ezberdinek, administrazioak, gobernua, parte hartu behar dute soluzio-bideak planteatzeko". Hainbat neurri proposatzen dituzte, besteak beste, hauek: "kaltetutako basoen mailaketa egitea larrietik osasuntsuen dagoenera, mozketak lehenesteko; baso lanetan ari diren talde eta azpiegitura gehiago behar badira, haiek martxan jartzeko bideak jorratzea, ikerketa sustatzea".

Beste produkzio unitate bat inauguratu du Erreka Groupek

2,5 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu Bergarako San Juan auzoko instalazio berri hori eraikitzeko. 5.100 metro karratu ditu: 1.600 metro karratu produkzio atalean, 500 metro karratu entsegu tekniko gunean, 1.500 metro karratu bulegoetan eta 1.500 metro karratu biltegietan. 2020an 30 milioi euro fakturatzea aurreikusten du taldeak.

Zubietako erraustegia gelditzea eskatuko dute bihar Donostian

17:00etan Donostiako Mendeurren plazatik abiatuta, manifestazioa egingo dute, *Erraustegia gelditu!* lelopean. Gerturatzeko deia zabaldu dute GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, GEIS/OEIT, Eguzki, Greenpeace, Ernai, ELA, LAB, CCOO, ENHE, ESK, Steilas, Hiru, No +Precariedad eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, hain zuzen ere.

'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina abian da

Atzo hasi eta azaroaren 14ra bitartean iraungo du Errigora herri ekimenaren kanpainak. Bi saski izango dira aukeran: beltza, Errigoraren saski klasiko, eta zuria, berritasunak eta produktu bereziagoak jasotzen dituen. Saski bakoitza 50 euroren truke eskuratu ahal izango da. Eskararak *Errigora.eus* orrian egin ahal izango dira.

27. Hitzaldi Zikloa Espainiako Minbiziaren Kontrako Elkarte

Urriaren 30ean, asteartea, 19:30ean
Ignacio Aldekoa Kultura Etxea
 Doako sarrera lekua bete arte

Harreman sexualak prostatatik minbizi eduki eta gero Anibal Rincon Mayans, Alberto Martin-Marquina eta Abel Saliz Sansi medikuak.
 Hospital Quirónsalud Vitoria Urologia Taldea.

Arabako Probintzia Batzordea

quironsalud.es

RPS 154/15

Hospital Quirónsalud Vitoria
 C/ La Esperanza, 3 - 01002 Vitoria
945 252 500
 Aurretiko hitzordua
901 500 501

Hospital Vitoria

30. urtemuga dela eta, sariketa berezia izango da aurtengoa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak 30 urte betetzen ditu aurtentzen; hori dela eta, hamar sari banatuko dituzte gaur

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

1989an eman zuten lehenengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, eta, ordutik hona, urtero egin izan zaie aitortza hori hainbat kazetari lani. Aurtentzen, beraz, 30. edizioa izango da, eta, urteu-

ren borobil hori ospatze aldera, ekitaldi berezia antolatu dute Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak eta Andoaingo Udalak.

Hala, *30 urte, 10 mugarr* lelopean, hamar sari banatuko di-

tuzte; 30 urteko prozesu horretan euskal kazetaritza mugarririk izan diren jasoko dituzte, hain zuzen, sari horiek. Gaur, egubakoitza, izango da sari banaketa ekitaldia, 19:00etan, Andoaingo Bastero Kulturgunean.

Hainbat saritu urte hauetan

Aurreko 29 edizioetan, hainbat debagoiendarrek jaso dituzte Rikardo Arregi sariak.

Batzuk aipatzearen, nabarmentzekoa da, adibidez, 1990eko hamarkadaren hasieran Deba-

goieneko herri aldizkariak izan zuten garrantzia, eta horren erakusle dira 1990ean *Arrasate Press*-ek *-Egun bat Elenaren bizitzan-*, 1991n *Berrigara*-k *-Txomin Pineda, Berea ez den gerran-* eta 1994an *Kontzejupetik*-ek *-Urbiako fondaren isiltasunean protagonistak mintzo-* jaso zituzten Rikardo Arregi sariak.

Goiena Komunikazio Taldeari ere sari berezia aitortu zioten 2011n, sarearen eraberrikuntza eta hedabide multimedia integrala eratzegatik.

Azken edizioan, 2017an, Goiena telebistaren *Kulturriketak* saioari eman zioten saria.

Goiena.eus webgunean dago saridunen zerrenda osoa.

Gaurko saioa, zuzenean

Andoaingo ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izango da, *streaming* bidez, *Goiena.eus* webgunean. Bestalde, astelehenean, sari banaketa ekitaldiari tarte zabala eskainiko zaio Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.



Sariak eta diplomak jaso zituztenetako batzuk. TOKIKOM

'Puntua' eta Arrasateko Udala saritu ditu Tokikomek

'Porrotx' izan da azalik onena eta 'Egin swing eta ahalegin' kanpainaren bideoa, berriz, iragarkirik onena

E.A. DEBAGOIENA

Astelehenean banatu dituzte Tokikom sariak, eta *Puntua* astekariak aurkeztutako *Porrotx* azalak jaso du azalik onenaren saria. Epaimahaiaren arabera, argazkiaren kalitate teknikoak eta subjektuaren posearekin zein irudiaren mozketarekin egindako jokoak irudiari balio estetiko eta informatibo emanen dio. Amaia Txintxurreta argazkiaren egileak *Porrotx*-en prestutasuna nabarmendu du. "Oso erraza izan zen berarekin lan egitea, oso parte-hartzaile zegoelako. Aurpegia margotzen ari zeneko prozesua hartu nahi izan genuen, bai telebistarako, baita argazki bidez ere. Prozesu horren baitako hainbat momentu polit hartu ahal izan genituen, eta hau da bat".

Bestalde, Goiena telebistako *Barru* saioako *Futboletik harago* erreportajea nabarmendu gura

izan du epaimahaiak, gaiaren originaltasunagatik eta bideoaren faktura teknikoagatik. Hala ere, ez du saririk jaso.

Iragarkirik onena

Arrasateko Udalaren *Egin swing eta ahalegin* kanpainak jaso du iragarkirik onenaren saria, Arteman Komunikazioak egindako ikus-entzunezkoa. Epaimahaiak nabarmendu ditu, besteak beste, euskara lehenestea kanpainan, gertutasuna erabiltzea amu gisa, aniztasuna islatzeko ahalegina eta iragarkiari darion alaitasuna eta umorea.

Tokikom jardunaldiak

Mobile Journalism edo mugikor kazetaritza izan da aurtengo gaia, eta telefono mugikorrek ikus-entzunezkoen munduan egin dezaketen ekarpenaz aritu dira, baita horretarako dauden aplikazioez ere.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa			
LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROKAK			
%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK			
LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTAROEI IZENAK		ORDUAK	DATAK
MF0089_2	UF0676: TXORBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. PLANOEN IRAGURKETA	60	2018/10/29-2018/12/04
MF0091_2	UF0679: PIEZAK TXORBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK EGITEA. TORNIA FANUC eta FAGOR	80	2018/11/05-2018/12/20
	UF0683: TXORBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATzea.	30	2019
MF0090_2	UF0678: TXORBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETETAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERRENTAKO PUESTATzea. MEKANIZAZIO KONBENTZIONALA	80	2019
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROD. IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS	40	2019/03/25-2019/04/18
FMEH0075OH EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. M-COSMOS		30	2019/02/05-2019/02/19
FMEM0011OH CAM NX (2 1/2 ETA 3 EJE FRESAGAILUA)		40	2019/03/21-2019/04/16
FMEM0032OH 3D INPRIMAKETA BIDEZKO ERROZKENERAKO DISENIA		15	2019/04/08-2019/04/12
ELEKTRIZATEA ETA ELEKTRONIKA			
MF0620_2	UF0685: ETXERIZTZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INST ELEKTRIKOAK MUNTATzea ETA MANTENTzea	80	2018/11/05-2018/12/20
FMEM0060PO ROBOTIKA OINARRIAK		50	2019
FMEM0055OH NEUMATIKA		40	2019/05/16-2019/05/28
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0320: Testu-tratamendurako aplikazio informatikoak. WORD		30	2018/11/12-2018/11/27
UF0321: Kalkulu-orrietarako aplikazio informatikoak. EXCEL		50	2019/03/11-2019/04/10
UF0314 KONTABILITATE-KUDEAKETA		90	2019/01/21-2019/03/14
BESTE BATZUK			
FME0023OH	XARLEN ESTANPAZIOARRAKO TROKELAN DISENIA.	60	2019/03/11-2019/04/16
FC0002 Aukera berditasunerako sentimenduzkoak		20	2019/11/07-2019/11/13
LEHENTASUNA: LANGABETUEK IZANGO DUTE - PRAKTIKAK EGIN DITZAKEZU ENPRESA DATEAN			
FMEH0109	TXORBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	540	2018/11/05-2019/06/20
ELEM0311	Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa	390	Zehaztu gabe



EUSKARALDIA, GERTU!

32
EGUN FALTA
DIRA

4.170 debagoiendarrek eman dute jada izena

3.620 dira 'ahobizi' moduan izena eman dutenak eta 550, berriz, 'belarriprest'-ak; Debagoieneko herrietako ordezkariak Arrasaten batu dira, ekimenari hauspoa emateko eta oraindik izena eman ez duten herritarrei horretara animatzeko

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Azaroaren 23ra bitartean, formakuntza saioak eskainiko dituzte herriz herri. "Rolak zer diren ondo azaltzeaz gain, ariketa soziala nola egingo den ikusteko praktika txiki batzuk ere egingo ditugu. Edozein ahalegin egin aurretik, prestakuntza ona edukitzea komenigarria izaten da, eta guk ere hori egingo dugu, Euskaraldiko lehen egunera iritsi aurretik, giharrak landu, eta ekimenera segurtasunez iristeko. Beraz, herritarrek animatzen ditugu saio horietan parte hartzera", adie-



Debagoieneko herrietako ordezkariak, Arrasaten, atzo, eguena. E.A.

razi du Mari Karmen Arrietak, Eskoriatzako Euskaraldia batzordekideak.

Deialdi berezia

Orain arte izena eman dutenen artean, bereziki gazteak eta adin nagusikoak faltan igarri dituzte batzordekideek. Hori dela eta, deialdi berezia egin nahi izan diete.

Izena eman aurreko pausoak

Izena eman aurretik ondo pentsatzeko gomendioa egin diete herritarrei. "Garrantzitsua da izena eman aurretik jakitea ariketa zertan datzan, zer den *ahobizi* izatea eta zer den *belarriprest* izatea, eta ze konpromiso eskatzen duen bakoitzak. Beraz, lehenengo, informatu; gero, behatu gure egunerokotasunean ditugun hizkuntza ohiturak zeintzuk diren, eta, horren arabera, konpromisoa hartu", zehaztu du Iker Agirrek, Arrasateko Euskaraldia batzordekideak. Horrekin lotuta, rola aldatzeko aukera eskainiko dute.

Bailarako zaharren egoitzetako langileak greban daude

Bailarako zaharren egoitzetako langileek hainbat mobilizazio egin dituzte asteon, greban daudela adierazteko.

Salatzen dute Gipuzkoako zaharren egoitzetako hitzarmenaren negoziazioa duela 22 hilabete hasi zela, eta oraindik ez dagoela aurrerapausorik. "Eskatzen duguna da langileen soldata igoera, atsedeen orduak ordainduak izatea eta ratioak berrikustea, besteak beste. Izan ere, langileek korrika eta presaka egin behar izaten dute lan askotan, eta ezin izaten dute kalitatezko zerbitzu bat eskaini, ez daukatelako nahikoa denbora", azaldu du Janire Diazek, ELA sindikatuko ordezkariak.

Begarako Mizpirualde Egoitzak, bestalde, "errespetatu" egiten du greba, "langileen eskubide bat" dela argudiatuta. "Zerbitzu minimoak onartzen ditugu. Saiatzen gara antolatzen ahalik eta modu egokienean, modu horretan, egoiliarren eskubideak ere errespetatzeko".

Zer esango zenioke etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
OSASUNTU ZAHARTEKO
ESTRATEGIA

Gipuzkoako Foru Ahozkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



Ikasleak *flashmob* erraldoian dantzan.

Herri eskolako eta Udaleko ordezkariak harrera ekitaldian.



Umeak Jose Arana kaleko tailerretan eskulanak egiten.



Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako batukada kaleetan barrena.



Potx eta Lotx pailazozen ikuskizuna.



Bocabeats Comedia taldeko protagonistak emanaldian.

Olatu koloretsua eskolaren alde

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren lehenengo jaia ospatu zuten, zapatuan, Eskoriatzan. Musika, tailerrak, kirol-jolasak, pailazoak eta beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten festa egunarekin bat egin zuten debagoiendarrek

Aitor Agiriano ESKORIATZA

Fernando Eskoriatza plazan bildu ziren, eguna hasteko. Koldotxo Guraso Elkarteke lehenakari Antonio Regaño, Eskoriatzako alkate Jose Ramon Zubizarreta eta Luis Ezeiza eskolako guraso batek, irakasle batek eta bi ikasleek egin zieten ongiatorria. Baita ikasleek agurra dantzatu ere.

Hezi eta hazi lelopean, hezkuntza sistemaren ardatza dela aktiboki aldarrikatu nahi izan zuten jaiegunarekin; euskaldu-

na, kalitatezkoa, inklusiboa eta ekitatiboa dela adierazi.

Bost gune nagusi

Ekitaldi parte-hartzaileetan ari-tuz ospatu zuten jaia. Goizean, Jose Arana kalean barrena jarritako tailerretan eskulanak egiteko aukera egon zen eta Gorosarri plazan, berriz, kenpo, judo eta capoeira erakustaldi bikaina. Eta Auskalomenditik plazara joan ziren pailazozen istorioekin bat egin zuten umeek, besteak beste.

Arratsaldean, musika izan zen protagonista: *beat box*-a, inprobisazioa eta umorea oinarrituen emanaldia Bocabeats Comedia taldearen eskutik. Eguna borobiltzeko, Zea Mays taldearen kontzertua izan zen, jendez lepo.

Balorazio positiboa

"Urriaren 20an bizitakoa ez dugu erraz ahaztuko, ikaragarria izan zen. Herriarren babesa sentitu genuen", dio Koldotxo Guraso Elkarteke lehenakari Regaño.



Zea Mays taldearen kontzertua Luis Ezeiza eskolako patioan.



Gazte zein nagusi, Zea Mays taldearen kontzertuaz gozaten. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO

Eskertzen dakien herria

JOSUNE ALBERDI ETA IÑAKI ARTOLA
BERGARA

Zorionez, gure gizartean, jende ugari dago ekintzaile izanik ekarpen handia egin izan duena eta egiten duena besteei onerako.

Inguruko ei egindako onuraz gain, beraien ekarpen sozial edo kulturalagatik nabarmentzekoak direnak herri bat edo gizarte oso bat izan delako lan horren onura izan duena.

Horrelako bi, behintzat, joan zaizkigu Bergaran azken hilabete hauetan.

Bietan, sentsazio bera izan dugu; urteak pasatzen dira eta gizarteak bere bilakaera izaten du.

Denbora aurrera doan heinean ahaztu egiten zaigu gaur egun duguna aurretik eginikoaren ondorioa dela eta herrikide batzuek ahalegin berezia egin izateak berebiziko garrantzia eta eragina izan duela egoera horretara iritsi ahal izate horretan.

Eskerrak ematen dakien herriak pertsona horien ekarpenaren neurria gogoratu, ezagutarazi eta aitortu egin behar duela uste dugu.

Hori dela eta, idatzi xume honen bidez gogora ekarri nahi izan ditugu joan zaizkigun bi herritar hauek zer eman diguten bergararroi.

Uda partean, ekainean, Jesus Jauregi –igeri monitorea– joan zitzaigun Arroan. Bergarar ugari aitortu ginen bere hiletan. Herritar askok argi daukagu gaur egun dugun eta 50 urte betetzera doan Igeri Elkarte berari zor diogula, hein handi batean.

Pilar Lonarbide irakaslea hil da urrian. Pilarri, Eskola Publikoaren euskalduntze bidean, lehen urrats berri eta zail haletan eragile izatea egokitu zitzaion; euskalduntze prozesua orokortzeko ahaleginetan ipuinen erabileran eta

lanketan oinarritutako metodo berri bat eraiki zuen Pilarrek Haur Hezkuntzako ume erdaldunekin euskaraz aritzeko. *Ikusi makusi* deituriko baliabide aberats hau argitaratua ere izan zen eta Euskal Herriko ikastetxe guztietara hedatu zen.

Agur, Jesus; agur, Pilar. Eskerrik asko!

Eta mila esker, beraien bezala, eguneroko lan isilarekin guztiontzat onura izan diren edota izaten ari diren ekarpenak egiten ari zareten guztioi.

'Lur': zein tresna polita guztiendako!

LURDES GARCIA ZAPIAIN
ARRASATE

Domekan, *Lur* ikusi genuen Aretxabaletan. Zoragarria. Zelako modu polita haurren transexualitatearen gainean sentsibilizatzeke. Istorio dibertigarria eta maitasunez bete da eta gai hori era naturalean tratatzen dute.

Potota daukan mutil baten ama naiz, eta Xake Produktzioei, egindako lan ederra, fina eta elegantea eskertzen diet.

Eredugarria da transexualitatea zelan erakusten duen. Ez dago misteriorik, natura horrelakoa da; badaude neskatalak zakilarekin eta mutilak pototarekin; ez dira gehienak, baina badaude.

Lur mezu handiz beteta dago. Antzezlan atsegingarri horrek, konturatu gabe, balio garrantzitsuen gainean hausnartzera gonbidatzen du.

Nahiz eta, ikusi baino lehen, neure erreserbak neuzkan, asko gustatu zitzaidan, emozioz irten nintzen; barre asko, negar, denetik egin nuen. Emozioen errusiar mendi bat sentitu nuen. Gure semeak esan zigunean lehen hilabeteetan sentitu

nuenaren antzekoa, baina kontzentratuta. Gure kasuan, nerabezaroan esan zigun, eta etxean hasieratik onartu genuen. Egoera desberdina izan arren, *Lur*-eko aktoreek emozio horiek nola transmititzen dituzten izugarria da. Interpretazio ikaragarriak; ez nintzateke gai izango bat nabarmentzeko. Agertokia, dekoratua, janzkerak, musika, dena elegantziaz beteta dago.

Ezkutatuta egon den errealitate hau –haurren eta gazteen transexualitatea– erakusteko proposatu nahi diet, bai Arrasateko Udalarri, bai Euskal Herriko udal guztiei.

Bukatzeke, eskerrik asko, Kepa Errasti, hain istorio polita idazteagatik, eta Xake Produktzioen lantalde osoari, lan ederra egiteagatik.

Bergarako Laboratorium, 'Historic site'!

LEIRE IRUIN EZKURRA
BERGARAKO EH BILDUREN IZENEAN
BERGARA

Poz handiz hartu genuen European Physical Societyk Bergara eta, bereziki, Laboratorium Fisikako *Leku Historiko* izendatuko zuen notizia.

Izendapen honek ez du bakarrik XVIII. mendean Elhuyar anaiek Laboratorium egindako aurkikuntza edo Errege Seminarioan egindako lana aitortzen. Laboratorium museoak dibulgazio zientifikoan eta esparru sozialean eraldatzeko duen potentziala ere aitortu eta balioan jartzen du.

Bergarak zientzietan zein giza arloetan duen ondarearen erakusleho izugarria da Laboratorium museoa, eta aitortza hori Europako erakunde garrantzitsuek egin izanak museoarekiko ikuspegi eta jarrera berriak irekitzeko balio izan du.

Legealdi hasieran ia bukatuta jaso eta

Laboratorium museoa inauguratu zenetik lehen aldiz ikusi dugu EAJren Udala Gobernua museoa balioan jartzen. Bultzadarik eman ez ezik, museoari dedikatutako giza baliabideetan sekulako murrizketak egin ditu orain arte: museolariaren plaza hutsik utzi dute, turismo teknikariaren kontratua eten da, museoaz arduratzen diren teknikariei beste ardura batzuk eman eta museoa alde batera uzteko eskatu zaie, eta abar.

Askotan gertatzen den bezala, kanpotik etorri behar izan dute Europako komunitate zientifikoko ordezkariak, gure Laboratoriumi eta bertako langileei EAJren Udala Gobernuak aitortzen ez zien lana aitortu eta Bergarako museoak Europa mailako erreferentzia dela esatera.

Ea, bada, Laboratoriumekiko inflexio puntua den eta Bergara *Historic Site* izendapen honek Bergararen altxorrak balioan jarri eta indartzeko bideak uztartzeko balio digun.

Bizikidetz

ANTON TXINTXURRETA ETA IDOIA BOLLAR
OÑATIKO NATURZALIEN ETA NATUR
ESKOLAKO KIDEEN IZENEAN
OÑATI

Gure gizartearen eta herriaren ongizatea. Biztanle eta kolektiboaren ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartu, ezagutu eta hobetze aldera lan egitea. Elkarrenganako begirunea, errespetua eta solidaritatea; norbanakoaren izateari apur bat uko egin eta parean duguna kontuan hartzea.

Azkeneko hau da, hain justu, bizikidetzarako eman beharreko lehen pausoa: ondoan duguna identifikatzea. Bizikidetzaren inguruan gabiltzanean, pertsonen arteko elkarbizitza etortzen zaigu burura. Geure ongizatea, soilik gure artekoen errespetuzko harremanetan oinarritzen delakoan. Ahaztu egiten ditugu inguratzen gaituzten izakiak, edo, beharbada, ez

ditugu identifikatzen bizikidetzat. Herrian, erdigunean zein auzoetan, kale, parke, horma eta eraikinetako biztanleak: haritz, gorosti, txolarre, urubi, enara, muxar, saguzar, txantxiku, sugandila, arabazezen... zerrenda luzeegia idatzi honetarako. Bakoitza bere bizi beharrek, bere beharrezko iluntasun, argitasun, egonleku, gordeleku eta kumalekuekin. Ez ditugunez identifikatzen herritar lez, ezin begirunerik izan hauen beharrei, ezin solidaritate apur bat eskaini; ezin geure gogoei apur bat uko egin eta ondoan ditugun bizilagun hauekin bizikidetzat sano bat eraiki. Ez nahi ez dugulako, seguru!

Ezjakintasunagatik, egunerokotasunaren inertziak halako gauzetan pentsatzera bultzatzen ez gaituelako, edo auskalo zergatik, ez gara ohartzen aipatutakoez. Adibide garbia da Oñatiko partaidetzazko aurrekontuen bozkatzeko fasean proposatzen den 11. puntua: *San Martingo hariztian egun dagoen bidezidorra legarrez berregitea eta argiztatzea, korrika egiteko erosoa goa bihurtuz*. Beharbada, proposamena luzatu duenak ez daki San Maringo hariztiak gordetzen duen biodibertsitatea zein garrantzitsua den, eta proposamena ez dela batere aproposa ahazturiko herritarren bizikidetzarako.

Bertako haritz mardulek babesean hartzen dituzte saguzar, muxar eta urubiak, esaterako. Gautarrak, egunaren berezko zikloak ematen dituen iluntasun eta lasaitasun orduen beharra dutenak biziraupenerako.

Zeinek nahiko luke hauek arriskuan jartzea? Nork ez du nahi iluntzeetan San Martinen isil-isilik egonda muxarren marmarrak edo urubien uluak entzutea? Nork ez herriko biodibertsitatea babestea? Izan ere, hauen ongizateak bermatzen gu ez ginatkeela izango beraien ez balira. Elkarrekin osatzen dugula herria.



ZABALIK

MIKEL MUXIKA

Esker printzipioak?

Aski zabaldua da gazteek eraldaketa eta autogestio mugimenduetan parte hartzen ez duten iritzia, paso egiten dutela. Halere, nahiko xelebrea da hau entzutea, bat-batean gertatutako zerbait balitz bezala, iritzi hori dutenek bilakaera horretan parterik izan ez balute moduan.

Batek baino gehiagok ezagutu du dioenaren zergatia edo oinarria ulertzen ez duen pertsonaren bat ideia edo agenda bat defendatzen... baina konbentzitu daiteke inor horrela? Printzipioak ulertu gabe entzundakoak errepikatzen dituen loro hutsa izanda? Fedean oinarritutako diskurtsoek ibilbide motza dute; fededunen artean ez bada, behintzat.

Erakunde eta mugimenduetan, zuzendaritzarekiko iritzi ezberdina edo homogeneous ez duten fedegabeak baztertuak edo isilduak izan ohi dira, baita eraldaketa edo autogestioa bilatzen dutenetan ere. Kritikak eraso

KRIKAK ERASO MODUAN HARTU ETA ALDE BATERA UTZI IZAN DIRA 'DIBERGENTEAK'

moduan hartu eta alde batera utzi izan dira *dibergenteak*, nolabaiteko uniformizazio prozesuak sortuz. Nola da posible kideen formazio kritikoa honela? Ba al du zentzurik obedientzian

hezitakoak inizatiba eta mobilizazio grinarik ez dutenez kezak?

Irizpide horiei jarraiki, mugimenduak aginduak betetzen dituzten esker oneko jarraitzailez bete eta printzipioz hustu ote dira? Barneratu gabeko printzipioak marketin soilean utzi eta pragmatismo eta erosotasunaren izenean estrategia atzean uzten denean, egunerokoaren eta printzipioen arteko inkoherentziak agertzen dira: kooperatibako bazkide *kooperatibistak*, formazio gabeko ordezkariak –politikoak, sindikalak–...

Statu quo-aren baitako erakundeak gustura daude funtzionamendu honekin, baina aldaketa nahi dutenekin, zer? Ez al dago eraldaketa edo autogestioa bultzatzen duen mugimendurik jada?

Mantentzen denagatik eskerrak eman beharko genituzke edo beste bide batzuk bilatu?

Printzipiorik bai edo eskerra bakarrik?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Flyschak, plastikoak eta euskara

MIKEL ASURMENDI

[HTTPS://LABUR.EUS/TLOHZ](https://labur.eus/tlohz)

Plastikozko flyscha zioen lehen orrian euskaldunon egunkariak astearte honetan, gure egunkariak. [...]

"Zumaiako Flyschak plastikoz beterik daudela erakusten duen bideoa birala bihurtu da azken orduetan", zioen Argia-k. Oier Bartolome surflariak "erdaraz" egindako bideoak 178.382 ikustaldi ukan ditu dagoeneko. [...]

1-"Zuhaitzak ez digu basoa ikusten uzten" edota "hatzak ilargia seinatzen du eta ilargia behatu beharrean hatzari so egiten diogu". Nik

sentsazio hori izan dut berria ezagutzearan.

2-Hedabideek osatzen dute basoa, eta berri batek ez digu basoa bera ikusten uzten. Ilargia ederra ez ezik, boterea da –Gipuzkoako Foru Aldundia, adibidez– eta hari begiratu beharrean, hatzari –surflariari– begiratzen diogu. 3-Flyschen ardura, hurrenez hurren, Deba eta Zumaiako udalena da, tokiko Aldundiarena, Erkidegoko Gobernuarena, Estatuko eta Europako gobernuarena. [...]

4-Alabaina, galderok heldu zaizkit gogora: Oier Bartolome euskalduna al da? Ba al daki euskaraz? Ez al daki euskaraz? Baldin euskaraz badaki, zergatik ez

du hitz bat bera euskaraz esaten?

5-Bideo hori botere guneak kudeatzen dituztenek egin behar dute, beren betebeharra baita. Ez dute halakorik egin, baina egin izan balute, erdara hutsez egin izan balute, bideoa salatua izango zen, eta salaketa ere birala bihurtuko zen.

6-*Euskaraldia* heldu da. Hamaika egunez euskaraz biziko omen gara. Hala ere, guretako hainbati gure erakunde ardurak kezka sorrarazten digu. *Euskararen aldia* egunerokoa izan behar dela pentsatzen dugunoi.

P.S.: "Begiak itxirik etzanda bizi gara, itsasoa, ilargia dela pentsatzen".

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Mundu mailako Lanbide Heziketaren elitean gaude"

JORGE AREVALO LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEA

Eneko Azkarate OÑATI

Lanbide Heziketako sailburuordea Oñatin izan da, EAJk gonbidatuta. IV. Industria Iraultzaren aurrean, euskal Lanbide Heziketaren oraina eta etorkizuna aztertu ditu.

Euskadiko Lanbide Heziketa erreferente da Europa mailan?

Une honetan, Europako Batzordeak hartu du euskal Lanbide Heziketa Europarako eredu moduan. Duela hiru aste izan gara Bruselan eta esan digute Europar Batasunaren estrategia Lanbide Heziketarako gure erudian oinarrituta dagoela. Europako Lanbide Heziketako bikaintasunezko zentroak diseinatzeko orduan, eredu izango gara ere esan digute.

Zergatik da hori?

Etorkizuneko langile kualifikatuak formatzeaz gain, enpresa txikien eta ertainen berrikuntzan laguntzen dugulako; enpresen sorreran laguntzen dugu: heziketa, berrikuntza eta ekintzailtza



Jorge Arevalo, eguaztenean, Oñatiko kultura etxean. AMAIA ZABALA

edo enpresa-sorkuntza eskutik doaz. Hezitzaileak enprekin batera ikertzen ari dira, produktuak edo produkzio prozesuak berritzeko. **Eta euskal Lanbide Heziketak nor du eredu?**

Mundu osoko heziketa eredu aurreratuenetara begira gaude. Europako eta Europaz gaindiko 42 herrialdeekin ditugu harremanak. Australia, Ameriketako Estatu Batuak, Txina, Erresuma Batua,

Alemania, Suitza, Herbehereak, Suedia, Finlandia... dira guretako erreferentziak eta hainbat arlotan elkarrekin ari gara. Lehiakide izanda ere, kooperazioan ari gara. Munduko Lanbide Heziketaren elitean kokatuta gaude une honetan.

Zeintzuk dira euskal Lanbide Heziketaren arrakastak nagusiak?

Pertsonen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna. Eta, batez ere, ikasleak ondo prestatzeaz gain, lan munduan luzaroan ondo aritzeko eta egokitze hezteak. Teknologiak ekarriko duen IV. Industria Iraultzarako –eta baita beste sektore batzuetarako– ikasleak ondo prestatzea da helburua.

Ondo erantzuten die Lanbide Heziketak bertako industriaren eskakizunei?

Bai, kasu batzuetan, Lanbide Heziketa enpresen aurretik doa. Beste batzuetan, batera. **Migel Altuna ikastetxeak eraikin berria izango du aurki. Nolako izango da?**

Europako aurreratuenetara ez bada, aurreratuenetara izango da. 4.0 Industriarako prestatua eta inguruko enpresei erantzun onena emateko gaitua. Europako herrialde asko eta Europako Batzordea etorriko da ikustera.

HAU BE BADOGU!

Plastiko ugari flysanean



Aste honetan, bolo-bolo aritu da Oier Bartolome surflari debarrak sare sozialen bidez flyscean grabatutako bideoa. Bertan, plastikoz beteta agertzen da biotopo naturala. Jendea kontzientzia hartzen hasita dago, espazioak garbi mantentzen saiatu behar dela, baina Bartolomek erakutsitako irudiak argi uzten du bide luzea dagoela egiteko oraindik.

Herritarron Ituna, ordezkari politikoei



Gure Esku Dagok herritarron Ituna aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan. Euskal herritarrek erabaki ahal izateko dituzten arrazoiak biltzen ditu. Arrazoi hauek ordezkari politikoei aintzat hartu beharrekoak direla uste dute plataformako kideek, erabakitze eskubidean oinarritutako etorkizun politikoa bermatu ahal izateko.

Amatasun bajak, PFEZtik salbu

2014 eta 2017 urteen artean amatasun edo aitatasun baja hartu zuten gurasoek eta PFEZ ordaindu behar izan zutenek inprimaki bat bete zuten gero, urte horretan ordaindutako PFEZ zerga berreskuratuta ahal izango dute.

Horretarako, Debagoieneko zenbait udalek gestio hori egiteko zerbitzua ezarri dute. Arrasaten, esaterako, BAZEN egin daiteke.

ITURRI ONETIK

Donostiako Orfeoia Oñatin

Eusko Ikaskuntza mendeurrena ospatzen ari da aurten. 100. urteurrenarekin batera, XVIII. Kongresua, hegoaldeko lau hiriburu eta Baionan. Mendeurrenako ospakizunei eta kongresuari amaiera emateko, erakundearen sorrerako kongresua egin zen toki berean, Oñatin, ekitaldi bereziak iragarri dituzte azaroaren 24 eta 25rako. Bezperan emango zaio amaiera XVIII. Kongresuari. Ospakizunetan, aurreratu daiteke kontzertu berezia eskainiko duela Donostiako Orfeoia San Migel parrokian.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-10-25

Erabakitze eskubidearen aldeko ekimena

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak erabakitze eskubidearen gaineko herri galdeketa agindu zuen 2008ko urriaren 25erako. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak debekatu egin zuen. Horren aurrean, *Hitza hitz* ekimena bultzatu zuten EAJK, EAK, Aralarrek eta Ezker Batuak. Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan batzeko dei egin zuten, *Euskal Herria bakea bai. Erabakia bai* lelopean. Debagoienarrek Legutition izan zuten hitzordua.



Hitzarmen propioa etxez etxeko langileendako

Lau hilabeteko grebaren eta hamaika mobilizazioen ostean, hitzarmen propioa izateko aurrekordia lortu dute Aurrerantz kooperatibarekin. Hainbat hobekuntza lortu dituzte, eta eskertuta azaldu dira prozesuan zehar jaso duten babesarengatik

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko etxez etxeko langileek sinatu dute aurrekordia, lau hilabete greban egon ostean. Lehen, estatuko hitzarmen bat aplikatzen zitzaien langileei, eta orain, euren esparrurako balio duen hitzarmen bat lortu dute, erreformen aurkako klausula guztiekin eta hitzarmena aplikatzeko bermeak ematen dizkien klausulekin.

Hobekuntzak eta konpromisoak

Langileek diote lortutakoa "garaipen izugarria" izan dela; enpresarekin aurrekordia sinatzeaz gain, Udalarekin ere "konpromiso zehatzak" lortu dituztelako. Deba eskualdeko eta Urola kostako Ongizate zerbitzuetako ELAko arduradun Janire Diazek aurkezpenean esan zuen hauek direla adostu dituzten puntuetako batzuk: "Soldata igoera nabarmenak izango dituzte; ordua zortzi euro inguru kobratzetik, hamaika kobratze-



Etxez etxeko langileak, astelehenean egindako prentsa agerraldian. A. TXINTXURRETA

ra pasako dira 2018an. Bajak %80an kobratuko dituzte lehenengo egunetik, orain ez bezala. Plus berriak ere sortuko dira; garraio plusa, desplazamendua, baserrietara jo behar dutenentzat plusa...". Soldatei dagokienez,

KPIa gehi %0,5eko igoera adostu dute 2020ra arte. Horrez gain, 2018an soldataren %7ko igoera lortu dute; 2019rako, %2,5ekoa; eta 2020rako, %2koa. Hobekuntzekin jarraituz, langileek dituzten ordu pribatuak ordu publi-

"Zapore gazi-gozaarekin geratu gara"

MARIA UBARRETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

Zein da Udal Gobernuaren sentsazioa, behin prozesua amaituta?

Zapore gazi-gozaarekin geratu gara. Gozoa, akordia lortu delako, eta hori beti delako positiboa. Gazia, aldiz, beti egin dugulako langileek kooperatiba sor zezaten aukeraren alde.

Nola egin duzue aukera horren alde?

Elkarlan elkartearekin aurrean bat eginda geneukan, eta horri



AMAJA TXINTXURRETA

buruzkoa informazioa helarazi genien langileei. Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko hainbat kooperatiba sortu dira Euskal Herrian. Elkarlan enpresak jardun horietan guztietan, eta bageneuzkan beste herri batzuetako ereduak. Guretzako, aukera paregabea zegoen Arrasaten horretarako, baina, azkenean, ez da posible izan. Hala ere, konponbide bat eman zaio gaiari, eta pozik gaude".

koetara bideratzen saiatzeko konpromisoa hartu du Udalak. Langileek hala eskatuta, langileen ordezkariekin eta enpresarekin, etxeko laguntzatik sortzen diren orduak kudeatu eta horiei jarraipena egiteko komisioa sortuko dela azaldu zuten.

Gaineratu zuten eurentzat "oso garrantzitsua" den beste puntu bat ere lortu dutela: lanordua modu berdintsuan banatuko direla langile guztien artean. Diote horrek hobekuntza nabarmenak ekarriko dituela langileen

lanaldiei eta ordu-poltsei dagokienez.

Langileak, "eskertuta"

Etxez etxeko langileek esker hitzak izan dituzte, herritarrengandik jaso duten babesarengatik. Hauxe esan zuen etxez etxeko langileen ordezkari Karmele Loitik: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Arrasateko herriari, manifestazioetan eta bestelako ekintzetan babes handia erakutsi digulako, eta hori, guretzat, oso inportantea izan da".



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Tantaz tantako itsasoa

Urria bukatzeaz dela badator azaroa, eta azaroarekin batera Euskaraldia. Azaro bukaeran hasiko da euskaldunona, herritarrena, amonena eta aitonenena, guraso eta semeena, alaba eta lehengusinenena, lagun eta ezagunenena... gu guztien lana. Jolas dibertigarri bat bezala proposatuz gero, ez al duzue uste Euskal Herri osoan oihartzuna izan dezakegula?

Askotan, ez gara konturatzen, baina gurea den hizkuntza hau egunerokotasunean erabiltzea pentsatzen duguna baino errazagoa da. Hori frogatzeko aukera ezin hobea da Euskaraldia, hamaika egunez euskaraz erosi, entzun, jolastu, dantzatu, barre egin, eta ez ahaztu: euskaraz bizi!

Nork berea egitea da gakoa, aukeratu rola, bete zeure rola, lagundu betetzen rola. Aukera ezin hobea da gurea dena defendatzeko eta geureak indarra daukala frogatzeko.

Konpartitzen dugun hori belarri zein mihiarekin esan dezagun barrenekik sentitzen dugun gogoarekin. Tantaz tanta osatzen delako itsasoa. Eta itsasoko tanta bakoitza delako ezinbestekoa.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean, 12:00etan, Herriko Plazan elkarretaratzea egingo dute.

Bidegorria

Gaur eta astelehenean, San Prudentzio eta Ekilore arteko bide zatia itxita egongo da, 08:00etatik 19:00etara.

Salmenta lizentziak

Santamasetan kalez kaleko salmenta lizentziak emateko prozedura onartu du Udalak. Azaroaren 15era arte eman daiteke izena.

EH Bilduren telefonoa

Whatsapp bidez herritarrekin kontaktuan jartzeko, 644 29 85 87 zenbakia egokitu dute.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Ezkontza egunean, Herriko Plaza zikin

Irakurle batek salatu duenez, duela aste batzuk hala geratu zen udaletxeko arkupea ezkontza baten ostean. "Ospakizunak ondo daude, baina garbitasuna zaintzea ez legoke gaizki".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Monterrongo ideia lehiaketak badu garailea

'Bihurgune 1545' proiektuari eman dio lehen postua epaimahaiak, herritarren botoak eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa kontuan hartuta. Ideia lehiaketa izan denez, diseinuan aldaketak egin ahal izango dituzte etorkizuneko udal gobernuek

Xabi Gorostidi ARRASATE

Monterron parkea herrira gehiago zabaltzeko asmoz, ideia lehiaketa abiatu zuen Udal Gobernuak 2017ko abenduan.

2018ko ekainean, lehiaketa parte hartu zuten enpresen artean hamaika diseinu aukeratu zituztela jakinarazi zuen Udal Gobernuak. Ostean, erakusketa jarri zuten ikusgai, uztailearen 3tik irailaren 14ra bitartean, non, diseinuak ikusteaz gain, herritarrek euren aukera gustuoenaren aldeko botoa ere eman zezaketen.

Irabazlea, aukeratuta

Lehiaketako epaimahaiak hauek osatu dute: Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak, Mondragon Unibertsitateko ordezkari batek, EHUko ordezkari batek, Paisajisten Elkartearen ordezkari batek, Arkitektoen Eskolako ordezkari batek eta Ingeniarien Eskolako ordezkari batek.

Irabazlea aukeratzeko orduan honako irizpide hauek hartu dituzte kontuan: herritarren botoak, proiektuaren bideragarritasun ekonomiko-teknikoa, inguruarekin bat egiteko duen gaitasuna, irisgarritasun maila

eta parkearen egungo erabileekin duen bateragarritasuna.

Hala, lehen saria Victor Vazquezek eta Idurre Garciak diseinatutako *Bihurgune 1545* proiektuak irabazi du, eta horren truke 10.000 euroko diru-saria jasoko dute; bigarren saria, eta horri dagokion 5.000 euroko saria, Alexander Michbronnen *Parentesis 0132* lanarentzako izan da; hirugarrena, Pezestudio SCren *Berdetuz 2018* diseinua-arentzako; laugarrena, Edurne Oyangurenen eta Maria Ricasen *Pasear 0227* lanarentzako; eta bosgarrena, Maria Celinaren *Ibilbidea 2018* proiektuarentzako. Azken hiru finalistek 1.000 euroko saria jasoko dute.

342 herritarren botoak

Erakusketak irau duen bitartean, 300 lagunek baino gehiagok eman dute botoa. Herritarren rankingean, *Ibilbidea 2018* izan da botatuena, bigarrena *Bihurgune 1545* eta hirugarrena *Lurruna 1247*. Horri lotuta, Arrasateko Udalak eskerrak eman dizkie herritarrei, euren boto eta ekarpenen bitartez "prozesuan inplikatzegatik eta parte hartu izanagatik".



Bihurgune 1545 proiektua izan da irabazlea. ARRASATEKO UDALA

Kurtzetxiki ingurua txukuntzeko lanak hasi dituzte

Udal Gobernuak eta herriko nekazariak osatzen duten Larraigain elkarteak akordioa lortu zuten otsailean, Kurtzetxikin dauden udal jabetzako hamar hektarea txukuntzeko. Orain, udazkenean, lurrak lantzen hasi dira, eta nabaria da hori Kurtzetxiki tontor inguruan. Behin hori eginda, neguan ardiak eramango dituzte bertara.

Arrasateko Udala aldi baterako biltegi zain bat kontratatuko du

Arrasate.eus webgunearen bitartez jakinarazi duenez, Udalak biltegi zain bat hartuko, du titularraren erretiro partziala ordezkatzeko.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten hautagai guztiek Lanbiden -bulego kolaboratzaileetan edo webgunean eman beharko dute izena urriaren 25a baino lehen.




BEZa*
 oparitutako
 dizugu
 denean

Zure EROSKI club txartelean itzuliko dizugu

40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoa EROSKI Hipmerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabriar, Erioxan eta Aragoian.

27
 urriak
larunbata

* Euzko udalerrietan EROSKI Club txartelak ez daude, egonaldi errekortan BEZa dagokion zerbitzua sartu dizugu txartelean itzuliko EROSKI Club txartelak. **EROSKI Club txartela** 100 gutxienez gaitasuna duenentzat. 250 euro. Promozioa EROSKI Hipmerkatuetan eta Supermerkatuetan, eta EROSKI online supermerkatuetan erabili daiteke. Promozioa ez da baina txartela hiru-urteko, egonaldi-gaitasun, telefonozko laguntza, E-gay txartelak (jauzidoronako txartelak), erretiro digitala eta fidantza-promozioen bitartez (puntu indibidualak edo puntuak) eskuratu daitezkeen produktuek. Kontuak gaitasun bitartekak zure ofizioan.

15 urtez euskal kantuak eta dantzak jorratzen

Portaloi Kultur Elkarteak hamabost kandelaz apaindutako pastelari putz egin berri dio. Hotel Mondragonen egin zituzten lehen urratsak, Itziar Zamoraren laguntzarekin, eta gaur egun 60 laguneko taldeak dituzte elkarteko kantu eta dantza arloetan

Xabi Gorostidi ARRASATE

2003ko urrian landatu zen Portaloi Kultur Elkartea izango zenaren hazia, eguraldi txarratik bertan behera geratu zen Nafarroa Oinez jaialdian.

"Joan zen domekan bete ziren 20 urte elkarte sortzen hasi ginela. Aurreko gauean, sekulako euri jasa izan zen, eta jaialdia bertan behera geratu zen. Guk, hala ere, bertara heltzea lortu genuen. Zortzi lagun ginen, eta, euskal kantuak gogoko genituenez, zerbait egin behar genuela komentatu genuen", azaldu du elkarteko kide Salba Dalmauk.

Lehen pausoak

Zortzi lagun horietako batek bazuen euskal kantuekin lotutako ikastaro baten berri, eta haiengana jo zuten elkartearen lehen ikastaroa gidatzeko.

"Gutako batek bazekien Donostiako Intxaurren auzoan euskal kantuei buruzko ikastaro bat zegoela. Lekeition jai eta Donostian bizi zen Itziar Zamora zen ikastaro haren gidaria, eta, hain zuzen, gurekin hastea proposatu genionean, baiezkota eman zigun".

Hala, 2004ko martxoan lehen ikastaroa abiatu zuten, Mondragon Hotelean. "Itziar Zamorak sekulako lana egin zuen. Ez zuen autorik, eta Donostiatik Zumarragaraino trenean joaten zen. Ostein, autoz joaten nintzen haren bila Arrasatera heltzeko. Pentsa, 16:00etan irteten zen etxetik eta 22:00etan itzultzen zen. Lehen lau hilabeteak egin genituen harekin, eta, ostein, Maixa Lizarribarrekin jarraitu genuen zazpi urtez".

2008a ezker, dantzak

Lehen kantu ikastaroa egin eta handik lau urtera hasi ziren Portaloi Kultur Elkarteok dantza arloa jorratzen. "Hasieran, gure kabuz eman genituen eskolak, eta, ondoren, Patxi Monteroren bitartez. Gogoratzen dut AED elkarteak 25 urte bete zituen urtean, ekitaldietako batean, izan genuela lehen hartu-eman Patxiarekin, eta azken hamar urteetan hark koordinatu du dantza arloa".

Euskal Herrian, lagin ugari

Hamarkada eta erdi honetan, lagun asko egin dituzte irteeren bitartez. "Urtean dozena erdi

irteera egiten ditugu, baina badaude ia urtero errepikatzen ditugun bisitak: urriko lehen zapatuan Gernikara, Otxandio eta Aramaio Gabonetan...".

Gaur egun zenbat lagun diren galdetuta, zera dio Dalmauk: "Bai dantzan eta baita kantuan ere, 60 laguneko osatutako taldeak dauzkagu".

Ekintza ugari Halloween baino zaharragoa den Gaba Baltzean

Txatxilipurdik, Ttak-ek, ludotekek, Ekin elkarteak eta gazte txokoek jaiaren jatorri euskalduna landuko dute

X.G. ARRASATE

"Halloween tankera hartu duen egun hau gure jatorrietatik abiatutako egitarau batekin". Hala ere landuko dute. Gaur, adibidez, Arrasateko Sexologia Zerbitzua-aren eskutik, *Nerabeentzako hilerokoaren misterioen inguruko tailerra* egongo da, 18:30ean, gaztegunean. Bihar eta etzi, erdiguneko gaztegunea *Beldur etxe* bilakatuko dute Arrasateko nerabeek, eta herritar guztien bisitak jasotzeko zabalik egongo da, 18:00etatik 20:00etara. Astelehenean, heriotzari buruzko

Aulki hutsak dokumentala proiektatuko dute Kulturaten—18:30ean, eta, ostein, Eider Otxoak eta Maider Urzainek hitzaldia egingo dute.

Asteazkenean, *Arimen biltzerra* egingo dute Monterronen. "Etorri kukumarroz, baserritarrez edota kalabaza hutsekin eta batu *Arimen biltzarrera*", adierazi dute antolatzaileek. Hitzorduak 18:00etan egingo dituzte; baserritarrek Aroz plazan, kukumarruek Portaloian eta kalabazek Zaldibarren; gero, Monterronera joango dira.



Portaloi elkartekoak Herriko Plazan. IMANOL SORIANO

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituz: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak

Ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu: Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aukeratu bideoak originalak eta argitaragabek izan behar dira.
- Bideo bakoik gutxienez 5 minutu eta gehienez 20 minutu izan behar dira.
- Bideoak euskarazkoak izan behar dira. Euskaraz ez den edukirik berriz, euskarazko azpititulak izan behar dira.
- Bideoak online sistema bidez (vimeo edo wetransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**, Gatz (Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa).
- Bideoak berriak izan behar dira eta behar bezala argitaratuak.
- Bideoaren fitxategia berri jargar behar da.
- Izenburua
- Sinopsia edo laburpena
- Egilea (izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa)
- Bideoaren kodea
- Kaitze artistikoa
- Gidatzailearen izena
- Irudi lanaketa
- Irudiak bideoak **BERRIAren** Youtubeko kanalean jarriko dira, eta BERRIAren argitua izango dira. Bideoa egin duenak izango du bideoaren irudiaren erabilera onartua.
- BERRIAk irudimena izango du lanak lehiaketatik kanpo sartzeko, lehiaketatik kanpo utzi ahal izango dira mezu argitaratu, gora ekiditekoak unean dituztenak edo ezin diren erabiltzekoak bideoak.
- Datu Pertsonalak: Bideoak Argitzaile baten parte hartzaileak izango dira. Zuzen izen eta datu pertsonalak EUSKAL EDITOREA SL enpresaren tratamenduan sartuko dira. Hala, parte hartzaileak lehiaketa irabazteko erabiltzeko izango dira.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendok eta Herriko mendigari elkartearen opera, lagun batenzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA

Brithorn (4.165 m) - Castor (4.226 m)

Panotzspitze (4.436 m) - Zumsteinspitz (4.563 m)

SABESLEAK:

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN Relax asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

ATXASPI HOTELEA

APALATEGUI

berria-mundua-euskarari-eman

Josu Arkauzi ez dizkiote Frantziako urteak batuko

Pronostikoen aurka, euskal presoek Frantzian egindako espetxe urteak ez metatzea erabaki du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak. Erabakia aldekoa eta irmoa izan balitz, hiru preso debagoiendarren askatzea ekarriko zuen; tartean, Josu Arkauzena

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martitzenean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak erabaki garrantzitsu bat hartu behar zuen, euskal presoek Frantzian egindako espetxe urteak metatzeari buruz. Epaia hartu baino bi aste lehenago, komunikabide ugari iragarri zuten presoek aldeko erabakia hartuko zutela, baina pronostikoak ez dira bete.

Santiago Arrospide, Oñatiko Alberto Plazaola eta Francisco Mujika presoek helegitearen gainean hartu zuen erabakia Estrasburgok. Europako legediak erabaki marko bat hartu zuen 2008an, non antzerako delituen-



Josu Arkauz, Arrasaten. KALERA KALERA

gatik estatu batean betetako espetxe urteak deskontatzea agintzen zuen, beste estatukide batean preso dauden horiei. Horren aurrean, Espainiako legediak esan zuen ez zuela hori atzera eraginkortasunez aplikatuko 2014tik atzerako kasuetan, eta aipatutako hiru presoek auzibidea hasi zuten erabaki horren aurka. Asteleheneko epaia aldekoa izan balitz, hiru preso horiek aske geratu beharko zuten, eta erabaki horrek eragina izango zuen antzeko egoeran zeuden beste 50 euskal preso ingururengan. Horien artean egongo ziren Joseba Arregi oñatiarra eta Josu Arkauz ere. Az-

ken horren kasuan, Frantziako espetxe urteak metatuz gero, 2015a ezkerro aske beharko luke, eta haren senideek tristuraz hartu dute Estrasburgoko epaia: "Martxoan 28 urte beteko ditu Josuk kartzelan. Iazko martxoan aita hil zen, eta Josu aske ikusi gabe joan zen. Amak 93 urte ditu, eta, sententzia ikusita, badi-rudi berak ere ez duela Josu aske ikusiko. Ilusio hori genuen familiako guztiok, baina badi-rudi bete gabe geratuko dela", azaldu du haren anaia Jose Ramon Arkauzek. Sententzia jakinarazi ostean, kartelada berezia egin zuten hainbat herritarrek.

Adindun senideak

Dispertsioak presoek senideengan duen eragina bistartzeko, *Azken arnasa arte* filmaren proiektzioa antolatu zuen martitzenean Etxerategi, Kulturaten. "Presoen gurasoen %98k 65 urtetik gora dituzte, eta erretiratura daude. Bidaia luzeek eragiten dituzten kostu ekonomikoak eta min psikologiko eta fisikoak pairatzen dituzte, eta egoera oso gogorra da", azaldu du Etxerat elkarteko kide Naike Diezek.

Igor Urizar 'Harira' saioan izango da martitzenean

Baleikeko bozeramailea izango da *Harira* saioko hurrengo gonbidatua -martitzenean emitituko da Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean-, eta bertan, Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzungo ditu. Herritarrek galderak proposatu ditzakete 688 69 00 07 zenbakian, Whatsapp edo Telegram bidez, edo berriak@goiena.eus helbidean.

EH Bilduk herri batzarra egingo du astelehenean

Urriaren 29an, astelehenean, maiatzeko udal hauteskundeak jo-puntuari izango dituen herri batzarra egingo du Arrasateko EH Bilduk. Hain zuzen, 18:30ean egingo dute, Pablo Uranga kaleko EH Bilgunean.

Batzar horretan, Eneko Barberena ordezkatzeko hautagaia aukeratzeko prozesuaren nondik norakoak azalduko dituzte.

LASER DEPILAZIOA

Gozatu zure azalaren leuntasunaz

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

RPS:48/14
Ez da osasun zentroa

943 79 52 17
Bisente Ferrer, I
20500 ARRASATE

TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA ZURE ESKU

LASER PLATAFORMA

- Lightseer diodoa
- Alejandrita
- Argi pultsatua (IPL)

FINANTZIAZIOA: 12 hilabetetan %0ko interesarekin

Emakumezkoak	Gizonezkoak
Hanka osoak 80 €	Bizkarra 125 €
Izterondoak 35 €	Bularra 65 €
Besapeak 35 €	Sabela 65 €

Eskaintza baliagarria azaroaren 30a arte

BONOA

+ 5 saio
1 doan

Saioak 3 hilabete behin



Duela 35 urte Arrasateko atletismo saileko elastikoa defendatu zuten atletak batu ziren zapatuan. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Juventud Deportivako atleten topaketa izan da

Joan den zapatuan batu ziren, mahaiaren bueltan, Arrasatek emandako atleta onentsuenetako batzuk. Juventud Deportiva Mondragonen elastikoa defendatu zuten, eta euretako batzuek estatu mailan marka gogoangarriak egin zituzten

Xabier Urzelai ARRASATE

Mojategiko kirol instalazioak atleta harrobi ona dira. Egun, bertako gazteek Arrasate Atletiko Taldeko elastikoa defendatzen dute, baina, garai batean -duela 35 urte-, erretratuko protagonistek Juventud Deportiva Mondragonen izenean kirol lorpen galantak egin zituzten.

Estatu mailan ere dominak

Izan ere, euretako batzuk, Euskal Herri mailan marka onak egitearekin batera, estatu mailan ere erreferente izan ziren. Eta ez dago garai hartako bizipenak mahaiaren bueltan gogora ekartzea modukorik. "Egun ederra pasa genuen zapatuan, besteak beste, atletismoaren

bueltan bizitako anekdotak errepasatzen eta atleta sarrailagileek lortutako kirol lorpenak gogoan izaten", adierazi du Fernando Zufiriak.

Hala, erretratuko kuadrilla horren artean, Txufi-k hiru atleta nabarmendu ditu: "Atleta horiek guztiak urte askoan defendatu zuten orduan Arrasateko taldea zena, baina Gi-

Euskadiko bi txapelkun

Zapatuan, Euskadiko Karate Txapelketa egin zuten Anoetan, eta Saioa Karate Taldeko Josu Madinabeitia eta Ane Garcia lehiatu ziren. Madinabeitia kumite modalitatean (55 kilo azpitik) Euskadiko txapelkun izan zen, eta beste horrenbeste egin zuen Garciak 59 kilotik gorakoan kategorian. Orain, Espainiako Txapelketara joateko zain daude.




CARLOS SANCHEZ

Brontzea maratoi txapelketan

Arrasate Atletiko Taldeko ordezkari Aitor Eraña bergararrak brontzea lortu zuen urriaren 21ean egin zuten Espainiako Maratoi Txapelketan, M65 kategorian.

Lasterketa Ciudad Realen egin zuten, eta ibilbide gogorak eta egindako tenperatura altuak asko zaildu zuten proba -18 eta 26 gradu bitarteko tenperaturak izan zituzten lasterketan zehar-. Horrekin batera, zirkuitua industrialde batean jarri zuten, eta oso jende gutxi batu zen korrikalariak animatzeko. Kontu horiek alde batera utzita, baina, Aitor Erañak lan nabarmena egin zuen lasterketan, 3.31.40 segundoko denbora eginda bergararra hirugarrena izan zen-eta bere kategorian. Bost kilometroren faltan bosgarren postuan zegoen, baina lasterketaren azken zatirako indarrak gorde zituen, eta bi postu aurreratu.



Aitor Eraña. ARRASATE ATLETIKO

puzkoako Federazioak banatzen dituen urrezko ezkurak jaso zituztenak nabarmenduko ditut. Sari hori Gipuzkoako atleta nabarmenenek jasotzen dute, Gipuzkoa eta Euskadi mailan errekorrak ondu dituztenek".

Hala, nabarmendutako hiru atleta horiek dira Maria Angeles Ancin, Jose Antonio Gay eta Elvira Gamboa: "Maria Angeles Ancinek birritan irabazi zuen brontzezko domina Espainiako 3.000 metroko martxa lasterketan, eta 5.000 metrokoan Euskadiko

errekorra lortu zuen. Jose Antonio Gay, berriz, bai pista estalian eta baita aire librean Espainiako txapelkun izan zen 200 eta 400 metroko probetan. Eta Elvira Gamboak 4x400 metroko proban Euskadiko errekorra egin zuen".

ANCINEN, GAYREN ETA GAMBOAREN MARKAK NABARMENTZEKOAK IZAN ZIREN

IMUK azken sailkatu La Flecha hartuko du Iturripen

Normalean ez moduan, domeka arratsaldean jokatu du Mondragon Unibertsitateak oraingo asteburuko partidua, domekan, 18:30ean, sailkapenean azken postuan dagoen La Flecharen kontra.

Hain zuzen, ligako lehenengo jardunaldian Burgosko unibertsitatearen kontra galdu eta gero, joan den astean Valladolidetik garaipen garrantzitsua ekarri zuten Iñaki Ogararen mutilek. Partidu hasiera parekatua izan zen (17-18), eta Valladolidekoek aurre hartu zuten bigarren laurdenean (25-14), baina hirugarren laurdena zuri-moreendako izan zen erabat (9-24), eta hor egon zen gakoa.

Oilarren kontra jokatzeko jarraituko du ARTK

Arrasate Rugby Taldea ligako oilarren kontra jokatu beharreko partiduetan murgilduta dago. Joan den astean, 30-11 galdu zuten bigarren postuan dauden La Unicakoen kontra, eta oraingo asteburuan ere ez dute kontrario makala, Garabi Goierri Ordizia taldea lehenengo postuan dago eta. Gainera, ordiziarren etxean izango da norgehiagoka.

Etxekoek ez dute liga hasiera ona izan, jokatuak hiru partidua galdu dituzte, baina batutako bi bonus puntuei esker sailkapenean atzerago dituzte Menditarrak eta Bera Bera taldeak. Aurten ere lehia gogorra izango dute kategoriari eusteko borrokan.



Aritz abeslaria, Azpeitiko kontzertuan. OIHANA RAVEN

Kobazulotik irten da Numen, akelarrea egiteko

1997an Arrasaten sortutako Numen taldeak disko berria grabatu du. Black metal doinuak egiten dituzte eta jarraitzaile talde handia dute; bai hemen eta baita nazioartean ere. Azpeitian jo zuten joan den zapatuan, Sanagustin kulturgunean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Geldialdi luze baten ondoren, Numen taldeko kideak oholtzara igo dira berriro ere; hain zuzen, Azpeitiko Sanagustin kulturgunean egin zuten akelarrea Extinction eta Necros Christos taldeekin. "Bost urte luze pasa dira azkenekoz Euskal Herrian jo genuenetik", azaldu du Numen taldeko Jabok.

Beste talde batzuekin lanean

Denbora tarte honetan geldi ez direla egon azaldu du Jabok: "Diskoa prestatzen ibili gara. Gertatzen dena da beste talde batzuekin ere jotzen dugula eta ezin garela egon %100ean proiektu honetan. Hala, luzatu egin da disko berriaren prestateta".

Iaz, Zaragozako jaialdi batean jotzeko eskatu zieten eta hara joan ziren; aurtan, aldiz, Azpeitiko aukera ez dute alferrik galdu: "Azkeneko momentura arte, dudan izan ginen; izan ere, Xabi gitarra jolea lesionatu egin zen eta zalantzan izan ginen

bakarrarekin joan edo ez. Azkenean, jotzea erabaki genuen. Kontzertu polita izan zen: areto handia da, eta jende asko elkar-tu zen".

Disko berria prest dute

Irailean bukatu zituzten disko berriko grabaketa lanak. "Diskoa grabatuta dugu, baina, oraindik, ez dugu diskoetxerik; hortaz, hainbat detaile erabaki barik ditugu oraindik", azaldu du Numen taldeko gitarra joleak.

Zortzi abestiz osatutako lana egin dute; horietatik zazpi abestiak izango dira eta beste bat lan instrumentala. Hainbat estudiotan ibili dira grabaketa lanak egiten: Aretxabaletako Aurym Studios-en baxua eta

ZORTZI ABESTIZ OSATUTAKO LANA GRABATU DUTE; DISKOETXE BILA DABILTA ORAIN

ahotsak grabatu dituzte; Eibar-ko Legarre Studios-en bateriak eta abesti instrumentala; Arrasateko Basoak Studios-en gitarrak, teklatuak eta sanplerrak; eta nahasketak eta masterizazioa Ekaitz Garmendiak egin ditu Karrantzako Black Storm Studios-en. Goi Music diskoetxearekin argitaratu izan dituzte diskoak; *Numen* diskoaren bigarren edizioa Ladlo Productions etxearekin egin zuten.

Etxean jotzeko gogoz

Disko berria argitaratzeko gogoz daudela dio Jabok, eta gustura joko luketela Arrasaten: "Azkeneko aldiz 2003an jo genuen". Ondoren, bateria jole barik geratu ziren; eta, SAko Alfred Berengena hartu zuten zuzeneko kontzertuetarako. Orain, taldea osatu dute eta bateria jole bat hartu dute, Eihar eibartarra. Taldea osatzen dute gainerako kideak dira: Aritz, ahotsa; Jabok, gitarra; Xabi, gitarra; Lander, baxua; Eöl, teklatura eta intziriak.

Jostailu tresnekin egingo dute musika, familia guztiarendako


Bartzelonako 2 Princeses Barbudes taldeak 'Enaren kontuak' emanaldia eskainiko du gaur, Kulturaten

A.E. ARRASATE

Gaur, egubakoitza, eskainiko dute musika ikuskizuna Kulturaten, 18:00etan. 2 Princeses Barbudes taldeak *Enaren kontuak* emanaldia eskainiko du, 3 urtetik gorakoei eta gurasoei zuzenduta.

Jostailu tresnak

Kantuan eta kontuan ibiliko dira bartzelonarrak *Enaren kontuak* emanaldian. Pilarik gabeko jostailu tresnak erabiltzen dituzte pop estetika minimalista duen musika sortzeko eta poesia letra burutsuak dituzten abestiak interpretatzeko. Horrez gainera, printzesa bizardunaren ahotsa izango da gidari. Doinu itsasgarriak eskainiko dituzte. Letra jostagarriak eta ulertzen errazak direnak, moralismorik gabeak eta ukitu ironikoeekin.



2 Princeses Barbudes taldea. YOUTUBE

Uxue Alberdiren laguntza

Helena Casas musikariak eta Marc Marce soinu teknikariak osatzen dute proiektu berezia. Aurrez katalanez argitaratutako lan baten euskarazko egokitza-pena da; Uxue Alberdi idazleak euskaratu ditu hitzak.

'Gora RIP' jaialdia egingo dute bihar, gaztetxean

Gora RIP eta RIPtarra! jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. "Bi urtetik behin, RIPEko kideak eta bidean galdutako garaiko lagunak gogoratu eta bizirik gaudela lagun artean ospatzeko kontzertua antolatu ohi dugu", azaldu dute. Hala, beti bezala, lagun artean ospatuko dute eguna gaztetxean.

Kontzertuan, hainbat talde igoko dira taula gainera: Desorden -Portugaleteko punk talde gaztea-; Batec -punk-rocka egiten duten kataluniarrek *Cicatrius de guerra* disko berria aurkeztuko dute-; Piztupunk -punk-rock kantutaldea-; eta Arrasateko musikari beteranoek osatutako TxerIPkumeak taldea.

Punka oraindik bizirik dagoela erakutsiko dute biharko saioan. Kontzertuetarako sarre-ra 5 euro kostako da.

Artestura Feminista erakusketa, hilaren 15era arte zabalik

Emakume Txokoan dago ikusgai Artestura Feminista erakusketa. Erakusketaren jatorria 2017an egindako lehiaketa da; hain zuzen, lehiaketako 15 lanik onenak erakusten ditu. Durangon erakutsi zuten lehenengo; orain, Arrasaten da. Asteleheneetik ostiralera 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era dago zabalik, ostiral arratsaldeetan izan ezik.

'Luisa Fernanda' zarzuelarako sarrerak, salgai

Azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an eskainiko du Izaskun Murgia elkarte lirikoak *Luisa Fernanda* zarzuela. Emanaldiak 19:30ean izango dira, hilaren 23koa izan ezik -20:00etan-. Sarrerak *Arrasate.eus* atariko *Amaia antzokiko sarrerak* atalean daude salgai; *Kutxabank.es* atarian; eta, baita leihatilan ere. 19 eurotan daude salgai sarrerak.



Azokako postua, aurreko edizio batean. GOIENA

Salda eta txorizotarako giro ezin aproposagoaz

Bihar ospatuko da Jubilatuen Eguna, ohiko azokarekin –47 postu, eta animalienak beste hamalau–. Eguraldiak meza osteko emanaldietan eragin ditzake aldaketak. Barruak goxatzeko, salda eta ogitarteko txiki beroak izango dira erretiratuentzat

Julen Iriondo ARAMAIO

Goizetik girotuko dituzte herriko kaleak Aramaioko trikitilari eta txistulariek. 11:00etan irekiko dute azoka –14:30ak arte–, eta askotariko 60tik gora parte hartzaile izango dira bertan: herriko hamalau abeltzainen animaliak –behiak, behorrek, astoak, poneyak...–; eta baserriko elikagaienak, tresnenak eta

artisaunenak, 47 postu, 26 herrikoenak eta 21 kanpotik etorritakoak –onddoak, bitxiak, pateak, barazkiak, gazta, otarreak...–.

12:00etan, meza izango da San Martin parrokian, urtean zehar hildako erretiratuen alde, Bizente Goikoetxea abesbatzak abestuta. Papargorri eskolaniaren eta Lagun Artean dantza taldearen ondorengo emanaldiak

udaletxeko arkupean egingo dituzte, eguraldi txarra badago. Trikiti eta txistu doinuek segituko dute bazkaria –14:30ean– iritsi artekoa girotzen; eta itxaronaldia luzeegi egiten zaien erretiratuentzat, salda eta ogitarteko txiki beroak izango dira elkarteetan.

Nardeaga kalea itxi egingo dute gaur, azokako lanetarako.

Argia moztuko dute astelehenean, zenbait lan egiteko

Elementu berriak instalatu behar dituzte, eta sarean mantentze-lanak egin. Hori dela eta, astelehenean 08:00ak eta 13:00ak artean ez da argirik izango Untzillan, Suñan, Azkoagan, Zabolán, Barajuenen, Gureian eta Altzagan; beste auzoetan eta Ibarran 10:00ak arte izango da etena. Oso eguraldi txarra badago, ez da mozketarik egingo.

Aramaion izango da egun hauetan puntu berde mugikorra

Untzilla izango da lehen kokalekua; 11:00ak eta 12:00ak artean egongo da bertan, astelehenean. Egun berean, Barajuenen egongo da 12:00etan, Azkoagan 13:00etan eta Uribarrin 15:00etan. Eguaztenean, Gantzagan 11:00etan, Etxaguenen 12:00etan eta Arexolan 13:00etan. Azaroaren 2an eta 7an, Ibarran egongo da, 11:00etatik 13:00etara.



AMILLENA

Amillenaren lehen bisita, ederki

Domekan egin zuten Amillena elkarteak eta Udalak udazken eta udaberriko antolatutako bisita gidatu sortako aurrenekoa, eta harrera polita izan zuen, 22 lagunek hartu zuten-eta parte. *Ezagutu Aramaio* leloarekin, bainuetxea, eliza, udaletxea, ekonomatua, Sastiña eta Bizente Goikoetxea izan zituzten hizpide. Hurrengo bisita, azaroaren 18an.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Traba onuratsuak

Gizarteak baditu bere zutoinak, batzuetan ikusezinak diruditenak eta beste batzuetan traba besterik egiten ez dutenak. Besaulkia lekuz aldatu nahi eta ezin. Egunerokoan haien inportantzia deuseztatzen dugu, baina behar-beharrezkoak ditugu arauak. Gure arbasoek sortu eta guk ikasi, azterketarako galderak balira bezala, buruz, pilotu automatikoa jarrita izango bagenu bezala. Hain daude errotuta gure gizartean, non arauen zergatiak, hauek ez betez gero izan ditzakegun zigorrekin nahasten baititugu: "Onartutako abiadura gainditu duzu", eta erantzuna, "lasai motel, radarrak %7ko errore marjina du". "Ez dut etxe abandonatura sartu nahi", eta hark, "ez gaitu inork ikusiko".

Badirudi istripu posible batek edo pribatutasunaren errespetuak ez gaituela kezkatzen, baizik eta geure askatasun partikularrak. Deitu arau, lege, debeku edo obligazio. Deitu esku-burdin, askatasunaren aurkako krimen edota esklabotza, betiere oso sinplea baita premisa: zutoinak kendu, eraikina lurrera. Ondorioa? Hondamendia.

115 lagun batuko dira bazkaltzeko

Aurreko urteko antzerako kopurua, 115 lagun, izango du aurtengo Jubilatuen Eguneko bazkariak. Eguna iritsi aurretik, Udalaren omenaldia jasoa izango dute aramaioar emakume eta gizon zaharrenek, Edure Etxebarriak, 99 urtekoa, eta Pablo Gardokik, 96koa. Eurentzako propio egindako oroigarria izango dute aurrerantzean etxean.



Erretiratuak, bazkariari ekiteko gertu. GOIENA

Ilusioz ekin diote berriz ere areto futbol taldeari

Urtebete pasako etenaldiaren ostean, herriak badu berriz ere ordezkartza kantxetan. Aramaixo Tropikala izenarekin, hamaika gaztek dihardute, kirola eginaz ondo pasatzeko helburu bakarrarekin; inguruko artean ikusmina sortu dute, dena dela

J.I. ARAMAIO

Aramaioarrak taldekako kirol-letan inguruko herrietako klubetan ikustea ohikoa izan da beti, baina egia da, areto futboleko bai, urteetako tradizioa duela herriak. Tradizio horrek etena izan du azkenaldian, baina ez denbora luzez, eta, herriko hamaika gazterekin, denboraldi hasiera ezker lehian da Aramaixo Tropikala.

Taldea osatzen duten lagunetatik, lauzpabost dira etenaldiarenurretik ere jokatzen zutenak; gainerakoak, berriak: "Betidanik egon da taldea Aramaion, eta lagun talde bat elkartu eta pentsatu genuen berriz ere hastea, jokatze gogoa genuen eta", dio kideetako batek, Peru Abarrategik. Denak kirolzaleak, noski, baina taldeko gehienak beste kirol batzuetan jardundakoak dira aurrez: futboleko, pilotan...

17 urte ditu taldeko gazteenak, eta 22 zaharrenak, eta senior mailan dihardute lehian, Arabako Preferente mailan. Hiru jardunaldi jokatu dituzte orain arte, eta gauzak ez dira gaizki hasi: lehenengo bi partiduak irabazi egin zituzten -0-1, Almagor taldearen kantxan aurrenekoa; 3-0, United Nationen aurka bigarrena, etxean; hirugarrena galdu -3-2, San Martin Ikastegiaren kontra-. Emaizta da, dena dela, gutxienez: "Disfrutatzea da gure intentzio bakarra".

Harmailak, goraino beteta

Etxean neurketa bakarra jokatute orain arte -aste honetan ere kanpoan dute, Mjolinir taldearen kantxan, domekan; etxe-ko hurrengoa, azaroko bigarren asteburuan da, zubiaren oste-

ORAIN ARTE JOKATUTAKO HIRU PARTIDUETATIK, BAT GALDU ETA BI IRABAZI EGIN DITUZTE



Taldea osatzen duten jokalarik guztiak. ARAMAIXO TROPIKALA

koan, El Maped taldearen kontra-, eta, bertan ikusitakoaren arabera, esan daiteke ikusmina, behintzat, sortu duela taldeak herrian: "Goraino beteta egon ziren harmailak; ikuskizun handirik ez dugu emango guk, bai-

na harmailetan egon zen, bai", dio Abarrategik.

Astean bitan elkartzen dira entrenatzeko, martitzenetan eta eguenetan. Eguenetan, gainera, areto futbola gustuko duen edonorentzat dituzte atek zabalik.


"Beti gustatu izan zait atezain jokatzea"

OIHAN BIDEBURU
TALDEKO JOKALARIA

Pilotaria ere bada Bideburu, eta bi kirolak uztartu nahi ditu. **Zer moduzko esperientzia ari da izaten areto futbolekoa?**

Oso polita. Ilusio handiarekin gabiltza, eta galdu arren ere ez zaigu ilusio hori joango. Azken neurketa galdu egin genuen, baina poz-ozik joan ginen aldagelara, partidu ona jokatute gurelako.

Zu zeu, areto futboleko atezain?



GOIENA

Beti gustatu izan zait atezain jokatzea; jokalarik moduan ez naiz ondo moldatzen, eta duela bizpahiru urte entrenatzen hasi nintzen.

Pilotan ere badiharduzu... Txikitatik jokatu dut pilotan. Lesioak zirela-eta utzi egin nuen duela urte eta erdi edo, eta orain, berriz hasi naiz. Bi konpromiso batera banitu, atezainetarako badugu alternatiba, Iker Jauregi, lehen ere atezain ibilitakoa.



Zaleak bertsoari entzuten, Iturrietako finalean. ARAMAIXO BERTSO ESKOLA

Bigarren baterako asmotan, lehen txapela Maider Arregik

Oñatiarrak irabazi du Kopla Txapelketaren estreinakoa; oso litekeena da ekimenak jarraipena izatea 2019an

J.I. ARAMAIO

"Latza izan zen barikukoa, errepikatze modukoa; herrian sortu zen giroagatik, bai kalean eta bai Iturrietan izandako jende kopuruagatik eta giroagatik"; horrela, pozik, mintzo zen astean bertso eskolako kide Xabi Igoa, herriko lehen Kopla Txapelketaren balorazioa eskatuta.

Hamabi parte-hartzaileetatik, Andere Arriolabengoa, Aitor Ugarte, Aitor Esteban, Martin Berrizbeitia, Txaber Altube, Peru Abarrategi, Jokin Labaien eta Maider Arregi sailkatu ziren finalerako, eta oñatiarrak ira-

bazi zuten Labaienen aurkako buruz burukoa.

Arabako Txapelketa

Arabako Bertsolari Txapelketarako sailkatzea lortu zuen asteburuan Andere Arriolabengoa, bere saioa irabazita. Aitor Ugarte eta Paula Amilburu bigarren izan ziren bakoitza bere kanporaketan, eta ondo kokatu dira txartela lortzeko -saio bakoitzeko irabazleak, bost, eta beste zortzi onenak sailkatuko dira-. Asteburu honetako hiru saioetan, Xabi Igoa eta Peru eta Martin Abarrategik kantatuko dute.

San Martin pilota txapelketako finalerdiak, asteburu honetan

Aramaio hiru bikotek izango dute jokoan finalerako txartela, eta beste bi sailkatuta daude dagoeneko

J.I. ARAMAIO

Irailaren 7an hasitako txapelketa ari da amaierara iristen. Azaroaren 10ean jokatuko dira finalak, eta asteburu honetan geratuko da erabakita haietan ze bikote ariko diren. Gaur, barikua, lau neurketa izango dira, 18:00etan hasita. Azkenekoan, kadete B mailakoan, Mikel Sanz eta Markel Arriolabengoa aramaioarrek Adurtzako Ugalde eta Leonardo izango dituzte aurkari. Aurreko neurketan, Danel Herrarte eta Xabi Errasti ariko dira Zaramagako Aran-

bururen eta Formosoren kontra, infantil A mailan, baina horiek sailkatuta daude finalerako -Julen Olaizola eta Asier del Campo kadete A mailan bezala-.

Domekakoa 10:00etan hasiko da; bederatzi neurketa izango dira, eta hirugarrenean, aletin A mailan, Julen Fernandez eta Aitor Luzuriaga ariko dira La-kuako Ruiz eta Ormazabalekin; bosgarrenean, infantil B mailan, Aner de la Torre eta Ander Gonzalezek Legutioko Cariñanos eta Fernandez de Olano izango dituzte aurkari.

EUSKARALDIA

Euskaraldirako gertu dago hamaikakoa

Trebakuntza saioa jaso dute, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean izango dituzten eginbeharrak gogorarazteko eta gako batzuk barneratzeko. Giro onean jardun dute lanean eta herritarrekin batera ariketa kolektiboari heltzeko gertu daude

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Euskaraldia badator, ziztu bizian etorri ere. Eta harrera beroa egiteko asmoarekin eta herritar guztiak inplikatzeko horretan, hamaikakoa lanean jardun du egunotan. Larraitz Berezibar Armentia eta Oihana Garcia Insausti gidari direla, trebakuntza saioa jaso dute Euskaraldia-oren ordezkaririk izango diren hamaikatik seik.

Ilusioa, kezka eta gomendioak

Euskaraldian parte hartzeko motibazioen eta kezken gainean egin zuten gogoeta. "Motibazioen artean aipatu zituzten, esaterako, altxorra dela euskara eta zaindu beharrekoa, norbere alea jartzeko aukera dagoela orain, hiltun moduan autoestimua indartzeko ariketa dela eta egunerokoan euskara gehiago erabiltzeko aukera datorrela", dio Garcia Insaustik, eta gaineratu du: "Kezkei dagokienez, hamaikakoa lanean egunetik aurrera zer gertatuko den izan zen nagusienetakoa".

Ahobizi eta belarriprest rolen gainean ere jardun zuten, eta gogora ekarri zituzten horien eginbeharrak eta konpromisoak: "Zailtasunei aurre egiteko estrategiak ikasi genituen: Eus-



Hamaikakoa osatzen duten sei lagun lanean. OIHANA GARCIA INSAUSTI

karaldia iritsi aurretik gertuko ei azalpenak ematea, gaia mahai gainean jartzea modu naturalean eta lasaitasunez, eta aurreakordioa lantzea hamaika egunak iritsi aurretik, besteak beste".

Estereotipoak eta aurreiritziak ere izan zituzten berbetarako gai; pertsonaren itxuragatik gaztelaniara jotzea, esaterako: "Gomendio batzuk eman genituen: norbera aurreratzea eta lehen hitza euskaraz egitea, adibidez, eta jarrera baikorrarekin gerturatzeko, irribarrea lagun".

Saio aberasgarria

Saioa oso aberasgarria izan zela dio Garcia Insaustik, batetik, hainbat adinetako lagunak elkartu zirelako, eta, bestetik, *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak elkarrekin lanean jarduteagatik. Sortutako giro ona nabarmendu du, gainera: "Konfiantzazko giroan eta lasaitasunez jardun genuen lanean", eta gaineratu du: "Balorazio ona egin zuten eurek, eta eskertu egin zuten elkartzeko aukera eman izana, indarra hartzeko".

"Jarrera kontua da, kontzientzia hartzea"

GOIO ARRIETA

'BELARRIPREST'-A


Euskaraz ondo egin arren, *belarriprest* izatea erabaki du.

Zergatik belarriprest?

Hamaikakoa *ahobizi* asko zegoen, eta zergatik ez? Nik neuk ere egiten dut gaztelaraz euskaraz dakien hainbatekin.

Belarriprest gutxi animatu da Euskaraldira; zer esan?

Aretxabalean %83k ulertzen ei dute euskaraz, ikerketa baten arabera; harrituta nago datu horrekin. Ulertzeko gai izanez



GOIO ARRIETA

gero, lotsa ken dezatela eta aurrera egin. Nik uste dut jarrera kontua dela, norberak kontzientzia hartzea zelako garrantzia duen euskarak. Beharbada, adinarekin goaz kontzientzia hartzen...

Zer espero duzu hamaika egun horietatik?

Nik uste dut erantzun ona izango duela, baina zalantza dut jarraipena izango duen gero; pausoz pauso joan behar.

"Ez dakigu zelako altxorra dugun"

XUBANE GARAI

'AHOBIZIA'

Hamaikakoa osatzen duen lagunak gazteena da.

Gertu Euskaraldirako?

Bai. Askok entzuten gabiltza, baina benetan ez dakigu zein den horren helburua, eta informatuta egotea garrantzitsua da. Gure lana izango da horren berri ematea.

Ahobizi zaren aldetik, zein eginbehar duzu?

Euskaraz egiteko konpromisoa, noski, eta ohiturak aldatzeko



GOIENA

ardura gaztelaraz jarduten dudana horietatik; askotan, pentsatu barik egiten dugulako guztiok.

Gazteen artean asko entzuten da gaztelara...

Esango nieke ez dakigula zelako altxorra dugun esku artean, eta hausnartzeko.

Gogotsu hasteko?

Bai; ikusmin handia daukat zer gertatuko ote den hamaika egun horietan.

Lainopean Ugastegin

Loramendi elkarterko Toponimia Taldeak deituta, hermeretzi lagun joan ziren Ugastegi inguruko parajeak bisitatzen. Ibilbide historikoen bueltan antolatutako hamargarren irteera izan da. Gustura jardun zuten, kontu kontari bazterrak ezagutzen, sei ordu pasatxoan: "Lagun arteko giro oso onean, lainopean baina euri barik, ederto ibili ginen".



BENAT ABASOLO

Urriko azken odol ateratzea astelehenean da

Arabako odol emaleen elkarrekin bitartez datorren autobusak udazkeneko azken bisita egingo du datorren astelehenean, hilaren 29an. Ohi legez, 16:45etik 20:00etara izango da, Durana kalean, plaza barrenean. Oraindik odolirik eman ez duten herritarrek bertaratzera gonbidatu dituzte: "Odola ezinbestekoa da bizitzak salbatzeko".

Azaroko hainbat kinto afaritarako izen emateak zabalik

1974an jaiotako kintoak azaroaren 24an elkartzeko dira afaltzeko; izena emateko epea azaroaren 17an bukatuko da, eta Urbaltza eta Izotz tabernetara jo behar da horretarako.

1978an jaiotakoek, ostera, bazkaria egingo dute azaroaren 24an, eta izena emateko epea itxiko dute urriaren 30ean; Arlutza jo behar da.

Gaba Baltza ospakizuna, geuretik eta geuretako

Euskaratik eta herritik jaiari heltzeko asmoarekin, Halloween ordezkatzera dator; bigarrenegingo da aurten, eta, eskeaz gain, txistulariek girotutako kalejira eta ezustekoz betetako ekitaldi nagusia izango dira urriaren 31n

Goiena komunitatea

Gau Baltza batzordea

ARETXABALETAKO

Gau Baltza ospatuko da aurten ere Aretxabaletan. Loramendi elkartearen eta ludotekaren eskutik, lehengo aldiz ospatu genuen iaz. Aurten, herritar gehiagok osatutako batzordea sortu da, Gau Baltza antolatzeko lanetan ibili dena.

Halloween ordezkatzeko

Gau Baltzaren ideia sortu zen azkenaldian Halloween eta antzeko ospakizunek hartutako indarrak eragiten zuen kezkatik. Umeengan arrakasta handia duen ospakizuna da Halloween delakoa, baina euskarak ospakizun honetan lekurik ez zuela agerikoa zen. Gainera, ospakizunak erdarazko komunikabideek zabalduak eredu beste-rik ez zuela jarraitzen argi zegoen –kontsumoan oinarritutako festa, aurrez erositako jantziekin, herriko ohiturekin loturirik gabea...-. Beraz, Halloween delako festa horri euskaratik eta herritik heltzeko saiakera bat da Gau Baltza.

Jende askok horrela dela ulertu du, baina azpimarratu nahi dugu Gau Baltza ez dela garai batean ospatzen zen jai baten berreskurapena, asmatutako jai baizik.

Urriko azken gaua

Halaber, egia da herriko eta bailarako nagusiek gogoratzen dutela nola urriko azken gauaren bueltan gauez ateratzen ziren, mozorrotu eta herritarrak ikaratzera, edo kalabazak hustu eta bide ertzetan jartzera. Hala ere, garai hartako ospakizunaren gaineko informazio askorik ez daukagu. Beraz, agian, garai hartako elementu batzuk berreskuratuko genituen –trapu zaharrak jantztea, kandelak eta kalabazak, gauez eta ilunetan ibiltzea...-, baina gainon-



Neska-mutikoak mozorrotuta, iaz, herriko kaleetan. EKAITZ FILARMENDI

tzekoa festa hau euskarara eta herrira hurbiltzeko asmatu dugu –koplak, kalejira, dantza, jaiaren inguruko ipuinak...-.

Herriko haur, gazte eta helduak animatzen ditugu Gau Baltzean arropa zaharrak jantzi,

eta Aretxabaletan sortzen ari den festa berri honetan parte hartzera. Gozoki eskeaz gain, badira-eta beste kontu batzuk urriaren 31n: kalejira eta ezustekoz betetako ekitaldi nagusia, besteak beste.

Arauk gozoki eskerako

Gau Baltzean (18:00-19:00), gozokiak eskatu ditzakete umeek, kanpoan *Gau Beltza* kartela duten denda eta tabernetan. Eskatzeko, baina, ez dago barrura sartu beharrik, nahikoa da kuadrilla bat kanpoan elkartu eta koplak abestea –eta ez *truco o trato*–; ez da ludotekakoek edo gaztelekukoek bideratua izango. Orduetegi barruan egin eske-erronda, ondoren kalejira eta ekitaldiarekin gozatzeko. Lanean dabilzan dendari eta tabernariei, errespetuz eskatu, eta eskertu!

Gau Baltzeko egitaraua

Urriak 29

- **17:00-20:00** Mozorro tailerra mojen komentuan –izara zuriak eraman–; umeak gurasoekin.

Urriak 30

- **17:15** Film laburrak umeentzat, udaletxe zaharrean.
- **19:00** *Errementari* filma, udaletxe zaharrean.

Urriak 31: Gau Baltza

- **18:00-19:00** Gozoki eskea, Durana kalean.
- **19:15** Kalejira, Mitartetik Herriko Plazara.
- **19:30** Ekitaldi nagusia.

Bi emanaldi asteburuan, Antzerki Hilabetea bukatzeko

Javier Liñerak komedia beltza eskainiko du gaur eta Diego Perezek umoreari egingo dio lekua domekan

M.A. ARETXABALETAKO

Antzerkiari eskainitako hilabetea bukaerara iritsi da; arrakastarekin iritsi ere, herritarrek harrera beroa egin diote eta, Kultura Saileko ordezkarien esanetan. Dena den, azken aste bukaera honetan oraindik badago zerekin gozatu, helduendako bi saio izango dira eta.

Gaur, urriak 26, Ekoma teatroak eta Javier Liñerak eskainiko dute *Tendríamos que haber empezado de otra manera* lana, Arkupen (22:00). Komedia beltz horretan, bizitzari aurre egiteko

erabakien eta horien ondorioen gainean hausnartuko dute ohol-tza gainean.

Umorea domekan

Domekan, ostera, Diego Perezek, *Vaya Semanita* saioan jardundako aktoreak, *San José, hecho un Cristo* eskainiko du (19:00). Biblian sekula jaso ez diren San Joseren gaineko kontuak kontatuko ditu: lehenengo hitzordua Ama Birjinarekin, Espiritu Santuarekin tirabirak...

Bi lanak gazteleraz dira, eta sarrera 4 euro da.



IRATXE BENGOA

Copreciko aparkalekua, aurrera

Copreci kooperatibaren handitze prozesua dela-eta hainbat aparkaleku egiteko konpromisoa hartu zuen lantegiak, Udalak eskatuta. Industrialdearen atzeko partean, Basabe baserri azpiko lursailean, dihardute hori egokitzen. Lanok aurrera doaz; hortaz, laster izango da gertu 98 auto ingururendako lekua han.

Amelie ipuinen jostuna izango da bihar liburutegian

Ipuinak kontatzen eskarmentu handia duen Amelie ipuinen jostuna izango da bihar, zapatua, haur liburutegian (11:30), eta, oraingoan, *Txanpon baten truke* ipuin kontaketa eskainiko die neska-mutikoei. Sarrera debalde da. Munduari bira emango diote, bidaietan zehar ezagututako hainbat pertsonaia lagun hartuta.

Araba Txistu Banda laukotearen kontzertua domekan

Iaz sortu zuten txistu laukote klasikoa Gasteiz aldean, eta bertako zuzendaria eta aurreneko txistua da Jose Luis Cantabrana, Leizarra musika eskolako irakaslea. Haren alboan batu dira goi mailako hiru musikari, eta emanaldi dotoreak eskaintzen dabilta. Domekan, urriak 28, Arkupen izango dira, 12:30ean. Sarrera debalde da.



Ohorezko gazte mailako gizonezkoen futbol taldea.



Eskola kiroleko talde guztietako haurrak, entrenatzaileekin batera. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

UDAko kirolarien aurkezpena

500 kirolaritik gora izango dira aurten Aretxabaletako Kirol Elkarteko hainbat sailetan banatuta. Joan den egubakoitzean, Ibarra futbol-zelaian elkartu ziren, karatekoak, areto futbolekoak eta Leintz Arizmendiko neskak izan ezik

Imanol Beloki ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean, denboraldi berriko talde-argazkiak atera zituzten UDA kirol elkar-tearen barruan arituko diren kideek.

Guztira, 500 kirolaritik gora ibiliko dira aurten elkartean, eta Ibarra futbol-zelaian elkartu ziren, karatekoak, areto futbolekoak eta Leintz Arizmendiko neskak izan ezik, eta taldeka atera zituzten argazkiak.

Ohorezko Erregionala, gogotsu

Denboraldiko lehenengo partidua irabazi zuten pasa den asteburuan Santanoren mutilek. Zazpigarren jardunaldia izan zuten Ohorezko Erregional mailako mutilek Real Unionen aurka, eta mendean hartu zuten, 2-0, Jon Anderren eta Gartziren golekina. Zapatu honetan, berriz, bigarren garai-penaren bila joango dira Oiarzunera. Partidua 16:00etan jokatuko dute.

Areto futbolean, ezin hobeto

Aretxabaleta areto futbol taldekoek, berriz, denboraldia ezin hobeto hasi dute. Izan ere, lehenengo hiru partidua irabazi dituzte, eta sailkapenean lehenak dira. Talde berria, gazteagoa,

eta aldaketa asko ditu denboraldi honetan, baina, dirudienez, aldaketa horiek ez dira txarre-rako izan, emaitza ederrak ari baitira lortzen.

Leintz Arizmendi: aurkezpena

Domeka honetan, berriz, Leintz Arizmendi futbol taldeen aurkezpena izango da Ibarra futbol-zelaian. Alebinak, infantilak, kadeteak eta Ohorezko Erregio-

nal mailakoak izango dira bertan, eta, aurkezpena egiteaz gain, hainbat partidu jokatuko dituzte: alebin mailakoek, 09:30ean, Bergararen aurka jokatuko dute; infantil mailakoek, ordu berean, Amaiak Bat taldearen aurka; 11:00etan, kadete mailakoek, Bergararen aurka; eta, amaitzeko, 12:30ean, Ohorezko Erregional mailakoek Lagun Onak taldearen aurka.



Gimnasia erritmiko sailekoak, Ibarra.

Gimnasia erritmiko saila, aurkeztuta

Gimnasia erritmiko sailak 2008/2009 ikasturtean eman zituzten lehen pausoak UDA barruan, eta, denboraldi honi begira, 40 gimnastatik gora izango dira. Maila askotariko gimnastak Esther Barcenillaren gidaritzapean arituko dira.



Ohorezko Erregional mailako gizonezkoen futbol taldea.



Infantil mailako Leintz Arizmendi futbol taldeko emakumezkoak.



Pilota saileko haurrak, Ibarra.

60 pilotaritik gora izango dira UDAn

60 pilotaritik gora izango ditu, aurtengo denboraldiari begira, Aretxabaleta Kirol Elkarteak. Urteen poderioz, haur kopurua gorantz doa poliki-poliki, eta, zaletasuna handituz, pilota saila bera ere indartzen ari da.

Kiroldegiko tasa %2,27 igoko da datorren urtean

Ura %1,21 igoko da. Bi horiek dira 2019an igoera izango duten udal zerga bakarrak. Gainerakoak mantendu egingo dira, udalbatzak hala erabakita. Eguaztenean egin zuten osoko bilkura eta han hartu zuten erabakia, aho batez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eguaztenean, 2019rako Ordenantza Fiskalak aldatzeko hasierako onarpena izan zuten hizpide udalbatzako kideek, urriko osoko bilkuran. Aipatzekoak bi igoera dira: batetik, Manuel Muñoz kiroldegia %2,27ko igoera izango du, eta, bestetik, ura %1,21 igoko da; Ur Partzuergoak ezarritako igoera izango du. Gainontzeko tasek ez dute aldaketa handirik izango.

Datorren urteko zerga ordenantzak aho batez onartu zituzten Eskoriatzako alderdi politiko guztiek eguaztenean egindako urriko osoko bilkuran. Josu Ezkurdi Mugikortasun eta Hirigintza batzordeburuak adierazi zuenez, aldaketa handirik ez da egongo, bi zergatan izan ezik: "Manuel Muñoz kiroldegiko abonamenduan, iaz moduan, kontsumo prezioen indizea beste igoera onartu dugu: %2,27, hain zuzen. Horrez gain, ura ere igoko da; Ur Partzuergoak eza-



Manuel Muñoz kiroldegiko eraikina. ESKORIATZA KIROL ELKARTEA

rritako igoera, alegia. Beste ordenantza guztien aldaketak, bestalde, teknikoak eta txikiak dira, eta ez dira oso nabarmenak".

Iaz, 360.000 euro jaso zituen Udalak uren tasetatik, eta aurreten, kopuru horrek %1,21eko

igoera izango du. Kiroldegitik, berriz, 160.000 euro jaso zituen, eta 2019ra begira %2,27ko igoera izango du kopuru horrek. Manuel Muñoz kiroldegiko igoerarekin, honako hauek dira urteko kuotak: familia-abona-

mendua 155,40 euro; familia ugaria, 124,20 euro; eta abonamendu normala, 114 euro.

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen truke herritarrek ordaindu beharreko tasak dira zerga hauek, urtez urte lantzen eta onartzen direnak. Eguaztenean onartutakoak 2019an aplikatuko dira eta urtarrilaren leian sartuko dira indarrean.

Gai zerrendatik aipatzeko beste puntu bat mendekotasunak prebenitzeko Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen plana onartzea izan zen. Plana bost urterakoa izango dela adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "Plan honek Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbideko ikasleak hartzen ditu. Onartu beharra daukagu, gero, Jaurlaritzak onartu eta diru-laguntzak bideratu ahal izateko".

Kanposantua eta zerga bilketa

Galde-eskeen tartean, berriz, Aitor Zubizarreta EH Bildu alderdiko bozeramaileak hainbat galdera egin zituen. Alde batetik, azaroaren leian Domu Santu eguna izango da, eta kanposantura igotzeko Leteko bidean dauden obrak direla-eta, neurriren bat hartuko den galdetu zuten. Hain zuzen ere, eta horri erantzunez, Udal Gobernuak kideek gomendatu zuten autoa ahalik eta gutxien erabiltzea; izan ere, udaltzainen presentzia handitu egingo dute eremu ho-

retan eta Olazarren gora hesia jarriko dute.

Horrez gainera, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen duten zergen gainean Eskoriatzari zenbatekoa dagokion galdetu zuten Zubizarretak, eta horren berri Ezkurdiak eman zuen: "Diputaziotik datorren diruaren aurreikuspena positiboa da, 80.000 euro inguru gehiago jasoko ditugu, aurreikuspenen arabera. Kantitate hori konfirmatzeko dago, eta berri ona da guretzat. Diru hori inbertsioetarako erabiliko dugu, eta ez gastu arruntetarako".

Datorren urterako aurrekontuak

Osoko bilkuran landutako gai guztiez gain, urtea hasi bezain pronto aurrekontuak onartuta izatea nahi dutela ere adierazi zuten alderdi jeltzalekoek: "Teknikariekin diru sarrera eta gastuen aurreikuspenak ikusten ari gara. Hurrengo batzorderako proposamena luzatzea da gure asmoa, beste alderdien proposamenak entzun, eta ahal den neurrian adostu, eta osoko bilkuran onartzea izango da azken pausoa", adierazi zuen Ezkurdiak.

URAREN ZERGA %1,21 IGOKO DA DATORREN URTEAN; UR PARTZUERGOAK EZARRITAKO

Debagoieneko Gurutze Gorriaren lana ezagutarazteko ekintzak

Jostailu Hezitzailea eta Eskola Arrakasta proiektuen gainean mintzatuko dira osasun arloko profesionalak

I.B ESKORIATZA

Zapatuan, 10:00etatik 14:00etara bitartean, Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntarioak eta bertan lan egiten duten teknikariak izango dira Fernando Eskoriatza plazan, bertan zein lan egiten duten azaltzen eta dituzten proiektuen berri ematen, besteak beste.

Umeendako jolasak izango dira, Gurutze Gorrikoen proiektuen aurkezpena egingo da eta bihotz biriketako berpizte tailerra (BBB) egingo dute osasun arloko profesionalak. Amaitzeko,

boluntario eta bazkide egiteko aukera izango da.

Ate irekiak, iaztik hasita

Alba Casares Debagoieneko Gurutze Gorriko teknikariak adierazi duenez, iaztik ari dira halako ate irekiak egiten Debagoieneko: "Gurutze Gorriko bulegoa Elorregi auzoan dago eta hona etortzea nahiko zaila da, bai gure boluntarioentzat, bai boluntarioak izan nahi duten pertsonentzat. Beraz, aurreko urtean erabaki genuen ate irekiak egitea Debagoieneko herrietan,

eta gure xedea honako hau da: ditugun giza baliabideak eta baliabide materialak ezagutaraztea eta bazkideak eta boluntarioak guregana hurbiltzea gure proiektuendako".

Haurrentzako proiektuak

Debagoieneko Gurutze Gorriak hainbat proiektu eramaten ditu aurrera, eta, gaur egun, bultzada eman nahi diete Jostailu Hezitzailea eta Eskola Arrakasta proiektuei. Jostailu Hezitzailea: gizartearengan haurrek duten jolasteko eskubidearen garrantzia errotzea eta arazo sozioekonomikoak dituzten familietako haurren eskubide hau jostailu berrien banaketarekin bermatzen da.

Eskola Arrakasta, proiektua, berriz, martxan jarri nahi dute Debagoieneko Gurutze Gorrian.

Bazterte arriskuan dauden ume eta gazteengan, eskola errefortzuaren bitartez, ikasketa-ohiturak, balioak, heziketa eta aisialdia sustatzea da helburua. Baina proiektu hau aurrera eramateko giza baliabide asko behar dira; beraz, boluntarioen beharra dute.

Eskoriatzako jardunaldia proiektu hauen inguruan sentsibilizazioa egiteko erabiliko dute, eta, horretarako, joko eta jolas ezberdinak erabiliko dituzte; txapak, aurpegi margotzea, eta abar.

Hainbat garraio mota plazan

Eskoriatzako plazara Debagoieneko Gurutze Gorrian dituzten mota askotariko ibilgailuak eramango dituzte: garraio egoak, anbulantzia, erabilera askotariko ibilgailua...

Diagnosi txostena egin du Eskoriatza Lagunkoia taldeak

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Politikaren Euskadi Lagunkoia egitasmoarekin bat egin zuten herriko adineko talde batek, eta, orduetik hona, Eskoriatza Lagunkoia izeneko proiektua egiten ibili dira. Udalak babes-tuta, erretiratuen etxeko hamazortzi kide hamabost egunean behin bildu dira programako hainbat puntu aztertzeko.

Egitasmoaren helburua herri-tarren parte-hartzea sustatzea eta herria hobetzea da, eta zortzi arlo aztertu dituzte. Dagoeneko amaitu dute diagnosia, orain ekintza plana garatzeko oinarri izango dutena. Diagnosia Euskadilagunkoia.net webgunean dago ikusgai.



Tortolis ludotekako haurrek egindako kalabaza hustea. TORTOLIS LUDOTEKA

Arimen Gaua ekintza berriekin dator

Arimen Ibilbidea Fernando Eskoriatza plazan hasi eta Bidebarrietan zehar; herriko txistulari eta dantzarien laguntzarekin akelarrea plazan; eta gaztelekuan 12 urtetik gorakoentzako beldurrezko film labur emanaldia; horiek izango dira urriaren 31n

Imanol Beloki ESKORIATZA

Xanduli, Manduli, kikirriki! eman gozokiak guri! esamoldea erabilia arituko dira haurrak urriko azken egunean, urriaren 31n, urteko gaurik beldurgarrienean gozokiak eskatzen.

Azken urteetan bezalaxe, Eskoriatzako Udalak, Gaztelekuak, Tortolis ludotekak eta herritarrek prestatu dute Arimen Gaua jai urriaren 31rako. Aurten, gainera, ekintza berriak antolatu dituzte, mitologia, misterioa eta beldurra uztartzeko asmoz.

Ohitura zaharra

Ahotsak ataritik jasotakoaren arabera, Arimen Gaua 1950eko hamarkadara arte, gutxienez, Euskal Herriko herri eta eskualde gehienetan bizirik iraun zuen ohitura izan zen. Gaur egungo Halloween komertzialagotik desberdin samar, baina, funtsean, jai berbera zen: gazte kuadrillak elkartu, kalabazak edo arbiak hustu, kandelak sartu barruan, eta kalez kale ibiltzen ziren bes-

Urriaren 31ko egitaraua

Urriaren 31n gaztelekuko eta ludotekako haurrei, mozorrotuta joatea eskatu diete antolatzaileek.

Herriko plazan

- **18:30** Arimen Ibilbidea. Herritarrak kontu kontari arituko dira. Plazatik hasiko dute ibilbidea eta Bidebarrieta ingurura joango dira; 7 urtetik gorakoentzat.
- **20:00** Akelarrea. Herriko haur eta helduek dantzatzuko dute.
- **Ondoren** Sorgin-edabea.

Gaztelekuan

- **20:30** Beldurrezko film laburren emanaldia. 12 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da.

te batzuk beldurtuz... eta guztia ere heriotzarekin estuki lotutako giroan. Eskoriatzan, azken urteetan bezalaxe, aurten ere, ohiturarekin bat egingo dute. 18:30ean, Arimen Ibilbidea egingo dute. Plazan hasita, Tortoliseko ludotekariak eta txirikilakoek gidatuta, Bidebarrietan zehar ibilbidea egingo dute haurrek. Bertan, herritar batzuk ipuin eta pasadizoak kontatzen arituko dira, 7 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa izango da. 20:00etan, Akelarrea egingo dute plazan. Herriko dantzarien eta txistularien txanda izango da. Haurrek eta helduek elkarrekin egingo dute dantza pertsonaia beldurgarri batzuek lagunduta. Dantza saioa amaitzean, sorgin-edabea banatuko da plazan. Horretarako, edalontzia eroateko dei egin dute antolatzaileek. Amaitzeko, beldurrezko film labur emanaldia izango da gaztelekuan. Eguraldi txarra egiten badu, plazako ikuskizuna frontoian izango da.

EUSKARALDIA



Aholku-sorta lehen formakuntzan batu zirenak. EUSKARALDIA ESKORIATZA

Aholku-sorta formakuntza saioak emandakoarekin, pozik

Euskaraldia egitasmoaren harira, zailtasunak identifikatu eta zalantzak argitzeko bi saio egin dituzte

I.B ESKORIATZA

Euskaraldiaren berri emateko bi formakuntza saio izan dira aste honetan, kultura etxean. Bata astelehenean izan zen eta bigarrena, berriz, eguaztenean. Bertan batutakoek saio ederra izan zuten, Euskaraldian izango diren zailtasunak identifikatu eta horiek aztertzeko.

11 egunetarako prestatuago

Saioaren helburua izan zen jendea segurtasunez iristea 11 egunetara, egin behar duena ondo ezagututa, lasai eta seguru. Horrez gain, teoria pixka bat izan

arren, orokorrean, dinamikoak izan dira saioak, eta, praktika horretan, Euskaraldian gertatuko diren egoera desberdinak jarri zituzten.

Formakuntzetan izan zirenak pozik geratu ziren. Honako hau adierazi zuten: "Ariketak balio izan dit egoera zailak egongo direla jakiteko, baina nola aurre egingo diegun ulertzeko baliagarria izan da. Ni motibatu egin nau. Saioak lasaitu egin nau. 11 egunak zer izango diren ikusten lagundu dit. Saioa atsegina izan da, ez aspergarria, eta eskertu egiten da".

EUSKARALDIA

'Ttak' umorezko bakarrizketa saioa Beatriz Egizabalen eskutik

Domekan 19:00etan izango da saioa, Zaldibar antzokian, eta Euskaraldia ardatz izango du emanaldiak

I.B ESKORIATZA

Euskaraldia Eskoriatza batzordeak antolatuta, *Ttak!* umorezko bakarrizketa-saioa eskainiko du Beatriz Egizabal *clown* eta antzerkilariak. Euskaraldia zer den azaldu eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean gertatuko denaren berri emango du modu umoretsuan. Domekan izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta sarrera lau eurokoa izango da.

Egizabalek eskainiko duen emanaldi honek Euskaraldia

zer den gizarteratzea izango du helburu. Egitasmoaren nondik norakoak azalduz eta honen baitan dauden dinamika eta jokabide proposamenak azalduz. Azken finean, hizkuntza-ohiturei buruzko hausnarketa eragin nahi du antzezleak. Horretarako, ikusleak egoeran jarri nahi ditu *ahobizi* eta *belarriprest* rola, euskaldun berri eta euskaldun zaharren egoerak adibide moduan erabilia. Izan ere, norbere hizkuntza jokabideen hausnarketa probokatuko du.

'Paintball'-a eta Garaion Sorgingunea bisitatzera

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako nerabeek asteburu pasa ederra egingo dute Barrundian (Araba). Izan ere, abentura irteera izango dute; 'paintball' saioa izango dute, aurrena, eta gero, Garaion Sorgingunean pasatuko dute gaua

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuetako nerabeek irteera berezia izango dute asteburu honetan. Izan ere, Arabako Barrundiara joango dira ikasturte hasierako lehen irteera egitera.

Urtero egiten duten irteera da, eta horren helburua da haurrek eta begiraleek elkar hobeto ezagutzeko eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako nerabeen arteko harremana sendotzea. Hori horrela, Eskoriatzatik hamabi neska-mutiko eta Aretxabaletatik 19 joango dira, dagozkien begiraleekin. Honela adierazi du Eskoriatzako gazteleku Iratxe Arrese begiraleak: "Irteera honen helburua da elkar ezagutzeko, denok bat egitea eta asteburu ederra pasatzea. Eguraldi iragarpena, berriz, ez da oso ona astebururako, baina prestatu ditugun ekintza guztiak egingo ditugu, euria egin arren. *Paintball*-ean, gainera, oso gus-



Haurrak, Garaion Sorgingunean. GARAION

tura aritzen dira gazteak, eta irteera ekintza horrekin hasiko dugu".

Zapatuan 15:00etan irtengo dira Araba aldera Eskoriatzako eta Aretxabaletako DBHko 1. eta 2. mailako haurrak, eta,

lehenengo, Galarretako Paintball Ibargutxi gunera joango dira. Ostean, Garaion Sorgingunera joango dira, eta bertan egingo dute egonaldia, hango bazter guztiak arakatzeko eta ondo pasatzeko asmoz.

Garaion ezagutzen

Garaion Sorgingunea Ozaetan dagoen sortzaileen eta artisten egonaldiatarako espazio bat da, eta bertan, zumezko egiturez sortutako jolasguneaz gozatu ahal izango dute nerabeek. Bertan, txabola, tipia, iglua, tunela, marigorringoa, basket-bola, eta abar daude. Horrez gain, akroyoga eta bestelako kirolak egiteko erabiltzen duten lastotegia ezagutzeko aukera izango dute, eta zirku tailerra egongo da bertan. "Agian, zirku tailerra ikusteko aukera izango dugu, baina, hala ez bada ere, karaokegaubeila ere prestatu dugu; beraz, dibertsioa eta barre algarak ez dira faltako".



Leintz Gatzako udaletxe aurrean autoak aparkatuta. IMANOL BELOKI

Ibilgailuen zerga izoztu egin dute eta ezkontzena, %150 igo

Horiek dira aldaketa nabarmenenak. Gainerako udal zerga gehienak %2,2 igoko dira, KPla igo den beste

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Egueneko ohiko osoko bilkuran, aho batez onartu zuten 2019ko zerga ordenantzen hasierako onespina. Nabarmenezkoak bi zerga izan dira: batetik, ibilgailuen tasak ez dira igoko, bere horretan geratuko dira, eta ezkontzen tasa, berriz, %150 igoko da. 50 euroko kostua izatetik 150 euroko kostua izatera pasatuko da, hain zuten.

KPIaren urteko batez besteko igoera %2,2koa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta udal zerbitzuei igoera hori aplikatzea onartu zuten eguenean, Gatzagan

izandako osoko bilkuran aipatukoetan izan ezik. "Ezkontzak oso merke genituen eta hor igoera handia izan da. Ibilgailuena, berriz, ez da ezer igo. Horiek dira nabarmenenak", adierazi zuen Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako alkateak.

Senidetze ekitaldiarekin, pozik Bestalde, Frantziako Saliese herriarekin senidetze ekitaldia izan zuten hizpide. Domekan sinatu zuten hitzarmena, eta osoko bilkuratik formalki pasa zen. Egun polita izan zutela adierazi zuen alkateak, besteak beste.



IMANOL SORIANO

Ezkurtxo Mazmela izan da

Pasa den zapatuan, Ezkurtxo izan zen udazkenari ongietorria ematen, Mazmela. Jose Arana guneak antolatutako jaietan, hainbat haur eta guraso batu ziren eta askotariko jolasak egin zituzten. Goitibeheretan ibili ziren, ipuin kontaketa izan zuten, tiragomekin aritu ziren, boloetan, zaku lasterketan, eta txokolate-jana ere izan zuten, besteak beste.

Aranatarrak, Gaztelumendi eta Bartra, oholtzara

Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolak antolatuta, Haizea eta Oihana Arana, Oihana Bartra eta Beñat Gaztelumendi bertso-lariek saioa eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan, Zaldibar antzokian.

Hankamotx bertso eskolak ikasturte berriari hasiera emateko lehen ekimena izango da gaurkoa. Hori horrela, Hankamotxeko irakasle diren aranatarrek Gaztelumendi eta Bartrarekin batera izango dira oholtzara gainean, eta gai-jartzaile lanetan Iker Iriarte arituko da. Diskurtsoa errimatzen, neurtzen eta abesten arituko diren puntako lau bertsolarien saioa doakoa izango da.



IMANOL SORIANO

Gatza oinarri, festa bikaina

Jai giroa izan zen nagusi pasa den domekan Leintz Gatzagan, Gatzaren Egunean. Hirugarren urtez egin zen jaietan, askotariko ekintzak izan zituzten; gatzaren eta produktu ekologikoen azoka, dantzariak, zurezko plaza jokoak, mendi ibilaldi gidatua... Horrez gain, Frantziako Saliese herriarekin senidetze ekitaldia egin zuten.



Gureak-eko arduradun Andoni Rekondo eta Juan Ignazio Galarraga, Elena Lete alkatearekin. BERGARAKO UDALA

Gureak-eko planta berria martxan, 121 langilerekin

Candy zena bere egin ostean, Gureak martxan dago iraila ezker Bergarako lantoki "handi, moderno eta argitsuan"; Udalaren ustez, "oso garrantzitsua" da planta martxan jarri izana eta espero du etorkizunean Miguel Altunarekin sinergiak aprobetxatzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Gureak Taldeak Candy zenaren eraikin guztia bere egin, eta dagoeneko planta berria martxan jarri dute. Bertan, automozio alorrerako lanean dabilta, kableen alorrean. Irailean hasi ziren lanean eta dagoeneko 121 langile dabilta bertan. Gureak izanik, desgaitasuna duten per-

tsonei zuzendutako lan aukera egonkorrak sortu eta kudeatzea da Bergarako planta berriaren helburua. Bertan, inbertsio teknologiko handia egin da; izan ere, Gureak-entzat oso garrantzitsua da prozesuak eta inguruak langileentzat egokitzea. Planta berrian, kableen alorrean 97 pertsona dabilta lanean; eta

horiek egindako zereginak Gureak-ek Bergaran eta beste hainbat herri zein hiritan dituen beste 800 langileri ematen die lana. 5.950 pertsonak osatzen dute taldea, eta horietatik %82k desgaitasunen bat dute. Talde sendo eta dibertsifikatua da eta industria, zerbitzu eta marketin-eko sektoreetan lan egiten du,



MAIALEN REGUEIRO

Zientziaren 'Leku Historiko'

Duela 200 urte baino gehiago Elhuyar anaiek wolframa bertan aurkitu zutela eta, Europako Fisika Elkarteak (European Physical Society) banatzen duen zientziaren *Leku Historiko* izendapena jasotzen munduko 44. tokia bihurtu zen joan den zapatuan Bergara. Izendapena

betikotzeko, plaka bat jarri zuten Laboratoriumen atarian eta ondoren ekitaldi instituzionala egin zuten Seminarioxoa aretoan. Bergarako izendapen berezi hori jaso izana zertan datzan luze eta zabal azaltzen du gaur argitaratu den *Puntua* aldizkariko erreportaje nagusiak.

Erreka Group-en unitate berria

Ibilgailuen eta oinezkoen sarreraren automatizaziorako ekipok eta sistemak eta sarbide soluzioak fabrikatzen dituen Erreka Accesos Automaticos euskal enpresak, Mondragon Taldearen barruan dagoen Erreka Group-eko hiru negozio unitateetako batek, beste produkzio unitate bat inauguratu zuen astelehenean Bergaran, bi milioi euro eta erdi baino gehiago inbertituta. Unitate horren bitartez zabaldu eta osatu egingo du eskaintzen duen produktu eta zerbitzu aukera. Asteleheneko bisitan, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano, Ekonomiaren Sustapen diputatu Ainhoa Aizpuru, Bergarako alkate Elena Lete eta Mondragon Taldeko osagaien saileko presidenteorde Javier Oleaga izan ziren, besteak beste. Lantoki berria San Juan auzoan dago, eta, guztira, 5.100 metro koadro ditu.

batik bat. Pasa den ekitaldian, 240 milioi euro fakturatu zituen eta salmentetatik eratorritako finantzazioa %81ekoa da.

Handitzea etorkizunean

Bergarako lantokiak aurten 220 milioi kable egingo ditu. Eta Gureak-en helburua da 2019an 345 milioi kable egitera heltzea. Astero lau kamioi betetzen dituzte, eta hiru astetan produktua bezeroaren etxera heltzen da. Aurrez aipatutako 97 langile horiez gain, Candy zenaren planta berrian beste 24 langilek prototipoak sortzen dihardute. Eta langileak trebatzeko prozesu formatiboa diseinatu dute enpresan bertan, bederatzi hilabetetan zehar teoria eta praktika uztartzen dituen.

Instalazio "handi, moderno eta argitsuak" dira Bergarakoak. Elena Lete alkateak batzarra egin

zuen eguaztenean Gureak-eko arduradunekin eta enpresaren gaur egungo beharrez zein etorkizuneko handitzean izan daitezkeen eskaeraz mintzatu ziren. Izan ere, Leteren arabera, Udalarentzat "oso garrantzitsua" da Gureak-ek planta berria martxan jarri izana, herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren alde beste bultzada esanguratsu bat delako. Era berean, alkateak azpimarratu du gure berri horretan Miguel Altuna Lanbide Heziketa eta Gureak batuta sinergia eta etekin oso emankorrak eman ahal izango direla.

GUREAK TALDEA 5.950 PERTSONAK OSATZEN DUTE, ETA HORIETATIK %82K DUTE DESGAITASUNEN BAT

OHARRAK

1933an, 1951n eta 1957an jaiotakoak

1933koek azaroaren 11n Zumelagan bazkalduko dute (14:15). Izena emateko, 943 76 16 00 (Miren) edo 943 76 24 04 (Garbiñe). 1951koek azaroaren 10ean Iralan elkartu (20:00) eta Zumelagan afalduko dute: 615 70 90 02. 1957an jaiotakoek azaroaren 24an Mendabiara egingo dute irteera; 09:00etan Santa Marinaran elkartuko dira. Izena eman behar da azaroaren 15a baino lehen: 30305 0189 31 1891038659 -Laboral Kutxa, 80 euroko ordainketa-.

Madura elkartearen 50. urteurreneko azkena

Ospakizun berezia izango dute bihar: San Lorentzoko ermitan, hildako bazkideen omenezko meza (12:00), auzoan zehar poteoa (12:30) eta bazkide zein laguntzaileendako bazkaria (14:30).

'Domeketan familian' ekimena bueltan dator

Jardunen eskutik, ume eta gurasoendako ekintza antolatu dute, etziko, Oxirondoko azokako gunen librea, 11:30etik aurrera.

Bisita gidatu antzeztua eta Gau Beltza gaztetxean

Urriaren 31n Bautista Bergarako leprosoaren bisita gidatu antzeztua egingo du Ugutz Basaurik, epaitegi aurrean hasita (20:00). Ondoren, Gau Beltza ospatuko dute gaztetxean (00:00).

"Gobernuaren erabakiak inprobisatuak izaten dira"

AIERT LIZARRALDE IRABAZI TALDEKO BOZERAMAILEA

'Harira' saioan esan du 2019rako ez duela alkategai izan nahi; Ahal Dugu-rekin batera aurkeztuko dira, eta espero du alderdi moreak izango duela beste hautagai bat

Jokin Bereziartua BERGARA

Gobernuaren lanarekin eta jarraitarekin oso kritikoa da Lizarralde eta dio agintaldia "oso biolentoa" ari zaiola egiten.

Zergatik diozu agintaldia orain arte oso gogorra egiten ari zaizula?

Politikara gerturatu naizen lehen aldia oso biolentoa ari da izaten. Gobernuaren politiketan gizatasun falta osoa ikusten dut eta ez dago inolako elkarlanik haiekin. Hasieran, itxaropentsu nengoen, baina aurreikusten nuena eta errealitatea ez dira batera etorri, inondik inora. Gainera, uste dugu Gobernuak aplikatu dituen politikak oso kaltegarriak direla herritarrendako.



Lizarralde, Goiena telebistako platoon, *Harira* saioa amaitu ostean. JAGOBA DOMINGO

Ez zaituztete aintzat hartzen?

Inondik inora. Gobernuak batzordeetara dena adostuta ekartzen du eta entzun arren ez du ezer aintzat hartzen. Baina larriagoa deritzot erabaki gehienak inprobisatuak izateari; asko, iritzi subjektiboetan oinarritutakoak. Herritarren parte hartze erreala gabezia agerikoa da. **Baina Gobernuak jarri ditu martxan parte hartze dinamika batzuk...**

EAJk eta PSE-EEk parte hartzearen gainean duten ikuspegia eta gurea oso ezberdinak dira. Euren udal barruko teknikariek diotenari ematen diote garrantzia; herritarrei galdetu bai, baina azken erabakia alkateak eta teknikariek hartzen dute. Horrek hanka-sartze larriak eragin ditu. **Ze hanka-sartze larri, esaterako?**

Boluko frontoiaren estalkiaren proiektuan itzela muntatu zen. Gobernuaren proiektua ez zeterren bat auzotarrek gura zutenarekin eta galdeketa egoera oso bero zegoenean egin zuten. Agorrosingo igerilekuetarako tarifak %20 igo zituztenean plataforma bat sortu eta 2.000 sinadura batu arren, ez zioten jaramonik egin. San Antonioko

obretan ere hainbat kexa jaso zituzten eta orain, Zubietako obra dago; kalea konponduko zutela esan zuten, eta zubia konpontzen hasi dira. Egun batetik bestera abisatuta, gainera. Horregatik diogu parte-hartzerako arautegi bat egin behar dela.

Eta zer moduz EH Bildurekin?

Ideologia ezberdina izan arren, harremana zoragarria da.

Ahal Dugu-rekin batera joango zarete 2019ko udal hauteskundetara. Zerrendaburu izango zara?

Nire alderdiari [Equo-Berdeak] eta Ezker Anitzari esan diet ez dudala jarraitu nahi, eta azaldu diet hiru urteotan izan ditudan arazoak zeintzuk izan diren; kontziliazioarena izan da arazo nagusia. Hala ere, esan didate nik jarraitzea komeni dela; espero dut Ahal Dugu-tik norbait irtetea, erabat prest nago-eta beste bati atea zabaltzeko.

Alkate izango bazina, zein izango litzateke zure lehen erabakia?

Bergararen egoeraren gaineko diagnostiko erreala egingo nuke, gaur egun ez dagoelako, eta gero, lehentasunak markatuko nituzke, betiere, estatistika errealean oinarrituta.

Jean Louis David

2018ko
Jean Louis David
areto onenaren
saria

IBARGARAI 48 • 20570 Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com





Bergarako Musika Bandaren kontzertua, Seminarixoa aretoaren inaugurazio ekitaldian, urtarrilaren 26an. IMANOL SORIANO

Oholtza gainekoa, mahai gainera

Gaur, bederatzi hilabete bete dira Seminarixoa ofizialki inauguratu zenetik eta GOIENAK efemeridea aprobetxatu du herriko kultura arloko eragileengana jo eta orain arteko programazioaren gainean galdetzeko; bateko zein besteko iritziak jaso dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur, urriak 26, bederatzi hilabete bete dira Seminarixoa ireki zenetik. Ilusio eta espektatiba handiak sortu zituen; izan ere, Novedades zinema 2005eko udaberrian itxi zenetik eta Zabalotegi alde batera utzita-formatu txikiko emanaldiak bakarrik ahalbidetzen dituelako-, ez da Bergarako kultura eragileen beharrak asebeteko dituen aretorik izan bergarrendako. Horren adibide dira Udal Pilotalekuak hartu dituen formatu handiko emanaldiak; eta aurrerantzean ere pilotalekua antzoki bihurtu beharko da, formatu handiko emanaldi bereziak ezingo direlako Seminarixoan egin.

Proiektu berria eta kudeaketa

Areto berriak duen tamainaren mugaz harago, zabalik izan zen

lehen sei hilabeteetan 50 emanaldi izan ziren: hemeretzi musika emanaldi, helduendako lau antzezlan, haurrendako bederatzi saio, hamalau hitzaldi, hiru dantza emanaldi eta bertso saio bat. Abendura bitarteko programazioa Udalaren webgunean dago www.bergara.eus.

Seminarixoko programaren inguruan iritzi ezberdinak daude kultura arloan mugitzen diren eragileen artean. GOIENAK jo dituen ateei dagokienez, orain artekoarekin gustura daudenek nabarmendu dute halako proiektu hasiberriei denbora eman

KULTURA ARLOKO SEI ERAGILERENGANA JO DU GOIENA-K ORAIN ARTEKO EGITARUAZ GALDETZEKO

behar zaiela, egonkortu daitezten. Eta eskaini denari hutsuneak ikusten dizkiotenen uste dute, oro har, herritarrek programazioan modu zuzenagoan parte hartzeko aukera izango balute egitarau osatuagoa lortuko litzatekeela. Horien artean dago goiko estazioan-Goikorock-entseatzten duen What A Band taldea.

What A Band taldearen kexa

Kaleratu berri duten bigarren diskoa Seminarixoan aurkeztu gura zuen talde bergararrak-joan den zapatuan gaztetxean aurkeztu zuten, Txapa irriaren denboraldi berriaren aurkezpenean-, eta horregatik jo zuten Udaleko Kultura Zerbitzura. Diotenez, afari baten truke jotzea proposatu zien Udalak. "Espero dugu egunen baten konturatuko dela Udala, herriarena den areto bat, herriko kultura eragileen

"Herritarrek oso ondo erantzun dute Seminarixoko askotariko ekintzetan"

MAITE AGIRRE KULTURA ZINEGOTZIA

Goiko estazioan entseatzten duen What A Band taldearekin gertatu zenaren gainean galdetuta, esan du Goikorock-eko musika taldeekin harremana ona dela. **Gobernuan sartu zinetenetik duzue harremana Goikorock-eko musika taldeekin?**

Eurengana jo genuen iaz, Seminarixoaren irekieraren bueltan. Talde amateur hauentzat goiko estazioko lokala egin zenean, orduko Gobernuak hitzarmena egin zuen eta bertan jasotzen da, besteak beste, urtean kontzertu bat doan eskaintzea. Ulertzen dugu talde ez profesionalendako eginda dagoela, Bergarako edozein musikaririk duela lekua bertan. **Seminarixoan eman zuten kontzertuarekin pozik?**

Halako lehen kontzertua zenez, urduri geunden ea nola irtengo zen, sonoritate eta herritarren erantzunaren partetik. Zalantzak



GOIENA

genituen, baina ezin hobeto irten zen. Bide horri jarraipena eman gura diogu. Jaietan ere jo nahi zutela esan ziguten eta Udalak bere baliabideak eskaini zituen; sekulako arrakasta izan zuen.

Bestalde, pozik zaudete orain arteko programazioarekin?

Oso pozik. Bergaran zegoen premiari erantzuna ematea lortu du aretoak eta herritarrek oso ondo erantzun dute; gogoz etorri dira Seminarixoan antolatzen diren askotariko kultura emankizunez gozatzerara.

"Bigarren mailako kultura eragile garelara sentitzen dugu gure herrian"

AITOR ALDANONDO WHAT A BAND MUSIKA TALDEKO KIDEA

GOIENAn argitaratutako gutun baten salatu zuten areto berriari jotzea eskatu ostean Udalak afari baten truke egiteko proposatu ziela. Joan den aste bukaeran gaztetxean aurkeztu zuten euren bigarren diskoa. **Disko berria Seminarixoan aurkeztu gura zenuen, gaztetxean egiteaz gain. Zergatik ez da posible izan?**

Disko berri bat ez dugulako afari baten truke aurkezten, sekulako lana dago-eta atzetik. Prest gaude urtean behin Udalarentzat doan jotzeko beste batzuekin batera, jai baten testuinguruan. Ez gara diruagatik mugitzen, baina justua deritzogu egin dugun lanagatik dirua eskatzeari. **Ze uste duzue dagoela atzean?** Udalak ez du ideiarik ere gu moduko taldeak zertan ari diren. Bigarren mailako kultura eragile garelara sentitzen dugu gure herrian. Badirudi ez daukagula



A.A.

beste batzuek duten estatusa. Ez gara kultura ofiziala, badakigu, baina horrek ez du esan nahi guk ez ditugunik ekimen interesgarriak eskaintzen. Afari bat eskaintzea *zabor eskaintza* batetik gertuago dago eskaintza duin batetik baino.

Seminarixoko programazioa gustuko duzu?

Orain arte, herren geratu da. Gu bezala, herriko jende asko ez da identifikatu programatutako hainbat ekitaldirekin. Hutsuneak daude, argi eta garbi.

"Jo genuen taldeentzat esperientzia positiboa izan zen, arrakastatsua"

EUGENIO PELICANO GOIKOROCK ENTSEGU LOKALETAKO ELEDUNA

2009an inauguratu ziren goiko estazioko lokaletako bozeramaile lanetan dihardu Pelicanok.

Ze iritzi duzu Seminarixoaz?

Leku ederra da kultura panorama zabaltzeko, kokaleku ezin hobean. Programazioa baloratzeko goiz da, baina orain arteko ibilbidea ona izan da.

Seminarixoan jotzea nolako esperientzia izan zen?

Jo genuen talde guztientzat izan zen esperientzia oso positiboa. Apustu indartsua zen, ez genekien aretoak rock gogorra eta soinu potentzia handia nola asimilatuko zuen. Goikorock-eko talde guztiei ireki zitzaizen aukera eta data bat zehaztu genuen.

Emanaldi arrakastatsua izan zen.

Zenbat talde zaudete goiko estazioko lokaletan?

Zortzi lokaletan banatuta, 21 talde daude. Orduetegiak, leku komunak eta lokalak partekatzen orduan ez dugu



E.P.

arazorik izaten. Elkarlana badago, baina gero, talde bakoitzak bere kabuz funtzionatzen du. Taldeen sartu-irten handia dago.

Udalarekin zer moduz?

Harremana adeitsua da. Ohikoa ez den beharren bat badugu, planteatu eta ados jarri izan gara orain arte; beste kultura taldeen antzera, lokala uzteagatik urtean doako ekitaldi bat egitea adostu genuen hitzarmenean. Orduan, justua iruditu zitzaigun, baina, akordioa betetzeko, musika talde guztiak lagundu behar dute.

"Denbora eman behar bazaio ere, orain arteko eskaintza ondo egon da"

MARIJE UGALDE BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Seminarixoa moduko proiektu berriek denbora behar dutela dio musika eskolako zuzendariak.

Bete dira aretoak sortu zituen espektatibak?

Pozik nago. Bergararrok areto duin bat aspaldi behar genuen, eta, txiki samarra izan arren, badaukagu bat. Ondo kokatuta eta baliabide tekniko onekin.

Gustura programazioarekin?

Halako proiektu berri bati denbora eman behar zaio, eta, lehen urtea izateko, ondo egon da. Denetarik. Aretoaren dimentsioak asko mugatzen du programazioa; ezin da ekitaldi handirik eta garestirik antolatu.

Zenbat alditan egon zarete aretoan musika eskolatik?

Apirilean Musika eta helduen dantza txapelketa Seminarixoan izan dira aurten lehenengoz. Une batzuetan espazio handiagoa eskertuko genuke; aldiz, aretoak eskaintzen dituen baliabide



GOIENA

teknikoak azpimarratuko nituzke. Onena, baina, Bergaran dugun kultura arloko langile ekipoa da. Benetan bikaina!

Orekatua izan da herriko eragileen arteko presentzia?

Eragile asko pasatu dira, aretoak aktibitate handia izan du. Denon artean egin behar dugu lan eskaintzarik zabalena izateko.

Ezer gaineratu nahi duzu?

Udaleko korporazio guztiekin izan dugu harreman ona, hemen beti jakin dugulako garrantzitsua dela heziketa musikal ona izatea.

"Mahai anitz batekin, denok batera, potentzial handiagoa dugu"

ANDER BOLIBAR 'PLAZA MARRAZTEN' EKIMENEN KIDEA

Seminarixoaren kudeaketaz "irekian" eztabaidatzeko sortu zen ekimeneko parte da Bolibar.

Nondik sortu zen Plaza marrazten ekimena?

Herritarren behar batetik. Urteetako proiektua den aretoa zabaltzea albiste ederra izan zen, baina bertako kudeaketa ereduaz era publikoan eta aukera guztiak aztertuz hitz egin nahi genuen. Saio irekira 50 bat lagun azaldu ginen, baina Udalak bizkarra eman zigun.

Gobernuak "argi" dauka Udalak kudeatu behar duela...

Mingarria da eredu ezberdinez eta beste eragileekin berba ez egiteko duen burugogorkeria. Azpeitiko San Agustín kultur-gunea bezalako ereduak interesgarriak dira, herritarrek ez direlako ikusle hutsak. Kultura mahai anitz batek kudeatzen badu aretoa, programazioa aberasgarriagoa eta



GOIENA

inklusiboagoa izango da. Hori da joera herri askotan; batera, potentzial handiagoa dugu.

Ezer gaineratu nahi?

Tranpatia da gustuko ez den horri bizkarra ematea. Kultura elkarbizitza pentsatzeko modu eder bat da. Orain, Txotxongilo Mostra dugu, Bergarako aitxor handienetako bat, eta modu naturalean uztartuko ditu elkarte jarduna, kalea, Udalaren eraikinak eta autogestioz mantentzen den Kartzela Zaharra. Hauspotu beharreko bide bat da.

"Zaila da denok pozik uztea, baina eskaintza nahiko bariatua izan da"

KARLOS ETXANIZ BERGARAKO ORFEOIKO PRESIDENTEA

Hainbat alditan igo da Seminarixoko oholtzara Karlos Etxaniz. Aretoa "oso ondo" ekipatuta dagoela deritzo.

Seminarixoaren irekierak espektatibak sortu zituen hainbat bergararren artean.

Zure kasuan, bete dira?

Neurri handi batean, bai. Proiektua hasieratik jarraitu dugunok bagenekien zein muga izan behar genuen, babestutako espazioa delako. Hori kontuan izanda, daukaguna da kokapena ezin hobea eta oso ondo ekipatuta dagoela. Hori bai, faltan igartzen dut *reverb*-a [oihartzuna] kontrolatzeko sistemak ez duela horrenbeste aldatzen aretoaren sonoritatean.

Zein iritzi duzu orain arteko programazioaren inguruan?

Ondo ikusten dut. Lehen urtea da eta zaila da denok pozik lagatzea. Hala ere, nahiko bariatua izan dela uste dut.



GOIENA

Uste duzu herriko kultura taldeen artean orekatua izan dela presentzia?

Ez dakit esaten. Egia esanda, aurten Bergaratik kanpo izan ditudan ekintza ugariekin ez dut izan denbora librerik bertako kultura kontsumitzeko.

Nolako harremana du orfeoiak Udalarekin?

Harremana ona dela esango nuke. Bergarako orfeoiak, ni akordatzen naizenetik, behintzat, beti izan du harreman ona Udalarekin.

laguntzarekin kudeatu behar dela, herri guztiarendako lanean. Gainera, asko eskatzea ez bada, baldintza duinak eskaini behar-ko litzaiok herriko jendeari ere, kanpokoei badakigu-eta eskatutakoa ematen dietela", adierazi du What A Band taldeko Aitor Aldanondok.

GOIENAK kultura zinegotzi Maite Agirreri galdetu dio kritika horren gainean Udalaren iritzia zein den, baina zinegotziak nahiago izan du gai horren inguruko azalpenik eman ez eta goiko estazioko taldeekin harremana ona dela azpimarratu. Harreman onaren adibide moduan jarri ditu Seminarixoan bertan Goikorock-eko hiru taldek eman zuten kontzertua eta jailetan Irizar kanpoan eskaini zuten emanaldia. Seminarixoko eskaintzari dagokionez, Agirrek dio Gobernuak "argi" duela kudeaketa Udalarena izan behar dela eta Kultura batzordera heltzen diren proposamenak aintzat hartzen direla programa osatzeko orduan.

Horrez gain, Udala arautegi bat prestatzen ari da areto berri-rako, eta, aurreratutenez, urriaren 29ko osoko bilkuran landuko da, seguruenik.

Herriko musikariendako estazioa
Orain arte Seminarixoan izan diren emanaldiei erreparatuta, musika izan da nagusi. Eta musika arloan Bergarako birika nagusietako bat 2009an musika taldeendako propio berritu zen goiko estazioa. Garai baten seminarioko haurtzaindegi ondoko lokaletan entseatzen zuten eta gune hori hustu egin behar zenez Udalak goiko estazioa berritu eta egokitu zuen.

Goikorock izenez ezaguna den guneko bozeramaile Eugenio Pelicanok lokal horien beharra azpimarratu du: "Beharra zegoen lokalak egiteko, Bergara kultura musikal handiko herria delako. Garai hartan, talde asko sortu ziren eta estazioa berritu izana oso positiboa izan zen guretako. Oraindik ere han jarraitzen dugu eta taldeen sartu-irten handia dago". Hain justu, 2008ko azaroaren 26an sinatu zuten Udalak eta Goikorock-ek lokalen erabilera arautzen duen hitzarmena eta bertan jasotzen da, besteak beste, Udalarena den lokala erabiltzeagatik musika taldeek urtean behin emanaldi bat doan eskaintzea.

"Emanaldi bereziak eskaintzea da helburua"

ITSASO AZKARATE TXOTXONGILOEN MOSTRAKO ANTOLATZAILEA

Taun Taun antzerki taldeko kide da Itsaso Azkarate bergarra; antolatzaile lanetan dabil, eta, emanaldietan parte hartu izan duen arren, aurtun ez du horretan jardungo

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Bergarako Nazioarteko Txotxongilo Mostra hasi zuten atzo. 14. aldia izango da aurtengoa. Ibilbide honetan izan dituzten zailtasunak eta aurrera begirako erronkak azaldu ditu Itsaso Azkarate antolatzaileak.

Prest duzue aurtengo mostra. Ze berritasun izango ditu edizio berri honek?

Ikuskizun oso ezberdinak izango dira, beti bezala. Aurtengo berrikuntza da Seminarixoa aretoa izango dugula gure erabilerarako, guretzako oso garrantzitsua izango dena. Teknikoki oso ondo prestatuta dagoen aretoa da; horregatik ekarri dugu Onirica Mecanica taldearen *Alicia y las ciudades invisibles* lana, besteak beste. Oso bisuala da, eta teknikoki konplexua. Kanean, aldiz, Brunette Bros zirkua izango dugu: *The greatest 2nd smallest circus in the world* ikuskizunarekin. Arrizuriaga parkean eskainiko dute euren ikuskizuna asteburu osoan; hori berria izango da, adibidez. Gaztetxean estreinaldi bat izango dugu: Behibis taldearen *Trabajos de interior* emanaldia, hain zuzen. Gaztetxeko azken emanaldi hori izan ezik, beste guztiak testu bako lanak izango direla nabarmendu behar da.



Itsaso Azkarate antolatzailea. GOIENA

14. aldia izango da aurtengoa. Badi urte batzuk honekin hasi zinetela.

Bai, badira ia 30 urte honekin hasi ginela. Datorren edizioan gurako gure zerbait berezia egin, urteurren borobila ospatzeko. Urte asko izan arren, azkar pasatu dira! Nabarmendu behar da 200 bat talde edo artista pasa direla Bergaratik urte hauetan guztietan. Ikusleen aldetik ere badago ohitura horrelako ikuskizunak ikusteko; esan daiteke lortu dugula mundu hau ikusleengana gerturatzea.

Txotxongiloen arloan nagusiendako zegoen hutsunea bete nahi izan duzue. Lortu da helburua?

Bai, egin dugu. Hala ere, bada go zer egin oraindik ere. Programazio aldetik helduentzako txotxongiloa egitea oso zaila izaten da. Euskal Herrian egiten den kultur eskaintzari begiratuz gero, esan daiteke txotxongilo ikuskizunak egiten direla umeendako, eta tradizionalak, gainera. Horrelako gauzak ez dira egiten. Esaten da: "Gure publikoa ez dago ohituta", baina egin behar dena da eman probatu dezaten.

Sukaldaritza berriarekin gertatzen denaren berdina da: betikoa jan beharrean, gauza berriak egin behar dira. Plater bereziak eskaini behar dira.

Mostra egonkortu egin dela diozun arren, zeintzuk izango dira aurrera begirako erronkak?

Diru laguntza gehiago lortzea izango da aurrera begirako erronketako bat. Guk badaukagu gogo aurrera egiteko eta ondoan badugu gurekin kolaboratzen duen jendea. Handitu egin gurako gure, eta, batez ere, gauza bereziak egin; beste forma bat eman nahi diogu mostriari. Bergarako museoa dela-eta gauza bereziren bat egin gurako gure datorren edizioarako: panpina artikulatuen lehiaketa, adibidez.

Bailarako protagonistak ere badaude egitarauaren barruan. Zaletasuna badagoela esan daiteke?

Bai, badago. Gainera, gura gure esan horrelako lanak egin gura dituenak edo interesa duenak aukera duela gurekin harremanetan jartzeko. Informazioa eskaintzeko eta laguntza emateko prest gaude. Nabarmendu behar da badaudela txotxongiloen artisauek bailaran; ez, ordea, txotxongilo talderik.

Iragarpeni begira jarrita, eguraldiak ez du lagunduko aste bukaeran. Aldaketarik egongo da ikuskizunaren lekuei dagokienez?

Bai, aldaketa bat izango dugu. Zapatu gauean San Martin plazan eskaintzeko zen Cia. Ytuquepintas konpainiaren *Jojo* lana Zabalotegira pasako da. Doan izango da emanaldia, baina areto barruan ikusteko aukera egongo da. Brunette Bros taldearen ikuskizunarekin ikusiko dugu zer egin; kanpoan egitea da asmoa, ikusiko dugu zer egin daitekeen.

Emanaldien ordutegiak eta lekuak

Nazioarteko XIV. Txotxongilo Mostrako egitaraua asteburuan.

Urriaren 26a, egubakoitza

- **19:00etan eta 22:00etan** *The greatest 2nd smallest circus in the world.* Arrizuriaga parkean.
- **20:00etan** *Boris & Ingrid.* Seminarixoa.
- **22:30ean** *Trabajos de interior.* Gaztetxean.

Urriaren 27a, zapatua

- **12:30ean** Iñaki Mataren *Welcome.* Kanean zehar.
- **19:00etan eta 22:00etan** *The greatest 2nd smallest circus in the world.* Arrizuriaga parkean.
- **20:00etan** *Alicia y las ciudades invisibles.* Seminarixoa.
- **23:00etan** *Jojo.* Zabalotegin.

Urriaren 28a, domeka

- **12:30ean eta 18:00etan** *The greatest 2nd smallest circus in the world.* Arrizuriaga parkean.
- **20:00etan** *Sueños.* Seminarixoa.

Karatekak, Euskadi mailan

Euskadiko karate txapelketan ondoko postuak lortu zituzten bergararrek, Anoetan: kadete mailan Nora Linazisoro -2.-; Ainhoa Salillas eta Naia Perez -3.-; Nahia Etxarri eta Saioa Leturia -4.-. Gazteetan, Maialen Martin -3.- eta 21 urtez azpikoetan Joseba P. Aguado -4.-. Aipatutako guztiak, gainera, Gipuzkoako txapelkunak dira.



JOXEAN INARRA

Sormen artistiko ikastaroa antolatu du Beart elkarteak

Ikastaroan landuko dute: marrazketa eta pintura, teknika ezberdinak konbinatuz; eskultura eremu hedatuan, espezialitatea lantzen; eta, argazkigintza eta bideo-sorkuntza. Amaia Santamaria izango da irakaslea eta eskolak izango dira eguazten edo barikuetan, 17:30etik 20:30era. Interesa duenak 690 25 14 50 zenbakira deitu beharko du.

Mikel Santosek 'Gerezi garaia' liburua aurkeztuko du

Lucio Urtubiaren bizitza jasotzen duen *Gerezi garaia - El tesoro de Lucio* eleberri grafikoa aurkeztuko dute, gaur, egubakoitza, gaztetxean. 19:00etan izango da saioa eta Mikel Santos *Belatz* egilea bertan izango da. Euskaraz, gazteleraz, katalanez eta galegoz argitaratu dute eleberria. Gaur, euskarazkoa eta gaztelerazkoa aurkeztuko dute.

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



Hondakinak kudeatzeko atez ateko sistema. MAIDER ARREGI

Gizarte zerbitzuen tasek ez dute igoerarik izango

2019ko zerga ordenantzen hasierako onepenari oniritzia eman diote EH Bildu eta EAJ alderdiek. Adostasunera iritsi da Udal Gobernua EAJrekin, eta KPIa igoko zaie udal zergen tasei. Gizarte Zerbitzuetako tasek, baina, ez dute igoerarik izango

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, aho batez onartu zuten 2019ko zerga ordenantzen hasierako onepena. Iazko zerga berak, ordenantza berak, alegia, onartu zituztela azaldu du Udal Gobernuak. "Igo duguna da kontsumo prezioen indizeak, KPIak, izan duen igoera. Baina igoera horretatik kanpo geratu dira Gizarte Zerbitzuak aurten ere. Horiek ez dute igoerarik izango, beraz, 2019an", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarrak.

Hala, KPIaren urteko batez besteko igoera %2,2koa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta igoera hori aipatutako udal zerbitzuei aplikatzea onartu zuten osoko bilkuran.

EAJk ere oniritzia eman zion igoerari. Basilio Ormazabal bozeramaileak gaineratu zuen igoera hori logikoa eta beharrezkoa ikusten zuela, besteak beste, ekainaren 3ko uholdeek eragindako kalteen ondorioz.

Beñardo Kortabarrak alkateak nabarmendu zuen, ordea, tasen igoeraren gainean erabakia hartzeko iazko oinarri bera jarraitu dutela aurten ere: "Bizitza garestitu den neurri berean izan dute igoera udal zergek. Aurten, iazko oinarri bera jarraitu dugu eta, esan moduan, Gizarte Zerbitzuak igoera horretatik salbu geratu direla adostu dugu. Izan ere, ez zaigu iruditzen bidezkoa gehien behar duten herritarrek gehiago ordaintzea". Hala, eguneko zentroak, Torresoroa erakinek etxebizitza babestuen zerbitzuak eta pertsona nagusiendako jangelak ez dute igoerarik izango tasetan.

Azpimarratu behar da ibilgai-lu historikoek hobaririk ez du-

LARRU FABRIKAREN GAINEKO DOKUMENTAZIO GUZTIA UDALARI DOHAINTZAN

tela jada 2018a ezkerro eta Olarango ekintza aretoaren alokairua eta Olarango pianoaren alokairuak ere arautu direla 2019rako. Yoga ikastaroek ere tasa berria izango dutela aurreratu dute.

Hilabete egongo dira Udal zergak jendaurrean. Alegaziorik ez balego, azaroko osoko bilkuran onartu eta 2019ko urtarrilean indarrean izango liriteke.

Agustin Telleriaren ondarea

Bestalde, aho batez onartu zuten Agustin Telleriaren fondoa dohaintzan onartzea. Telleriatarrek larru fabrika izan zuten eta horren gaineko dokumentazioa orain arte Telleria familiaren etxean egon da gordeta. Orain, familiak Antzuolako herriari eman dizkio dohaintzan dokumentu eta datu ugari. "Benetan eskertzekoa da Antzuolako herriari egin dion ekarpena Telleria familiak. Ondare garrantzitsua da eta Udalaren aldetik eskertzekoa da", nabarmendu du Antzuolako alkateak.



Udal ordezkariak eta udal idazkaria talde argazkian. MAIDER ARREGI

Udal ordezkariak eta idazkariak bat egin dute Euskaraldiarekin

Euskaraldiari atxikimendua emateko, herritarrei argazkiak ateratzeko dei egin die batzordeak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iraileko osoko bilkuran aho batez onartu zuten Euskaraldiarekin bat egiteko proposamena Udala ordezkatzan duten alderdi guztiek. Hala, asteon, talde argazkia atera dute, horren erakusle, Antzuolako zinegotziek.

Argazkian, EH Bilduko zinegotziak eta EAJkoak daude –Alderdi Sozialistako zinegotzi Miren Arrate Gallastegi ezin izan zen azaldu–. Esan beharra dago udal idazkari Eider Esnaolak bat egin duela Euskaraldiari atxikimendua erakutsiz eta udalbatzarekin talde argazkia ateraz.

Herritarrendako deia

"Ahalik eta herritar gehienek Euskaraldiari atxikimendua adieraztea lortu gura dugu. Horregatik, Euskaraldiko kartela herritarren eskura jarriko dugu, argazkia ateratzeko aukera izan dezaten. Udal Liburutegian –Eguzki auzoan dago orain– pasa beharko dute abisua", dio Euskaraldi zinegotzi Jon Ugarteburuk.

Uemak, bestalde, azaroaren 7rako, *ahobizi eta belarriprest* rolen gaineko informazioa emateko ikastaroa eskainiko du, Olaran etxean. 18:00etan hasita, ordubeteko bi saio izango dira.



MAIDER ARREGI

Komun publikoak, erabilgarri

Joan den asteko eguaztena ezkerro, erabilgarri daude komun publikoak. Aste bukaeran, gainera, harrera ona izan duela azaldu dute udal ordezkariak. Antzuolako erdigunean daude herritarrendako komunak, Herriko Plazaren ondoan. Automatikoki garbitzen dira eta ezinduendako egokituta daude, gainera.

20 urte elkartasuna mundura zabaltzen

Azaroaren 10ean beteko ditu Anelkar gobernuz kanpoko elkarteak 20 urte. Afrikan eta Brasilen hainbat proiektu eraman ditu aurrera erakundeak. Sahararekiko konpromisoa erakutsi du eta antzuolarren sentsibilizazioan eragitea lortu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Elkartasuna nabari da Antzuolako kale eta bazter guztietan. Hein handi batean, 20 urtean lanean diharduen Anelkar elkarteari esker. Afrikarekiko sentsibilizazio berezia eduki du betidanik Anelkarrek, Kongon eta Senegalen proiektu garrantzitsuak aurrera ateratzea lortu du eta. Baina gobernuz kanpoko erakundearen hastapenean Ruanda eta Brasil aipatzea ere ezinbestekoa da. "1993an, nire izeba moja Ruandan zegoen. Genozidioa gertatu zen orduan, eta sasoi hartan hasi ginen talde gisa batzen eta elkartasuna hara bideratzen. Aipatu behar da 92an Juan Antonio Lizarralde apaiza Brasilen zegoela eta bere kuadrillak laguntza ematen ziola. Ondoren etorri zen Serbiari eta Kroaziari laguntzeko mugimendua", dio Anelkarko sortzaile Kontxi Laskurainek.

Mugimendu horien beharrak ikusita, talde bakar bat sortzea erabaki zuten. Hala jaio zen, 1998ko azaroaren 10ean, Anelkar.

Brasil eta Afrika

Kristina Bakaikoa Brasilera eta Bittor Arbulu Afrikara. Antzuolarrek gertutik jarraitu dituzte Anelkarren proiektuak. "Aita Lizarralde hil zen eta Brasilen



Sasoi bateko euskal ezkontza irudikatu zuen Anelkarrek 2007an. JABI ETXANIZ


ZURRATEGIN BIDEO EMANALDIA ETA ERAKUSKETA JARRIKO DUTE AZAROAREN 9AN

jada ez daukagu ordezkaririk. Baina Kongoko eta Senegalgo proiektuen jarraipena Arbuluk egiten du eta bultzatzen jarraitzen dugu Anelkartik. Ordezkarri bat edukitzea da lehentasuna: bideratzen dugun dirua iristen

dela ikustea". Saharari ere laguntza eman diote azken urteetan. "Udaletik iritsi zitzaigun proposamena, eta kanpaina ezberdinekin lagundu dugu".

Azaroaren 9an ospakizuna

Zurrategin, 18:15ean, txokolata eta kafea jarriko dituzte. "Postrea herritarrei ekartzeko eskatuko diegu". Bertan, Anelkarren ibilbidea batzen duen erakusketa jarriko dute. 19:00etan, Anelkarren proiektuen eboluzioa eta historia jasoko duen bideo emanaldia eskainiko dute.



ARROLA

Mendiaz eta historiaz gozatuz

Bederatzi lagunek egin dute irteera Aramaio inguruako paraje zoragarrietara Arrola taldearen eskutik. Santa Kruz apaizaren kobazuloa bisitatzeko aukera izan dute eta historia bertatik bertara jarraitu dute Antzuolako mendizaleek. "Santa Kruz apaizaren kobazuloan disfrutatu egin dugu pertsonaiaren historiaz eta baita inguruak eskaintzen zigunaz ere".

Udazkeneko marrazki lehiaketa abian da Xinkonon

Antzuolako gaztetxo guztiendako martxan da Xinkonako marrazki lehiaketa. "Edonork har dezake parte. Helburua da ondo pasatzea eta marrazkilaritzaz gozatzea. Izan ere, ume eta gaztetxoendako ekintzak gutxitzen hasten dira urteko sasoi honetan. Hotza hasten da eta etxean eskulanak egiteko denbora gehiago ere badute", dio Xinkonako

Alaitz Jauregik. Lehiaketa gutxiago antolatzen direla-eta bultzada ere eman gura dio Jauregik. "Gutxitzen-gutxitzen, desgertzeko arriskua ere sumatu dut. Lehiaketa berreskuratzeko ahalegina egin gura dut".

Marrazkiak Xinkonara eraman behar dira urriaren 31 baino lehen. "Marrazkirik originalenak saria izango du. Ondo edo gaizki, koloretan edo arkatzarekin eginda egon... berdin da, originaltasuna baloratuko da-eta lehiaketan".

Hezkuntzaren aldeko apustua

Aurten, 20.000 euro bidaliko dituzte Kongo eta Senegalera, han abiatutako hezkuntza proiektua bultzatzen jarraitzeko. 2000tik hona, urtero joan da Bittor Arbulu proiektuen eboluzioa ikustera eta babestera. Ur-edangarria herrietara eramateko azpiegitura ere egin dute. Orain, hezkuntza sustatzen eta bultzatzen jarraitzeko lanean dihardute.



Kongoko Kapiri herriko eskola. JABI ETXANIZ

Domekan amaitzen da hautagaiak aurkezteko epea

Antzuolako EH Bilduk 2019ko udal hauteskundeetarako alkatetza hautatzeko prozesuan dihardu. Urriaren 28an, domekan, bukatzen da EH Bilduko hautagaiak aurkezteko epea. Eta behin aurkezteko epea amaituta, Antzuolako EH Bildu alderdiak jakinarazi du ondorengo egunetan emango duela aditzera hautagaien zerrenda.

Aloñaren aurka derbia jokatu du Antzuolak zapatuan

Oñatiarren aurkako derbia jokatu du talde gorriak zapatuan, 16:30ean, Eztalan. Antzuolako talde nagusia zortzi punturekin hamargarren postuan dago Erregional Preferenteko sailkapenean. Aloña Mendi taldekoak, berriz, hirugarren postuan daude, hamaiak punturekin. Sailkapeneko lehenengo postuan, berriz, Mondra taldea dago.

Erlezainen lana denon bistara, bihar, Elgetan

Bailarako ekoizleen produktuak, ezti dastaketa, neska-mutikoendako tailerrak, erlauntz bat bertatik bertara ikusteko aukera... Erleen munduak hartuko du zapatuan herriko plaza eta arratsalderako, erregina-jelearen inguruko hitzaldia iragarri dute

Larraitz Zeberio ELGETA

Udaberrian eta udan izaten dute erlezainek lan kolpe handiena, eta sasoi honetan denbora luzeagoa dute ekoiztutako produktuak azoketan eskaintzeko. Bihar, zapatua, Erle Eguna egingo dute Elgetan, eta inguruotako hainbat ekoizle elkartzeko dira bertan. Tartean izango da Larrabiltxoko Luis Mari Arantzeta edo bere senideren bat.

Debagoiena Landa Garapenerako Elkarrekin eta Mankomunitateko Turismo Sailak antolatatu dute Erle Eguna, Elgetako Udalarekin elkarlanean. Erlezainak ere badihardute antolaketan lanetan. Asier Martin eta Erlantz Olabarria bergararrak, esaterako, erlauntz eta guzti izango dira Elgetan. "Erleengan-dik ezti, polena, propolia, argizaria, erregina-jelea eta apitoxina lor daitezke", azaldu du Martinek. "Goizerako, neska-mutikoendako tailerrak, azoka, erakusketa bat eta ezti dastatzea



Asier Martin eta Erlantz Olabarria, Elgetara eroango duten erlauntza erakusten. L.Z.

antolatu ditugu. Zortzi ezti mota eskainiko ditugu dastatzeko, eta azalduko dugu non eta noiz jasotako eztiak diren; izan ere, eragina du horrek kolorean eta zaporean". Azaldu du erlauntz bat bertatik bertara ikusteko

aukera izango dela eta gauzak ondo bidean zabaltzeko ahalegina ere egingo dutela. Hala, erleak lanean, larbak hazten edo produktu ezberdinak nondik lortzen diren ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

"Bailarako 69 erlezain gaude elkartean"

ERLANTZ OLABARRIA
ERLEZAINA

Debagoienean bada mugimendua erlezainen munduan. Elkarte bat sortu dute, dituzten premiei batera aurre egiteko.

Zertarako sortu duzue erlezainen elkarteak?

Uste dut une honetan 69 lagun gaudela izena emanda. Helburua da ezti modu egokian ateratzeko aukera izatea, gero saldu ahal izateko.

Zeintzuk dira premiazko beharrak, orduan?



L.Z.

Beharrezkoena, orain, lokal bat da. Ondo egongo litzateke udalen batek edo bestelakoren batek lokal bat uztea. Bertan, eraldaketa gela bat ipiniko genuke, ezti prozesatu eta erregistro sanitario batekin merkatura atera ahal izateko.

Ezti asko ekoizten da Debagoienean?

Ziur ez dakit esaten, baina nahikoa ekoizten dugu, ditugun bezeroei eskatzen dutena eskaintzeko.

Arratsaldean hitzaldia

Ekoizleei zuzendutako hitzaldia ere izango da Erle Egunean. Azkaineko ekoizle Mikela Untsainek erregina-jelearen inguruko hitzaldia egingo du 16:30ean udaletxeko areto nagusian. Interesatu guztiendako saioa da.

Liztor beltza, sasoi betean

Ardura handia dago liztor beltzak eragindako kalteekin. "Ez dugu bururik altxatzen. Oraingo, irtenbide bakarra erlauntzak liztorrik ez dagoen eremuetara mugitzea da", esan du Martinek.

Erle Eguneko egitaraua

- **10:00** Azoka irekiera.
- **11:00** Tailerrak neska-mutikoendako.
- **11:30** Ezti dastaketa.
- **12:00** Tailerrak. Barra energetikoak, argizaria, kandelak...
- **16:30** Mikela Untsainek hitzaldia, udaletxean. Gaia: erregina-jelea.



GORKA ARIZMENDIARRIETA

Elgetarrak Eskola Publikoaren festan

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren lehen jaiak egin zuten hilaren 20an Eskoriatzan, eta, kamiseta laranja soinean, bertan izan ziren Elgetako Herri Eskolako hainbat ikasle, guraso eta irakasle. Autobusa irten zen Elgetatik, Maala guraso elkarrekin antolatuta.

Harrera ekitaldiko *Hezi eta hazi flashmob* erraldoian parte hartzea izan zen eguneko lehen egitekoa. Ondoren, denetariko ekitaldiak izan ziren, eta ia guztietan ikusi ziren kamiseta laranja. Boluntario lanetan ere jardun zuten hainbat elgetarrek.

Autodefentsa feminista tailerra azaroko bigarren aste bukaeran

Launa orduko bi saio izango dira eta hogeitahiru lagunendako lekua dago. Izen-ematea zabalik da udaletxean

L.Z. ELGETA

Badator Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna eta Bideberri mankomunitateak autodefentsa feminista tailerra iragarri du azaroren 10erako eta 11rako, Elgetan. "Txikitatik erakusten digute emakume bezala beldurra sentitzen (...) ikararen bitartez gure autonomia mugatuz eta gizaki pasiboak bihurtuz", adierazi dute tailerrean gidari lanak egitekoak diren Emagin taldeko kideek. Tailerra doan da eta saioak ludotekan izango dira, 10:00etatik 14:00etara. Hogeitahiru

gunendako lekua dago. Zabalik da izen-ematea, udaletxean.

Memoria tailerra ere martxan

Bideberri mankomunitateak, bestalde, memoria tailerra eskainiko du, beste behin. Astero ordu eta erdiko saioak iragarri ditu, azaroren 7an hasita. Hamahiru saio izango dira eta kultura etxean egingo dituzte, 09:30etik 11:00etara.

Kasu horretan ere zabalik da izen-ematea. Interesatuak udaletxeko gizarte zerbitzuetan eman behar dute izena urriaren 31rako.

EUSKARALDIA

Euskaraldian izena emateko dei berezia

Lau aste gelditzen dira Euskaraldiari hasiera emateko eta, oraingoz, 107 lagunek eman dute izena Elgetan. 'Ahobizi' txapa eskatu dutenak 98 dira eta 'belarriprest' izatea eskatu dutenak bederatzi dira. Batzordeak mahaiak ipiniko ditu egunotan

Larraitx Zeberio ELGETA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egitekoa den Euskaraldirako hilabete gelditzen bada ere, Elgetako Euskaraldia batzordeak lehenbailehen izena emateko dei egin du. "Txapak iritsi zaizkigu eta banaketa ondo egiteko garrantzitsua izango da zenbat garen eta nortzuk garen garaiz jakitea", esan dute. Ondo doa izen-ematea, baina Elgetan kopuru handiagoetara iristeko aukera badagoela uste dute. "Etiket egin daiteke izen-ematea, *Euskaraldia.eus* webgunearen bitartez. Udaletxean eta liburutegian ere herritarren eskura daude izen-emate orriak. Eta hurrengo asteetan hainbat egunetan ipiniko dugu izena emateko mahaia kalean. Biharko Erle Egunean, esaterako, plazan izango gara, eta Euskaraldiko materiala salgai izango dugu", azaldu dute batzordeko kideek.

'Belarriprest' gutxi

Emandako kopuruek argi erakusten dute desoreka handia dagoela izena eman duten *ahobizi*-en eta *belarriprest*-en artean. "Gainerako herrietan ere antzerako egoera gertatzen da. Aha-egin berezia egin beharko dugu *belarriprest* direnak ere Euskaraldira gerturatzeko". Gazteen eta erretiratuen artean ere aha-egin berezia egin beharko dela uste dute. "Batzordetik ekimen asko egin daitezke, baina eraginkorrena, zalantzarik gabe, ahoz ahoko komunikazioa da. Euskaraldiarekin bat egin duten herritarrek inguruko jendea animatzea garrantzitsua da", esan dute batzordekideek.

Ekintza sorta

Ekainean aurkeztu zuten ha- maikakoa Elgetan. Ordutik hona, Goibekok egindako Euskaltzaleen



Euskaraldian izena emateko orria betetzen. IMANOL BELOKI

Eguna, bi hitzaldi, *Gure zirkua* ikuskizunaren bisita eta Udalak Torrealdean egindako horma irudia izan dira. Euskaraldiaren aldeko zozketa ere egin da, herriko hamaika establezimendu-


ren babesarekin. Zazpi saritu agertu dira, eta lau gelditzen dira azaltzeko. Euskaraldia batzordea laster elkartuko da berriz. Harremanetarako helbidea da: elgeta@euskaraldia.eus.

'Belarriprest' izango dira



AITZOL OIARTZABAL
IKASLEA

"Ez dut euskaraz hitz egiteko ohiturarik, baina amak animatuta eman dut izena Euskaraldian. Uste dut garrantzitsua dela ingurukoei euskaraz hitz egiteko aukera ematea, eta nik dena ulertzen dut, nahiz eta zailtasunak izan berba egiteko. Animatzen dut jendea izena ematera".



MARI BAGLIETTO
LANGILEA

"Etxean erdaraz egin izan dugu beti, eta euskara eskolako ikasgaia izan da niretzat. Eman izan dut izena euskaltegian pare bat aldiz, baina esaldi luzeak egiterakoan galdu egiten naiz oraindik ere. Ulertu ia dena ulertzen dut, nahi dut jendeak niri euskaraz egitea. Euskaraldian, eta gero".



LZ.

Ipuinez ipuin liburutegian

Goiena komunitatea / Elgetako liburutegia / ELGETA

"Ipuinez ipuin gabiltza liburutegian azken asteetan: *Ipuinen ordua*, *Yoga ipuinak*, *Mozorro festa*... izan ditugu gurean. Eta barikuan, Liburutegiaren Eguna ospatzeko *Ipuinen orduko* saio berezia izango dugu. Saio bakarrean elkartuko gara denok, 17:30ean, liburutegian".

Herrixa Dantzan dantzaldien ikasturte hasiera, domekan

Goiena komunitatea

Herrixa Dantzan / ELGETA

"Ohikoa denez, urriko azken igandean abiatuko dira Herrixa Dantzan dantzaldiak Elgetako Espaloia kafe antzokian, 19:00etan. Maiatza bitartean zortzi dantzaldi izango dira, hilean behin. Horietatik hiru, zuzeneko musikaz. Hamargarren denboraldia izango da aurtengoa", azaldu du Patxi Monterok. Abenduaren 7ko saioa Escamot Catala taldeak egingo du, eta horrekin batera talo afaria izango da. Apirilaren 28an, Christian Pacher frantziarrarekin egingo dute dantzaldia, eta maiatzaren 19rako dago iragarrita urteroko Kantu eta Dantza Eguna.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

Mikel Elkoro-Iñaki Ugarteburu / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas **18-17**
Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo / Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea **4-18**
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Diego Cantabrana-Txomin de Vega **16-18**

PARTIDUAK, BARIKUAN, 18:30EAN

Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar
Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas

Sun magoak familia osoarendako saioa, azaroaren 3an

Ezaguna da Sun magoa; izan ere, Harry Houdini antzetzten du *Club Houdini* telesailean. "Azken bi urteetako ikuskizunetako trikimailurik ikusgarrienak elkartuko ditut Elgetako saioan", azaldu du. "Lotuta eta kateatuta sartuko naiz 500 litro ur dituen edukiontzi batean eta bertatik ihes egiten saiatuko naiz". Formatu handiko magia egiten du Sun magoak eta publikoarekin ere magia egingo duela adierazi du. "Pertsonak desagertu egingo dira, txikitu egingo dira, lebitazio ariketak egingo ditut...". Sarrerak salgai daude, 10 euroko prezioan, El Rincon de Lola tabernan zein *Elgeta.eus* atarian.

OHARRAK

Azken barikua

Gaur, 20:00etan, presoen aldeko elkarretaratzea plazan.

Arimen Gaua

Hilerriko eskaileretan da hitzordua, eguaztenean, 19:30ean.

Loteria: Elgetako EAJ

Eskaerak azaroaren 19rako egin behar dira; Maria Jesus Leteri edo Begoña Ardanazari.



Udaletxearen atzeko aldean dagoen sarrera berriz erabiliko da. O.E.

Alondegitik sartuko da bezeroen arreta bulegora

Udaletxeko edozein tramite egiteko zerbitzu hori erabiliko du herritarrak udaberritik aurrera. Datozen hilabeteetan egingo diren proiektuen artean, Zazpibidetan semaforo bat jartzea ere badago Udal Gobernuaren zerrendan. Astean eman du horien berri

Oihana Elortza OÑATI

Agintaldiaren azken laurdenean sartuta, orain arte egindako proiektuen erreposoa egin du Udal Gobernuak, eta aurrera begirako berri ere eman du; horien artean dago, esaterako, Bezeroen Arreta Zerbitzua zabaltea. Dagoeneko prozedura landuta dute eta abenduan hasiko dituzte lanak.

Etxaluze

Udaletxearen atzeko aldean dagoen atetik sartuko da Bezeroen Arreta Zerbitzura. "Hiru langile egongo dira han eta euren bitartez egingo ditu herritarrak Udalarekin egitekoak dituen tramite guztiak. Aurretik lan handia egin da prozedura mailan eta Udaleko zerbitzu guztiak batzen. Administrazio elektronikorekin egongo da lotuta eta bide telematikoa erabiliko dira hainbat eskaera tramitzeko. Errola agiria, esaterako, bulego horretan egongo den makina baten bitartez atera ahal izango

du herritarrak. Telefono zenbaki berri batzuk ere jarriko dira herritarrek erabiltzeko", zehaztu du Mikel Biain alkateak. Gaineratu du abenduan hasiko dituztela bulego hori egiteko obrak eta asmoa dela Aste Santurako zabalik egotea.

Azaroan egingo diren beste bi ekintzaren berri ere eman zuten martitzenean Udal Gobernuo kideek. Kultur arloko sarreraren aurrealmenta zerbitzua, adibidez, Nerea Zubia Kultura zinegotziak aurreratu zuen moduan: "Udaltzainen eraikinean jarriko dugu makina. Zinemarako eta gaztelekuko ekitaldietarako sarrerak erosi ahal izango dira hasieran. Makina horrek, baina, ez du leihatila ordezkatuko. Hor,

**BIZIKLETAK
GARBITZEKO GUNEA
JARRIKO DUTE
BERDURA PLAZA ETA
ERREKAREN ARTEAN**

Internet bidez, Txokolateixian eta leihatilan erosi ahal izango dira gero sarrerak". Azaroaren 25aren bueltan, indarkeriaren aurkako protokola aurkeztuko dute.

Kiroldegiko proiektua idazten azaroan amaituko dute, eta Etxaluzeko obrak bi aste barru hasiko. Zazpibidetako bidegurutzean laster jarriko dute semaforo bat. "Egungo hesiek egiten duten lana egingo dute semaforoek. Gorri egongo da pasa ezin denean eta laranja zabalik dagoenean", esan du Mugikortasun zinegotziak, Irati Etxeberriak. Urgain Errekaldeko sotoa ere azaroan zabalduko dute.

Jarraipena

Hurretik egitasmoak, Eskola Bidea proiektuak eta Plan Orokorra egiteko asmoak, esaterako, jarraipena izango dutela adierazi zuten eta alkateak eskerrak eman zizkien zinegotzietatik, herritarrei eta herri eragileei, "lana egiten laguntzeagatik".

Emakumeen ahalduntzea dute oinarri udazkeneko ikastaroek

Bost ikastaro, hitzaldi bat eta dokumental bat daude urrian hasi den Jabetze Eskolaren egitarauan

O.E. OÑATI

Ikastaroez gain, hitzaldi batek eta dokumental emanaldi batek osatuko dute Jabetze Eskolaren udazkeneko egitaraua. Helburua da emakumeen ahalduntze prozesuan eragin eta topagune izatea. "Bestela elkartzeko ez ziren emakumeak elkartzeko tokia izatea eta poliki-poliki emakumeen ahalduntzean eragitea, errealitatea ikuspegi feminista batetik aztertuz eta errealitatea aldatzeko tresnak eskainiaz", adierazi du Berdintasun zinegotziak, Leire Zumaldek.

Izen-ematea

Elkarren artean ezberdinak diren ikastaroak antolatu dituzte, tartean emozioen ingurukoa edo eskaladakoa, baina denetan, zeharka bada ere, landuko da emakumeen ahalduntzea. "Eskaladara datorrena, esaterako, eskaladan hasteko edo sakontzeko helburuarekin etorriko da, baina ikastaro horietan ere ahalduntzeak bere presentzia izango du", zehaztu du Nerea Zubia zinegotziak.

Udazkenean dira ikastaroak eta izen-ematea tailerrak hasi baino astebe lehenago egin

behar da. Udaletxean eskuorria beteta eman daiteke izena, edo udal webgunean sartuta. Hitzaldia pentsioen ingurukoa da azaroaren 21ean eta dokumentala, emakume musulmanen buruzkoa, azaroaren 22an.

Ikastaroak

Zure emozioez jabetu

- Urriaren 23an hasita (hamabi ordu, 10 euro)

Elektrizitatea

- Urriaren 22an hasita (20 ordu, 10 euro)

Dantza eta perkusio afrikarrak

- Urriaren 30ean hasita (20 ordu, 10 euro)

Eskalada

- Azaroak 10ean hasita (18 ordu, 10 euro)

Autodefentsa feminista

- Azaroaren 15ean hasita (3-4 ordu, 5 euro)

'Go!azen' ikusteko sarrerak domekan banatuko dituzte

Go!azen telebista saioko denboraldi berriaren aurrestrenaldia azaroaren 4an egingo dute, gaztelekuan. Bi emanaldi egongo dira, aurreko urteetan bezala: 16:30ean lehenengoa eta 18:30ean bigarrena. Doan izango dira biak, baina sarrera aurrez hartu beharko da, edukiera kontuengatik. Sarrerak igandean, urriak 28, hasiko dira banatzen, 17:00etan, gaztelekuan bertan.

Go!azen 5.0 antzerkia, berriz, abenduaren 9an izango da. Bi emanaldi egongo dira orduan ere, ohiko orduetan, 16:30ean eta 18:30ean. Emanaldi horietako sarrerak, baina, datozen asteetan hasiko dira banatzen.

'Bertakoak' TAO txartela berritzeko epea zabalik dago

Aparkalekuen errotazio sisteman Bertakoak duten txartela 2019rako berriztatze epea zabalik dago. Datorren urteko alta edo bajak udaletxean jakinarazi behar dira eskaera orria beteta.

Guztira, 151 dira bertakoentzat gordetako aparkalekuetan autoa uzteko txartela duten herritarrak. Bidebarrieta kale inguruan daude gehienak; baita Aita Mortara eta Aita Madina kaleetan ere. Baimendutako ibilgailuak eta jabeen berri ematen duten zerrendak udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren webgunean jarri dituzte eta txartela ezeztatu edo berria egiteko epea zabalik dago. Azaroaren 13a da tramitazioarako azken eguna.

EUSKARALDIA

Kantuan egingo dute bihar, Euskaraldiagatik

Oñatiko Euskaraldiko Batzordeko kideak bisitak egiten ari dira establezimenduetara, dendariak eta tabernariak ekimenean parte hartzera animatzeko. Euskaraldiarekin bat egiten dutenei identifikagarri bat banatuko zaie

Goiena komunitatea

Euskaraldia Oñatin

OÑATI

Azaroaren 23a, Euskaraldia martxan jarriko den eguna, gero eta gertuago dagoela aintzat hartuta, Oñatiko Euskaraldiko batzordea buru-belarri dabil lanean. Zapatuan, esaterako, Oñati Kantuan ekitaldia egingo dute, 12:00etan, Foruen plazan, *ahobizi*-ekin eta *belarriprest*-ekin batera. Ekitaldian egongo dira Ganbara eta Hotz abesbatzetako kideak, baita Oñatiko abesbatzakoak eta Parrokiako eta Pake Lekuko koruetakoak ere. Musika eskolako musikariek eta dantzariak ere egin dute bat Oñati Kantuan-ekin.

Bertan abestuko diren kantuekin osatutako liburuxka bat atara dute. Besteak beste, *Xal-badorren heriotzean*, *Iturengo arotza* eta *Guk euskaraz* abesti ezagunak kantatuko dituzte. Ekitaldiari bukaera emateko, gainera, musika eskolako ikasleek Pirritx eta Porrotxen *Ahobizi*, *belarriak prest!* kantua dantzatuko dute.

Establezimenduetara bisitak

Dendariak eta tabernariak eragile handiak direla kontuan



Euskaraldian parte hartzeko dei egiten du plazako kartelak. EUSKARALDIA OÑATIN

hartuta, Oñatiko Euskaraldiko Batzordekoak herriko establezimenduetara bisitak egiten ari dira egunotan, denda, taberna eta entitateek ere Euskaraldia sustatu dezaten. Parte hartzea erabakitzen dutenei, identifikagarri bat banatuko zaie; modu horretan, bezeroek jakingo dute bertan *ahobizi*-ak eta *belarriprest*-ak daudela.

Dena den, batzordekoak establezimendu guztietara ezingo direnez heldu, Euskaraldian

parte hartu gura duten saltoki eta tabernei dei egiten zaie mezu bat bidaltzeko onati@euskaraldia.eus helbidera. Horiei ere banatuko zaie Euskaraldiaren ikurra, eta batzordeko kideen bisita jasoko dute, ekimenak iraun bitartean, *ahobizi*-ek eta *belarriprest*-ek nolako jokaera izan behar duten azaltzeko.

Ekimenarekin online egin daiteke bat, edo udaletxean, kultura etxean eta ikastetxeetan daude eskuorriak beteta.

Neguko arropen beharra dutela egin du dei Hermansaloñak

Bilduta zutena banatu dute, eta txamarra, oinetako, lozaku eta manta gehiago jasotzeko premia dute

Oihana Elortza OÑATI

Caritas elkartearekin zuzeneko harremana du Hermansaloña elkarteak, eta hara bideratzen du jasotzen duen materialaren zatirik handiena. Azkenaldian, baina, Bilboko Karmela elkarteari oinetakoak, jertseak eta txamarrak eman dizkio beharra zutenen artean banatzeko eta Oñatiko CEAR taldeko kideen bitartez mantak eraman dituzte Oñatiko zentrorra.

Lokalean pilatutako stocka nabarmen jaitsi da, neguko arroparen beharra dute eta hori jasotzeko dei egin dute. Txamarrak, oinetakoak, lozakuak, toalla handiak eta jantzi polarrak jaso gura dituzte. Batez ere, gizonendako eta gazteendako. Patineteak eta baloiak ere hartuko lituzkete. Elkarteak kale Zaharrean duen egoitzara eraman behar dira.



Kale Zaharrean dago lokala. M.U.

Bestalde, elkartasunari begira, gaur, egubakoitza, beste elkartasun afari bat egingo dute. Herriko misio taldeak antolatutakoa izango da hori ere eta jasotako dirua Maliko proiektura bideratuko dute. Afaria izango da Bidaurretan, 20:00etan.

Azaroaren 25a nola ospatu pentsatzeko bilera astelehenean

Emakumearen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta horren bueltan zein ekintza egin pentsatzeko bilera egingo dute astelehenean. Oñatiko Bilgune Feministak deitu du bilera eta urriaren 29an izango da, 18:30ean, kultura etxeko azken solairuko gelan. Emakume guztiendako bilera irekia da.

OHARRAK

Lezesarri kofradia

Urteko batzarra egingo du Lezesarri kofradiak domekan, 11:45ean, San Esteban ermitan.

Su-detektagailuak

Asteazkenean, urriak 31, amaituko da etxe partikularretan Udalak su detektagailuak jartzeko eskaera epea. Gizarte Zerbitzuetan eskatu behar da.

HARMAILATIK

GOIENA TELEBISTA, OÑATI-ARRASATE HERRI LASTERKETA
URRIAREN 29AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
XABIER URZELAI KIROL KAZETARIAK AURKEZTUTA

goiena
Zu hemen zaude.





Zazpi txirrindularik osatzen dute aurtengo denboraldiko Arrikruz Oñatiko Kobak taldea. MAIALEN REGUEIRO

Denboraldi berrian ere lokatzen ibiltzeko gertu

Zazpi txirrindularik osatzen dute 2018-19 denboraldiko Arrikruz Oñatiko Kobak taldea ziklo-kros denboraldi berriari begira, lau kadetek eta hiru gaztek. Guztiek abenduaren 16a dute gorriz markaturik egutegian: Oñatin jokatu den lasterketa

Jokin Etxebarria OÑATI

Ziklo-kros denboraldia hasi da dagoeneko eta Arrikruz Oñatiko Kobak taldeak aurtengo denboraldirako izango dituen txirrindulariak aurkeztu ditu. Bakarka hasi dira ziklista batzuk lehiatzen, baina talde moduan, lehen aldiz, domekan, hilaren 28an, jardungo dute, Elorrioren.

Zazpi txirrindularik osatzen dute denboraldi berriari begira taldea. Horietatik lau, kadetek dira: Aitor Altube, Xabat Castaños, Aimar Madina eta Aimar Erostarbe; beste hirurak gazte mailan arituko dira: Ander Blazquez, Unai Cueva eta Aritz Torres; eta guztiak zuzentzen lau lagun: Iker Arkauz, Xabi Aiastui, Julen Arkauz eta Josu Alberdi.

Lehen garaipena, poltsikoan

Errege egunera arte iraungo du euskal ziklo-kros egutegiak, eta bitarte horretan 15 proba jokatuko dira, guztira, baina herriko ziklistek ez dute denetan parte hartuko. "Normalean,

horren gazte diren txirrindularietan, ziklo-kros denboraldia errepidekoa prestatzeko erabili ohi da, eta, proba guztietara joango bagina, denboraldia oso luze egingo litzaieke gazte hauei", dio Iker Arkauz entrenatzaileak. Horregatik, asteburu berean bi proba izaten direnean, bakarra aukeratuko dute talde moduan joateko. Hala ere, ziklistaren batek bere kabuz bitara joatea ere izango du.

Denboraldia hasita dago jada, urriaren 12an Urduñan jokatu baitzen lehen proba, eta hasi bezain laster iritsi da lehen garaipena Arrikruzeko mutilendako: kadete mailan Aimar Erostarbek amaitu zuen lehen postuan Bizkaiko hirian.

AIMAR EROSTARBEK DENBORALDIKO LEHEN GARAIPENA LORTU ZUEN URDUÑAN URRIAREN 12AN

Lokatzen artean edo zirkuitu lehorrean, lehen postuetan ibiltzeko helburuarekin edo horren helburu handirik gabe, guztiek ere bizikleta gainean disfrutatzeko eta ikasten jarraitzeko gogoz eta asmoz ekingo diote denboraldi-aurreari.

Abenduaren 16an Oñatin

Garrantzitsua izaten da ziklo-kros taldea duen –eta, batez ere, gazte mailan lehiatzen diren txirrindulariekin osatuta bada– herri batean egutegiko proba bat aurrera atera ahal izatea. Arkauzek ere horrela pentsatzen du: "Modu honetara, herrian kirol hau nolakoa den erakutsi daiteke, eta familiakoak, lagunak, eta abar inguruan daudenean, txirrindulariek beraiek ere gehiago disfrutatzen dute lehiatzeko orduan".

Argi dago, beraz, egutegian gorriz markatutako eguna dela abenduaren 16koa Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko txirrindularientzat.



Brontzezko bi domina Euskadiko txapelketan ALOÑA MENDI

Brontzezko bi domina lortu dituzte Euskadiko Txapelketan

Karmele Egañak eta Mikel Juradok hirugarren postuan amaitu zuten, junior mailan

Jokin Etxebarria OÑATI

Pasa den asteburuan Euskadiko Karate Txapelketa jokatu zen, Donostiako Antonio Elorza belodromoan, kadete, junior eta 21 urtez azpiko kategorietan, eta bertan, emaitza oso onak lortu zituzten Aloña Mendiko karatekek.

Junior mailan, kumite modalitatean bi brontzezko domina eskuratu zituzten oñatiarrek. Juniorretan, nesketan, 59 kilotik gorako mailan, Karmele Egañak eraman zuen domina. Hilabete bikaina izaten ari da Egañarentzat, Gipuzkoako txapeldun iza-

tea ere lortu baitzuen, Hondarribian.

Beste horrenbeste esan daiteke Mikel Juradoren inguruan. Oñatiarrak bigarren amaitu zuen Gipuzkoako Txapelketan, 55 kilo azpiko mailan, eta Euskadikoan hirugarren.

Espainiako Txapelketa

Ponferradan izango da Espainiako Txapelketa azaro amaieran. Euskadiko Selekzioarekin zeintzuk joango diren ikusteke dago oraindik, baina Aloña Mendikoek eman duten mailarekin bertan izateko aukera eduki dezakete.

Antzuolaren kontrako derbia Eztalan, zapatuan, 16:30ean

Lazkaori irabazi eta gero, hirugarren postura egin du salto Aloña Mendik. Denboraldi hasiera txukuna egiten ari dira Endika Ruizen mutilak, partidu bakarra galdu baitute. Bolada onarekin jarraitzeko asmoz egingo dute salto Antzuolako Eztala futbol zelaira.

Antzuolarrek kolpe latza izan zuten aurreko astean, Anaitasunaren zelaian lau eta bat galdu baitzuten, eta, beraz, mendu bila atera nahiko dute. Egiari zor, denboraldia hasi besterik ez da egin eta bi taldeen artean hiru puntuko alde besterik ez dago. Horregatik, eta derbiek ere berezkoa dutelako, partidu parekatua espero da.

Bostetik bost lortuta, seigarrenaren bila Mekalki Aloña Mendi

Amestutako denboraldi hasiera izan du Mekalki Aloña Mendik: bost neurketa jokatu, beste horrenbeste garaipen lortu ditu, liderra da sailkapenean, galdu gabe dagoen talde bakarra da, eta, hori gutxi balitz, puntu gehien sartzen duen taldea da Aitor Ugartek zuzentzen duena.

Bost jarraian eskuratuta, seigarrena ere nahi du Mekalkik, baina ez da erraza izango. Bosteko Iraul hiruugarren sailkatuaren kantuan jokatu du zapatu arratsaldean. Donostiarrak urteak daramatzate Gipuzkoako seniorreko Lehen Mailan jokatzeko, jokalariek beterranoak dira gehienak eta goi postuetan ibiltzera ohituta daude.



Iazko Trikiti Jaialdian, Josu eta Jagoba Uranga, Maitane Unanue eta Maitane Basurto. GOIENA

X. Oñatiko Trikiti Jaialdia ospatuko da zapatuan

Bihar, urriak 27, X. Oñatiko Trikiti Jaialdia ospatuko da Santa Ana antzokian, 17:30ean. Zazpi trikiti talderen doinuez gozatzeko aukera izango da bertan eta ekitaldiaren ondoren afaria egingo dute gaztelekuan

Amaia Zabala OÑATI

Zapatu honetan, urriak 27, trikitizaleek hitzordu garrantzitsua dute Oñatin, X. Oñatiko Trikiti Jaialdia ospatuko baita Santa Ana antzokian, 17:30ean, Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta.

Aurtengoa hamargarren edizioa izango da eta zazpi trikiti taldek hartuko dute parte emanaldian. Garazi Billar Lizargarate Elkarte kide eta antolatzaileak jakinarazi duenez, guztiak aurreko urteetako edizioetan parte hartutako musikariak izango dira, eta, hamargarren edizio honetan, urte hauetan guztietan trikitiaren alde eginiko lana eskertu eta omenaldi moduko bat egin nahi zaie. Bestalde, Billarrek gaineratu du hamargarren urtea izanik jaialdi berezia antolatu dutela eta sorpresa ugari izango direla.

Ordu eta erdi inguruko emanaldia izango da eta Euskal Herri osotik etorriko dira trikitizaleak. Sarrerak 12 euro balio

Trikiti jaialdiko partaideak

Zazpi trikiti talderen doinuez gozatzeko aukera izango da.

- Dorronsoro, Arakama eta Larreburu.
- Alaitz, Maixa Kristina eta Amaia.
- Mirari, Zalao, Aintzane eta Ander.
- Xabi, Edurne, Ainara eta Oihana.
- Izer aita-sumeak, Lutxur eta Epelde.
- Gari, Iñaki, Iban eta Iker.
- Maddi, Ane eta Irati.

du, baina dagoeneko agortu dira guztiak, antolatzaileek jakinarazi dutenez. 267 saldu dituzte eta oso gustura agortu dira; azpimarratu dute, gainera, adin guztietako jendea bilduko dela bertan.

Afaria gaztelekuan

Trikiti Jaialdiaren ondoren, afaria egingo dute gaztelekuan. Sarrerak Arrano tabernan egon dira salgai 12 eurotan, baina horiek ere agortu dira dagoeneko; Garazi Billar antolatzaileak jakinarazi duenez, 144 lagun dira biltzekoak bertan.

Lizargarate Trikitizale Elkarte

Herrian trikitizaleentzat elkarterik ez zegoela ikusita sortu zen elkarte, eta, geroztik, urtean bi ekitaldi nagusi antolatzen dituzte: zapatu honetan ospatuko den Trikiti Jaialdia eta abuztuko azken igandeetan Lizargaraten ospatzen duten egun oso egitaraua, erromeriak giro-tuta.



Los Tiki Phantoms taldea. WIKIMEDIA COMMONS

Los Tiki Phantoms taldeak joko du domekan gaztelekuan

Igande honetan hasita, gaztelekuak "kutsu ezberdina" duten kontzertuak eskainiko ditu, igandero, 12:30ean

Amaia Zabala OÑATI

Igande honetan, urriak 28, Los Tiki Phantoms musika talde katalanaren kontzertua izango da gaztelekuan.

Rock-and-roll eta surf-rock estiloko musika emanaldia izango da eta sarrerak 5 euroren truke eskura daitezke egunean bertan gaztelekuko leihatilan.

Kontzertuak igandero

Igande honetako lehena izango da. baina hemendik aurrera igande eguerdiro izango da kontzerturen bat gaztelekuan. Kontzertuak 12:30etik 14:00etara

bitarte izango dira eta Jon Lopez gaztelekuko arduradunak jakinarazi du "kutsu ezberdina" duten musika taldeak izango direla, eta ez larunbat gauetan izan ohi direnak edo estilo komertziala dutenak. Gaineratu du ekimen honekin herritar guztiengana iritsi nahi dutela, sarritan adin batetik aurrera larunbat gauetako kontzertuetara joan ahal izatea zaila egiten delako.

Igandeez gain, larunbat iluntzeetan ere kontzertuak antolatzen jarraituko dutela gaineratu du Lopezek.



TXOMIN MADINA

Artze gogoan Goiko Bentan

Pasa den ostiralean, urriak 19, Joxan Artze idazle eta kultur sustatzaile usurbildarra omendu zuten Goiko Bentan, eta poetaren zale ugari bildu ziren. Musikaz lagunduriko zuzeneko poesia errezitaldiak entzuteko aukera izan zen Mixel Ducauren eta Andoni Salameroren eskutik. Artzek oso kuttuna zuen Goiko Benta eta sarritan hartzen zuen ostatu bertan.

"Oñati-Arrasate proba azkarragoa izango da"

YERAI VARELA ATLETA

ATLETISMOA Atletismoa alboratuta izan badu ere, Arrasate-Oñati hainbatetan irabazi duen oñatiarra irteera puntuan egongo da bihar: "Proba honek asko eman dit"

Xabier Urzelai ARRASATE

Yeray Varela (1987) aitarekin batera izango da zapatuko Oñati-Arrasate lasterketako irteera puntuan: "Harro egoteko moduko kontua da antolatzaile talde batek lasterketa utzi, eta erreleboa hartzeko beste talde bat dagoela ikustea". Hala, 2016 amaieratik atletismotik urrunduta ibili den oñatiarrari harra sartu zaio ostera ere: "Azken hilabete honetan astean bitan korrika egiten hasi naiz, eta gozatzen nabil berriro ere, nahiz eta lehengo erritmoetatik urrun nagoen".

2016 amaieran atletismoa uztea erabaki zenuen, neka-neka eginda [2016an Espainiako 3.000 metro-tako lasterketan izan zen, estatuko 15 korrikalari onenen artean egon zen].

Bai. Nekatuta amaitu nuen eta ez nuen halakorik gura, atletismoa zaletasuna da eta. Goizetan eskolak izaten nituen, arratsaldeetan lana, eta iluntzeetan gogor entrenatu behar izaten nuen, egun horretarako aurreikusita nuen lan espezifikoak bete behar nuelako. Ez nuen atletismoa gorrotatu gura, eta, 2016ko San Silvestre proban, denbora batez agur esatea erabaki nuen. Gaixo nengoelako ezin izan nuen lasterketa hartan parte hartu.



Yeray Varela, Oñatiko helmuga gurutzatzen, 2016an. IMANOL SORIANO

Zer aldatu da ordutik hona?

Egia esan, kasualitatez hasi naiz korrika berriro ere, iraila oso sasoi ederra delako aire librean entrenatzeko: eguraldi eta tenperatura ona... Oñati-Arrasate lasterketa prestatzen zebilen lagun batekin hasi nintzen korrika apur bat egiten, nik ez neukan parte hartzeko intenziorik, eta, azkenean, aitarekin batera izena eman dut. Egia esatearren, Arrasate-Oñati lasterketak asko eman dit, eta lasterketa horrekin zorretan nagoela uste dut.

Ez zaizu iruditzen urte eta erdi denbora asko dela atletismotik urrunduta egoteko?

Bai, baina ez naiz geldirik egon. Gimnasioan ibili naiz asko, bolumena eta pisua hartu dut, eta orain, *robocop* moduan egiten dut korrika [Barre]. Korrika egiteko daukadan moduagatik hanketako muskulu bikiek asko sufritzen dute. Baina oso gustura nabil, korrika egiteko gogoz, eta horrek balio du.

lazko Arrasate-Oñati ikusle moduan jarraitu zenuen, plazan jendea txalotzen. Inbidia pasako zenuen.

Ez pentsa, sekulako beroa egin zuen, eta, atletak zelaz zetozen ikusita, inbidia gutxi izan nuen [Barre].

Biharko lasterketak azken urteotako distantzia ia berbera izango du, baina erabat ezberdina izango da.

Ez du zerikusirik izango. Ikusteko dago aurrealdean ibiliko diren horiek zein mailatako atletak izango diren, baina, berez, biharko lasterketa azkarragoa izan beharko litzateke. Erreferentzia batzuk hartuak ditut, eta Oñatitik Elorregira aurreko taldekoak ziztu bizian joango dira, eta gero, Arrasatera egin beharreko igoera ez da horren luzea, hiru kilometro inguru izango dira. Lehen, zortzi kilometro egin behar izaten genituen aldapa gora.

"Aurrean ibiliko direnek", diozu. Ez duzu zeure burua borroka horretan ikusten?

Exijentzia maila hori ez daukat, behintzat. Gorputzak zelaz erantzuten duen ikusi gura dut, baina sufritzen nabilela ikusten dudana momentuan txipa aldatu eta lasterketaz gozatzen ahaleginduko naiz. Denbora luzea daramat lasterketetatik kanpo, eta ez dut lehengo sasoi. Aurrekoan, kapaz izan nintzen hamaika kilometroko distantzia kilometroa lau azpitik egiteko, eta poztu egin nintzen [2016an 3.000 metroko lasterketak 2.48ra egiten zituen, eta Arrasate-Oñati lasterketa 3.15 azpitik]. Baina denbora behar dut gorputza egokitzeko. Horregatik diot lasterketaz gozatu gura dudala.

Antxintxiketan taldekoak eta Arrasate Atletiko taldekoak laguntzen ibiliko dira aurrean, eta AEDk hartu du lasterketa antolatzeko ardura.

Eta hori harro egoteko modukoa dela uste dut, talde batek nahikoa dela erabaki duenean beste

Lasterketa biziberritzera

Azken urteotan Debagoieneko herri lasterketa ezagunenetan behar akada izan da parte-hartzaileei dagokienez. Eguraldiak halako hitzorduak izugarri baldintzatzen ditu, baina aukeran lasterketa asko daudelako edo korrikalari asko mendiko lasterketetan hasi direlako, behar akada gertatu da. 2013an ia 350 lagun batu ziren irteera puntuan eta iaz 178 izan ziren. Gaur, hilak 26, gaurdira arte *Herrikrosa.eus* atarian eman daiteke izena.

talde bat erreleboa hartzeko gauza izan delako; hori baloratzeak da. Lasterketa hau oso polita da, eta pena izango litzateke desagertzea.

Izen-ematea gaur, egubakoitza, gaurdian amaituko da -www.herrikrosa.eus-. Zelan animatu zalgintzan dauden horiek?

Lasterketa oso polita dela esanda, herri-lasterketetan egoten den saltsa egoten delako, xarma hori duelako. Aurrekoak azkar joango dira, baina bakoitzak bere erritmoan egiteko aukera izango du.

"LASTERKETAN IKUSI GURA DUT GORPUTZAK ZELAN ERANTZUTEN DUEN, BAINA EZ NAGO LEHENGO SASOIAN"

Garai, lau urtez Hiru Haundiak probako podiumaren bueltan

MENDI LASTERKETAK Oñatiko lasterkaria lehenengo hiru postuen artean sailkatu da 2014az geroztik

X.U. OÑATI

Bi urtean behin antolatzen duten mendi lasterketako podiumean izan da Jokin Garai 2014a ezkerro. Joan den zapatuko lasterketan ere faboritoen multzoan zegoen, eta Oñatikoak ez zuen

kalerik egin; hirugarren izan zen. Hori bai, bera baino puntu bat azkarragoak zirenek ere ez zuten kalerik egin, ez Javi Dominguezek (11.14.08), ezta Julen Martinez de Estibarizek ere (11.29.30). "Eurak ziren garaipen-

nerako hautagai nagusiak, eta ez dute hutsik egin. Huts horren zain egon naiz, baina ez dute kale egin", adierazi zion GOIENARI korrikalari oñatiarrak. Hala, hamaika ordu eta erdi pasatxo behar izan zituen Garaik lasterketaren 101 kilometroak betetzeko, eta pozik zegoen lortutako emaitzarekin: "Hirugarren postua oso ona da niretzat. Faboritoengandik horren gertu egoteak asko poztzen nau".

Tenperatura ona izan zuten, euri barik, baina behe-lainoa-



Garai, ezkerrean, zapatuan. FACEBOOK

rekin; mendian ibiltzeko, lagun txarra. "Laino trinkoa egon da. Ez genuen metro batera ikusten. Erorketa asko egon dira. Ni neu ere lauzpabost aldiz erori naiz, eta horrek zaildu egin du lasterketa".

Etxekoei eskerrak

"Etxekoak niri begira egon dira gau osoan. Emaztea, gurusoak, anaia... Edatekoarekin batzuk, eta animoak ematen besteak. Euren laguntza ezinbestekoa da halako proba baterako".

Bestelako taldea, eta bestelako erronkak

ESKUBALOIA Maila Nazionalera igotzeko borrokan ibiltzetik kategoriari eusteko borrokara pasa da Ford Mugarri Arrasate. Saillapeneko azken postuan daude, lau partidu jokatuta: "Ez da sorpresa izan, baina erronka polita izango da hau ere"

Xabier Urzelai ARRASATE

Herri mailako kirol taldeek ziklo ezberdinak bizi izaten dituzte. Lehen Territorial mailan urte askoan erreferente izan eta gero, Arrasateko taldeak Euskadiko Txapelketara igotzea lortu zuen, eta hor ere urte oso onak egin dituzte, hainbatetan Maila Nazionalera igotzeko borrokan egon diren arte.

Sei jokalarik jarraitzen dute

Zikloak, baina, aldakorrek dira, eta Ford Mugarri Arrasatekoak egokitzapen fasean murgilduta daude, Josu Herrero kapitainak azpimarratu duenez: "Duela hilabete gutxi jokatu genuen igotze faseko taldetik sei jokalarik baino ez dugu jarraitzen, eta horietako bi atezainak dira".

Asier Valle, Iñigo Salterain, Mikel Teran, Luis Bel Jimenez, Iker Zubiaurre eta Josu Herrero dira jokalariek: "Orain arte bigarren taldean egin diren jokalariekin osatu dugu taldea, eta horiek bi kategoriako saltoa egin behar izan dute, baina joango gara neurria hartzen. Niretako, pozgarria da entrenatzailer moduan izan ditudan jokalariek gazteekin jokatzeko. Bai, denok gura izaten dugu aurreko postuengatik borrokan ibili, baina erronka hau ere polita da, eta,



Herrero, iaz, Donibaneren kontrako partiduan. GOIENA

"IAZKO TALDETIK SEI JOKALARI GERATZEN GARA, ETA JOKALARI GAZTEEKIN OSATU DUGU TALDEA"

eskubaloia gustuko dugunez, orain ere gozatu egiten dugu".

Emitza positibo baten bila

Saillapeneko zenbaki hotzek ez dute beti taldearen benetako egoera erakusten, ez dira errea-

litatearen erakusle: "Lau partidu jokatu eta laurak galdu ditugu, hori horrela da. Baina ni pozik nago, taldea partidu guztietan lehiakorra izan delako. Esperientzia falta zaigu, eta akats txikien ondorioz joan zaigu partiduren bat edo beste".

Hala, asteburuko kontrario Txikipolit talde zarautzara ez da egoerari buelta ematen hasiteko kontrario proposena: "Uf, partidu gogorra izango da [domeka, 12:00, Iturripe], iaztik taldea ez da askorik aldatu eta onak dira eskubaloian".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA

Mondra-Beti Gazte

Zapatua. 16:30. Mojate.

Oiartzun-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Oiartzun.

Hondarribia-Bergara

Zapatua. 11:30. Hondar.

ERREGIONAL PREFERE.

Beasain-Mondra

Zapatua. 17:00. Loinaz.

Antzuola-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Estala.

Aretxabaleta-Ikazberri

Domeka. 16:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

Bergara-Eibar

Zapatua. 17:30. Ipintza.

Leintz Ariz.-Lagun O.

Domeka. 12:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Eibartar.

Zapatua. 18:00. Oñati.

Urola-Arizmendi

Zapatua. 16:00. Zumar.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate-Soloarte

Zapatua. 17:30. Musako.

Eskoriatza-Labastida

Zapatua. 18:00. M.Muño.

Scorpio-Aretxabaleta

Zapatua. 16:45. Ermua.

OHOREZKO GAZTEAK

Logroño-Eskoriatza

Domeka. 12:00. Logroño.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ford Muga.-Txikipolit

Domeka. 12:00. Iturripe.

Fagor Indus.-Ereintza

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce BKE-Aritzba.

Zapatua. 17:45. Labega.

SASKIBALOIA

EBA

MU-La Flecha

Domeka. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Bosteko-Mekalki Aloña

Zapatua. 18:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara Soral.-Zarautz

Zapatua. 20:00. Labegara.

GIP. HIRUG. MAILA

Internaci.-Mekalki Aloña

Zapatua. 18:00. Donostia.

EMAKUMEZKOAK

Grupo Eme-Eskoriatza

Zapatua. 20:00. Erreterria.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Garabi-Kanpanzar ART

Zapatua. 19:00. Ordizia.

18 URTEZ AZPIKOAK

Kanpanzar ART-Rioja

Zapatua. 12:30. Mojategi.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKET

Aretxabaletan:

Egubakoitza, 18:00etan hasita zazpi partidu.

Oñatin:

Egubakoitza, 18:30ean hasita zazpi partidu.

Zapatuan, 16:00etan hasita hiru partidu.

Bergaran:

Egubakoitza, 19:30ean hasita hiru partidu.

Arrasaten:

Egubakoitza, 19:30ean hasita hiru partidu.

ATLETISMOA Antxintxika krosa azaroaren 3an egingo dute

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten Antxintxika Krosa, Mikel Crespo memoriala. Izena eman dutenen artean, azpimarratzekoa da iazko lasterkari azkarrenak irteera puntuan egongo direla, eta, oraingoz, emakumezkoen parte-hartzea %30ekoa izango dela. *Kirolprobak.com* webgunean egin daiteke izen-ematea. Euro bana Aspacera bideratuko dute.



Korrikalariak helmugan. GOIENA

Fagor Industrial, bigarren postuan

Oñatiko eskubaloia taldea bestelako egoeran dago, eta aurreko postuetan egongo den itxura osoa du, ligako lehen hiru partiduetan lortu dutena ikusita. Jokatutako hiru partiduak irabaztearekin batera, lehenengoz hartu dute mendean Basauri talde indartsua. Bihar, 18:00etan, Zubikoa, Ereintzaren kontra jokatuko dute.



Basauriren kontrako garaipenaren une bat. GOIENA

FUTBOLA Mondrak Beti Gazte hartuko du zapatuan Mojategin

Añoargaren zelaian lortutako garaipenari esker bosgarren posturaino salto egin duen Mondrak Beti Gazteren kontra jokatuko du bihar Mojategin (16:30). Bergarak eta Aretxabaletak kanpoan jokatuko dute. Mahoneroek zapatu goizean Hondarribian (11:30) eta Oiartzunen jokatuko du arnasa hartzen hasi den Aretxabaletak (16:30).

SQUASHA Etzi, Debagoieneko txapelketa Musakolan

Arrasateko AKE Squash Taldeak antolatuta, txapelketa egingo dute domekan Musakolako kirol instalazioetan. Txapelketa 09:30etik 13:30era bitartean jokatuko dute, eta ez da beharrezkoa izango federatuta egotea. Gizonezkoak eta emakumezkoak izango dira txapelketan -18 urtetik gorakoak- eta ondoren sari banaketa ekitaldia izango da.

Lope de Agirrerri buruzko filma, domekan ikusgai

Filmean parte hartu dutenen aurrean egingo dute aurrestreinaldia bihar, zapatua, Antixena gaztetxean, eta etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan eta 18:30ean publiko guztiarentzako eskainiko dute; 16:00etan banatuko dituzte gonbidapenak

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Orain arte, film laburrak egin izan ditu Oñatiko LPM taldeak. Herriko film laburren rallyan parte hartzeko elkartu ziren orain dela zazpi urte, eta dagoeneko hamabost lan aurkeztu dituzte askotariko lehiaketetan –Oñatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Durangoko Azokan, Lekeitio...–. Laburra egitea zen oraingoan ere asmoa, baina 40 minutura iritsi da *Lope* filma.

Oñatiren independentzia berreskuratzeko asmoz, 2019ko udal hauteskundeetan atarian, Lope Agirre Hego Amerikako esploratzaile eta konkistatzailea jaioterrira itzuliko da, eta Marañoen taldea eratuko du. "Gure herrikide Lope de Agirrek 1561ean *El Dorado* espedizioan bizitako abenturak gogora ekarriko ditu filmak, eta baita Espainiako Felipe erregeari idatzion eskutitza ere. Pasarte historikoak oinarri hartuta, fikziozko pelikula zoro bat egin dugu. Pertsonaia guztiak, Lope izan ezik, asmatutakoak dira", azaldu dute LPM taldekoek.

Taldean, gustura lanean

Anjel Lerak idatzi zuen gidoia eta hark zuzendu eta muntatu du, baina, guztira, 100 lagun izan dira elkarlanean –70 an-



Lope filmaren grabazioaren une bat. BERNAT ALBERDI

tzele eta 20 lagunetik gora arlo teknikoan-. "LPM taldearen helburu nagusia lagunartean ondo pasatzea izan da beti, istorio dibertigarriak sortzea, autozentsurarik gabe eta kontaktzen dugun istorioari alde teknikoari baino garrantzi handiagoa emanda. Oraingoan, lan luzeago batean murgildu garen arren, LPM taldearen oinarriko esentzia mantentzen saiatu gara: istorio dibertigarria, pikantea eta zentsura gabekoa egiten", dio zuzendariak, eta zera gaineratu du protagonista-

ren azalean sartu den Ibai Elortzak: "Istorioan umoreak bere tokia du, eta garrantzitsua da hori. Grabaketetan aparteko giroa izan da, oso ona, eta horrek asko lagundu dit nik egin beharrekoetan. Jende oso jatorra ezagutzeko aukera izan dut, lantalde bikaina dago atzean. Era honetako proiektuak aurrera ateratzea ahalbidetzen duten jendearen ahalegina eskertu gurako nuke; izan ere, kamera aurrean ikusiko ez den lan asko egin duten lagunengatik ez balitz, ezingo zen *Lope* filma egin".

Hipolito eta 'Xolonpo' gogoan

Urtarrilean idatzi zuen Lerak gidoia, eta segidan hasi zen lantalde artistikoa eta teknikoa osatzen eta behar zen azpiegitura guztia lortzen, eta udan egin zituzten, gero, grabaketak. "Hasieratik erabaki genuen bi asteburutan grabatzea. Gaztetxea izan da gure operazio-zentroa".

Zuzendariak gaineratu du aktoreek antzeztutakoez gainera, herriko hiru marrazkilarik egindako irudiak ere txertatu dituztela filmean: "Aitor Bolinaga *Boli*, Hibai Garai eta *Ian Nose* marrazkilariek kolaboratu dute. Garairen marrazkiak berak egindako moduan sartu ditugu, baina beste biek egindakoei, animaziozko mugimendua eman diegu; Eñaut Uribesalgok egin du lan hori".

Irudi arloan eta bestelakoetan ere, herrikoak dira kide gehienak: "Zerrenda luzea da. Soinu banda, adibidez, Ander Zelaiak eta Unai Murgiondok sortu dute, Fiachras talde ezagunarekin elkarlanean. Horiez gainera, soinu taldean Iñaki Zubia, Imanol Astudillo, Tommaso Galati eta Iñigo Palacios izan dira. Kamera arloan, berriz, Kepa Aranburu, Xanti Ugarte eta Mikel Maiztegi –azken hori dro-nearekin-. Atrezzo eta jantziekin, Ander Ugarte, Ane Pico, Mikel Intxausti eta Mirari Sagarzazu izan ditugu taldean. Pantailaren aurrean ere, aurpegi asko, paper nagusietan, Ibai Elortza, Ainhoa Igartzabal, Xabier Urbina eta Iñigo Madina. Aipatutakoez gainera, dagoeneko gurekin ez dauden Patxi Hipolito eta *Xolonpo* gura nituzke aipatu, biek ala biek sorrarazi zidaten Lope de Agirre pertsonaiari buruzko interesa, eta, horregatik, eurei eskaini diegu *Lope*".



IBAI ELORTZA

"Zuen zoro famarengatik, mugarik ez"

IBAI ELORTZA

'LOPE'

Eskarmentua du Elortzak film laburretan; oraingoan, Lope de Agirre zenaren azalean sartu da.

Gustura emaitzarekin?

Bai, oso. Hasieran, paper protagonista izateak beldur pittin bat eman zidan; ez naiz damutzen, baina, onartu izanaz.

Loperen azalean zelan sentitu zara?

Oso gustura. Lopek zuen zoro fama horrek edozer gauza egiteko lizentzia ematen du; beraz, ez da limiterik egon ezer egiteko.

Zer eman dizu lan hori egiteak?

Zailtasun handienak gidoiarekin eduki ditut. Ez da ikastea bakarrik; gero, kronologikoki ordena diferentean grabatzen da, zati asko behin da berriz... Aurretik, antzerki baten izan nintzen Lope; hortaz, ez zen ezezaguna niretzat.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

IHOLDI BERISTAIN, AKTOREA ETA MUSIKARIA

XABIER PAYAK ELKARRIZKETATUTA

URRIAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ASIER ILLARRAMENDI, FUTBOL JOKALARIA

SARA GANDARAK ELKARRIZKETATUTA

URRIAREN 31N, EGUAZTENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Bederatzigarrenez, bihar, zapatua, txistuaren festa

Debagoieneko taldeetako kideez gainera, Soroluzeko eta Arabako hainbat herritako txistulariak eta danbolin-joleak batuko dira Aretxabaletan; eguna hasteko, kalejira, eta askotariko kantuekin osatutako alardea eskainiko dute eguerdian, Herriko Plazan

Aitor Agiriano ARETXABALETA

Orain dela urte asko, Haur Dantzarien Egunean eta bestelako jaietan edo ekitaldietan egiten zuten topo Debagoieneko txistulariek, eta elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko beharra zutela konturatu ziren; hori horrela, jakintza elkarbanatu eta txistularien mundua herritarrei zabaltzeko asmoz lanean jarri eta jaipeguna antolatu eta ospatzeari ekin zioten.

Jaialdi ibiltaria

Eskoriatzari lekukoa hartuta egingo dute biharkoa, Aretxabaletan. Berrogei txistulari elkartuko dira, denera, festa eguna ospatzeko: Eskoriatzatik sei lagun, Arrasatetik hamabi eta Oñatitik eta Soroluzetik txistulari bana gerturatuko dira anfitrioiekin bat egiteko. Ez dira, baina, denak debagoiendarrak izango. "Orain dela hiru, urte elkartrukea hasi genuen, besteak beste, Murgia eta Abetxukoen, eta, oraingoan ere, Arabatik zortzi gonbidatu izango ditugu", azaldu du Aretxabaletako taldeko Jokin Antxiak.

Egitarruari hasiera eman aurretik, goizeko bederatzietan batuko dira parte-hartzaile guztiak, entsegua egin eta azken prestaketak burutzeko.



laz Eskoriatzian egin zuten Debagoieneko Txistularien Eguna. IMANOL SORIANO

10:30ean emango diote egitaruari hasiera, dianarekin. Txistu eta danbolin doinuak kaleak girotu eta herria zeharkatu ondoren, 13:00etan, hamaiak kantu ezberdinez osatutako alardea egingo dute guztiek elkarrekin Herriko Plazan. "Ahalgin berezia egin dugu, aurten, eskainiko ditugun kantuak estilo ezberdinetako piezak izan daitezten. Talde bakoitzak bere kontura landu ditu aurrez", dio antolatzaile taldeko Antxiak.

Emanaldia osatuko duten kantuen artean, Oñatin jai eta

Aretxabaletan bizi eta musika arloan lan handia egin zuen Demetrio Iriarte musikariak konposatutako *Uratz-Alde, Erañatar Ramon* eta *Zorionak* izango dira entzungai. "Horiez gainera, *La gran evasión* filmeko martxa ere eskainiko dute; kasu horretan, tronpetajole bat eta bombardinajole bat izango dituzte lagun. Emanaldia borobiltzeko, *Don Martin* pasodoblea, *Lexa-rena* habanera, *Txurkoene* balsa eta dagoeneko erretiratuta dagoen Oskorri taldearen kantu ezagunak izango dira".

Dantza eta teknologia berriak uztartzen dituen ikuskizuna

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean, estreinatuko dute publiko guztiarentzako sortu duten 'Biopiracy' lana

A. Aranburuzabala ARARSATE

"Etorkizunari bidaia, gizakiaren eboluzioa, nora goazen" kontatzen du Gernikako dantzari eta koreografo Ziomara Hormaetxek gidatzen duen *Biopiracy* izena duen eta dantza eta teknologia

berriak uztartzen dituen ikuskizunak. "Gizakiarengan mutazio bat ikusten dut; hortaz, sentimenduen eta sentimenduen desagertzearen arteko borrokari buruzko kontakizuna egiten dugu. Orain arte egin ditudan

lanak bezala, honako hau ere oso lan bisuala da".

Taularen gainean hiru dantzari izango dira: Hormaetxek gainera, Gasteizko Aritz Lopez eta Bartzelonako Marc Lapuerta, baina horien atzean dagoen pantaila handia ere dantzari bilakatuko dutela dio koreografoak: "Eskarmentu handia duten Antonio Verak eta Paco Gramajek egindako bideo murgiltzearen eta bideo interaktiboaren bidez, ikuskizun bizia eta erraz ulertzekoa da eskainiko duguna".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!



SPC Heaven 10.1
tableta

Parte hartzeko sariaren izena:
Tableta



Berri Txarrak
Berri Txarrak taldearen eskutik,
Infrasoinuak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Berri Txarrak



Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko,
sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Otarrea
Bidezko merkataritzako
produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena"
[bazkidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen ordea egingo da zozketa.

Indarrez: (39) 151000 lagunen artean, jaiaren eguneko sari partzialak Goiena Klubeko 100000 lagunen artean automatikoki banatuko dira. Datoz bide horien helburuak dira indarrez banatzen diren lagunen gaitasuna hobetzea eta lagunen arteko harremanak sustatzea. Hala ere, sariak ez dira irabazteko. Hala ere, sariak ez dira irabazteko. Hala ere, sariak ez dira irabazteko.

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 klubo@goiena.eus

KLUBA Jateko
[bazkidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Plateruena Kafe Antzokiari esker

"Kokein eta Sirako" taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.

Durango | Plateruena Kafe Antzokia | Azaroaren Zati | 22:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "kontzerturako" [bazkidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen ordea egingo da zozketa.

Indarrez: (39) 151000 lagunen artean, jaiaren eguneko sari partzialak Goiena Klubeko 100000 lagunen artean automatikoki banatuko dira. Datoz bide horien helburuak dira indarrez banatzen diren lagunen gaitasuna hobetzea eta lagunen arteko harremanak sustatzea. Hala ere, sariak ez dira irabazteko. Hala ere, sariak ez dira irabazteko.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...




Bazkideku zaituzte: 2018 (urritik aurrera): 31€.
Deitu: 943 25 05 05. klubo@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazte, denak irabazte!

ESKER ONA

Maria Pilar Lonarbide Guridi



2018ko urriaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko urriaren 26an.

ESKER ONA

Jon Sarasketa Aranzeta



2018ko urriaren 12an hil zen, 59 urte zituela.

Lerro hauen bidez, Jonen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Eskerrik asko, Jon, izan zaren bezalakoia izan zarelako.

Elgetan, 2018ko urriaren 26an.

ESKER ONA

Irun Lacalle Zabala



2018ko urriaren 20an hil zen, 59 urte zituela.

Lerro hauen bidez Iruren senideek eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi. Bereziki eskertu gura genituzke Debagoieneko Ospitaleko langileak, gurekin izan duzuen arretagatik.

Ez zaitugu ahaztuko, beti gure bihotzetan. Maite zaitugu.

Aretxabaletan, 2018ko urriaren 26an.

URTEURRENA

Joseba Iñurrategi Iriarte



2017ko urriaren 26an hil zen, 72 urte zituela.

Urteurren meza domekan izango da, urriaren 28an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokiari.

Udazkena zeure gogoz dator eta gogo bera geure indar zeuk erakutsitako bidien jarraitetako, eskerrik asko emandako guztiagatik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2018ko urriaren 26an.

URTEURRENA

Kepa Jauregi Olabe



2014ko urriaren 28an hil zen.

Laugarren urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 28an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokiari.

Zein amets politta zurekin bizi izana orain hegan zoaz, Kepa maitea baina gurekin egongo zara ametsik ederrenean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2018ko urriaren 26an.

OROIGARRIA

Irun Lacalle Zabala



2018ko urriaren 20an hil zen, 59 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Copreciko lagunak. Aretxabaletan, 2018ko urriaren 26an.

- HILDAKOAK**
- Joseba Abarrategi Bidaburu.** Arrasaten, urriaren 10ean. 84 urte.
 - Mari Tere Basabe Gorrotxategi.** Arrasaten, 10ean. 75 urte.
 - Jose Ramon Agirre Jauregi.** Bergaran, 11n. 72 urte.
 - Roman Juaristi Gallastegi.** Arrasaten, 12an. 80 urte.
 - Basilisa Vazquez Saavedra.** Aretxabaletan, 12an. 85 urte.
 - Amelia Cabezas Medrano.** Aretxabaletan, 12an. 76 urte.
 - Ignacio Inza Duñabeitia.** Bergaran, urriaren 12an. 79 urte.
 - Jon Sarasketa Aranzeta.** Elgetan, urriaren 12an. 59 urte.
 - Esther Telleria Etxebarrieta.** Oñatin, urriaren 13an. 72 urte.
 - Jose Hilario Fuentes Portal.** Arrasaten, 13an. 75 urte.
 - Juana Vicuña Dorronsoro.** Oñatin, urriaren 14an. 93 urte.
 - Pilar Ugarte Madinabeitia.** Arrasaten, 14an. 88 urte.
 - Maria Pilar Lonarbide Guridi.** Bergaran, 16an. 92 urte.
 - Juana Gallastegi Elorza.** Oñatin, urriaren 16an. 88 urte.
 - Antonio Uribe-Etxeberria Kortabarria.** Bergaran, 16an. 92 urte.
 - Obdulia Martinez Riloba.** Arrasaten, urriaren 17an. 89 urte.
 - Tomas Berrueta Armendariz.** Bergaran, 17an. 81 urte.
 - Carlos Roberto Maiztegi Arabaolaza.** Oñatin, 17an. 85 urte.
 - Teresa Herguedas Velasco.** Arrasaten, 20an. 87 urte.
 - Irun Lacalle Zabala.** Aretxabaletan, 20an. 59 urte.
 - Teresa Aranguren Beitia.** Arrasaten, 22an. 85 urte.
 - Argimiro Justel Madrigal.** Aretxabaletan, 23an. 84 urte.
 - Maximiliana Hermoso Gil.** Bergaran, 23an. 100 urte.

MEZA

Kandida Loidi Astigarraga



(Karitateko Mesedetako)

Loidi Etxebarri baserriko alaba. Valladoliden hil da, 90 urte zituela, bizi guztia Jainkoaren eta gaixoen zerbitzuan emanda.

Bere oroimenez, meza izango da datorren domekan, urriaren 28an, 11:00etan, Angiozarko San Migel elizan.

Aldez aurretik eskerrik asko familiarekin bat egingo duzuen guztioi. Bergaran (Angiozar), 2018ko urriaren 26an.

OROIGARRIA

Carlos Roberto Maiztegi Arabaolaza



Goienako kolaboratzaile Patrizia Maiztegiaren aita. 2018ko urriaren 17an hil zen, 85 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea
Oñatin, 2018ko urriaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<p>ARRASATE EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 26 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65</p> <p>Zapatua, 27 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30</p> <p>Domeka, 28 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30</p> <p>Astelehena, 29 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15</p> <p>Martitzena, 30 M. FCA. AZKOAGA: Iturritzi 17 / 943 79 79 99</p> <p>Eguaztena, 31 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26</p> <p>Eguena, 1 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39</p>	<p>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2018ko abenduaren 31ra arte:</p> <p>IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39</p>
<p>BERGARA EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 26 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>Zapatua, 27 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Domeka, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Astelehena, 29 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>Martitzena, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p> <p>Eguaztena, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05</p> <p>Eguena, 1 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p>	<p>BERGARA GAUEZ EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>2018 osoan:</p> <p>MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p>
<p>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</p> <p>Egubakoitza, 26 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Zapatua, 27 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Domeka, 28 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Astelehena, 29 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Martitzena, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Eguaztena, 31 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p> <p>Eguena, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p>	<p>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</p> <p>GFZ Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.</p>

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK




1



2



3



4



5



6



7



8

1. Aloñako igeriketa sailekoak

Aloña Mendiko igeriketa sailekoek familia bazkaria egin zuten denboraldia hasteko. Entrenatzaileak ere egon ziren; tartean, *Artza* eta Josune Odriozola.

2. 25 urte ezkondu zirela

Aitor Zubia eta Marian Lopez de la Calle urriaren 10ean ezkondu ziren, Bolibarren, orain 25 urte. "Zorionak, familiaren partetik, eta ondo ibili bidaian!".

3. 50 urte elkarrekin

Luis Mari Gantxegik eta Pilar Altubek 50 urte bete zituzten ezkontuta urriaren 19an. "Zorionak eta urte askoan halaxe izan gaitzela, elkarrekin pozik bizitzeko!".

4. Jul Bolinagaren omenezko plaka

Txapada Erradikala jaialdiaren baitan, The Potes taldeak bere azken lana aurkeztu zuen, eta aurretik, Bolinagaren omenezko plaka ipini zuten gaztetxean.

5. Goienara bisita

Goienetxe Fundazioko Arrasateko egoiliarak Goienan egon dira asteon. Goiena telebista, Arrasate Irratia eta Goienako erredakzioa bisitatu dituzte.

6. Ikasturteko lehen irteera

Zaharberriko Mintzalagunak ikasturteko hogeit bat lagunek Aikur erle museora egin zuten irteera. Erleen bizimodua eta erlezaintza ezagutzeko aukera izan zuten.

7. Maxi Gomez eta jokalaria

Duela 47 urte Bergarako entrenatzaile izan zen Maxi Gomezekin futboleko ibilikoak elkartu ziren. Bi urtean behian egiten dute bazkaria eta talde argazkia.

8. Auzolana Olapoton

Errekaren Astearen baitan, Oñatiko hainbat lagunek Olapotoko anfibio putzua berreskuratzeko auzolana egin zuten. Ertzetako lurra kendu zuten.

9. Pol-Poleko beteranoak

Bergarako mendizale beteranoak Hecho inguruan ibili ziren urriaren 12ko zubian. Giro bikainarekin, gozatu ederra hartu zuten. Hurrengoia Otzaurte Araiara egingo dute.

10. 1951n jaiotakoak, Lekeition

Ziortzako monasterioa eta Santa Katalina itsasargia bisitatu zituzten. Ereñon bazkaldu zuten. "Primeran pasa genuen: leku politak, bazkari ona eta giro jatorra".



9




10

ZORION AGURRAK




ARRASATE
Saioa Bergarete Astigarraga
Urriaren 30ean, 7 urte.
Zorionak gure printzesari eta oso-oso ondo pasatu egune aitaxoren, amaxoren, aittitteren, amamaren eta, bereziki, Arrateren partetik.



ESKORIATZA
Eleder Garcia Hermosel
Urriaren 29an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Segi beti bezain jatorra izaten. Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu asko, etxeko danon partetik.



OÑATI
Paul Anduaga Arregi
Urriaren 29an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat, danon partetik.



ARRASATE
Malen Castillo
Urriaren 29an, 3 urte.
Zorionak, poxpolin, etxeko guztien partetik. Ongi pasatu eguna. Muxu handi bat.



OÑATI
Ander Odriozola Larrañaga
Urriaren 28an, 2 urte.
Zorionak, Ander! Patxo pila bat etxeko danon partetik eta oso ondo pasatu zure egunian!



ARETXABALETA
Maren Lazpiur Eraña
Urriaren 25ean.
Zorionak, Maren! 12 urte. Iritsi dira azkenean! Disfrutatu topera zure eguna, merezi duzu-eta. Patxo eta besarkada handi bat.



OÑATI
Maddi Elorza Soares
Urriaren 24an, 7 urte.
Zorionak, maittia! Muxu potolo-potolo bat, etxeko partetik. Ondo-ondo pasatu zure eguna!




ARRASATE
Nora Otxandiano Jausoro
Urriaren 24an, 12 urte.
Zorionak, Nora! Dozena horrek zelebrazio on bat merezi dau. Ederto pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARAMAIO
Maia eta June Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 6 urte. Zorionak gure bikote mundialari! Belarririk tirakada, besarkada handi bat eta edarto pasatu zuen egune!



ARRASATE
Aitor Canales Losa
Urriaren 23an, 9 urte.
Zorionak, Aitor! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
Ane Arrieta Sansinenea
Urriaren 23an, 5 urte.
Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxeko eta, batez ere, Oierren eta Eleneren partetik.



BERGARA
Aratz Maeztu Elkorobereibar
Urriaren 23an, 7 urte.
Zorionak, Aratz! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik! Bereziki Unax, Ander eta Irati.



ESKORIATZA / GASTEIZ
Paula Zubia Murugarren
Urriaren 22an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Familia osoaren partetik, muxu eta belarri tirakada handi bat. Zorionak!



OÑATI
Eñaut Arenaza Arriaran
Urriaren 22an, 5 urte.
Zorionak, Eñaut! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Amaiaur Beitia Urkia
Urriaren 22an, 4 urte.
Zorionak. Familia guztiaren maitasunez, muxu potolo bat.



ARRASATE
Urki Garitaonandia Uriarte
Urriaren 21ean, 13 urte.
Zorionak, txapeldun! Topera gozatu zure urtebetetzea. Mundiala zara.



ARRASATE
Ane Goya Urain
Urriaren 21ean, 11 urte.
Zorion bero-beroak, lagunen eta familiaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.





Innovation that excites

APROBETXATU WLTP ARAUDI BERRIA ETA LORTU NISSAN X-TRAIL BAT LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU! GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA Gamarrako Atea, 46 - 01013 Gazteiz - Tel. 945 26 25 01

Consumo mixto: 4,9 - 6,4 l/100 km. Emisiones de CO₂: 129 - 149 g/km. Consumo homologado de acuerdo con la normativa europea.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26

ELGETA Ipuinen ordu berezia
2-3 urtetik aurrerako umeendako, euskaraz eta debalde.
Liburutegian, 17:25ean.

ARRASATE Ludoteken ate irekiak

Euskal argitaletxeek ateratako mahai-jolasak probatzeko aukera izango dute 3-11 urte artekoek.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean.

ARRASATE 'Enaren kontuak' ikuskizun musikala

2 Princeses Barbudes taldekoen emanaldia, 3 urtetik gorakoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA Ipuin kontaketa haurrendako

Maite Francoren saioa, debalde.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Hilerokoaren misterioak'

Sexologia Zerbitzuko eskutik, 12-17 urte arteko neskendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:030ean.

OÑATI Elkartasun afaria

Batutako dirua Maliko proiektura bideratuko dute.
Bidaurretan, 20:00etan.

ESKORIATZA Bertso-saioa

Hankamotx bertso eskolaren eskutik, Haizea Arana, Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi eta Oihana Arana bertsotan. a
Zaldibarren, 22:00etan.

ARETXABALETA 'Tendríamos que haber empezado de otra manera' antzezlana

Helduendako emanaldia egingo du Javier Liñerak. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 22:00etan.

ZAPATUA 27

OÑATI Xake txapelketa

Suitzar erara eta sei itzulitara jokatuko da. Bandera jaitsi arte hamabost minutu izango dituzte.
Gazteleguan, 09:00etan.

LEINTZ GATZAGA Autodefentsa feminista tailerra

Gaur egingo dute lehenengo saioa. Bigarrena, abenduaren 1ean izango da. Arropa erosoak eramatea aholkatzen dute.
Kultura etxean, 10:00etan.

ESKORIATZA Gurutze Gorria ezagutzen

Erakundeak egiten duen lana ezagutzera emateko, jokoak eta jolasak.
Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

ARAMAIO Erretiratuen jaia

Kalejirarekin hasi eta bazkariarekin amaituko da eguna.
Aramaion, 10:30ean.

OÑATI 'Baimendu gabeko sexualitatea. Legeria eta justizia Gipuzkoan (XVI-XVII mendeak)' hitzaldia

Milagros Alvarezek egingo du berba. Irekia.
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, 11:00etan.

OÑATI Informazio-mahaia

Gaixotasun hematologikoari eta hezur-muinaren transplanteari buruzko informazioa emango da, Iturrigorri Elkarlan elkartearekin.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA 'Txanpon baten truke' ipuin kontaketa

Umeendako saioa, Amelirekin.
Arkupen, 11:30ean.

OÑATI Herrixa Kantuan

Ikasturteko lehen saioa, Jose de Azpiazua musika eskolak eta Txantxiku Ikastolak antolatuta.
Foruen plazan, 12:30ean.

BERGARA 'Welcome' txotxongilo emanaldia

Liñaki Mataren emanaldia, Txotxongilo Mostraren baitan.
Arrizuriaga parkean, 12:30ean.

ELGETA Kantu zahar bazkaria

Aitor Ibarra (tronpetaria), Francisco Santxotena (soinu-jotzailea) eta Angel Mariezkurrena (antolatzailea). Menua 35 euro da.
El Rincon de Lola tabernan, 14:00etan.

OÑATI Oñati-Arrasate herri lasterketa

34. lasterketa egingo dute, kontrako noranzkoan.
Foruen plazan, 17:00etan.

BERGARA Euskal Herriko bolo txapelketa

Bigarren jardunaldiari dagozkion partidak.
San Xosepe elkartearen, 17:00etan.

OÑATI Trikiti jaialdia

Zazpi taldek hartuko dute parte hamargarren jaialdian. Ostean, afaria egingo dute elkarrekin. Sarrerak, hamabi euro.
Santa Anan, 17:30ean.

ARRASATE 'Beldurrezko etxean' bisita gidatuak

Adin guztietako herritarrendako bisita misterioitsuak.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARRASATE 'Biopiracy' dantza ikuskizuna

Teknologia berri ezezagunak erabiliz, bidaia zirraragarri eta bisuala proposatzen duen emanaldia. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

DOMEKA 28

OÑATI Espeleotxiki

Pasarelaz kanpoko abentura, 6 urtetik gorakoendako.
Arrikrutzen, 10:00etan.

BERGARA TXISTULARI BANDA KALEJIRA EGINGO DUTE. BERGARAN, 11:00ETAN.

BERGARA 'Domeketan familia gozatzeko'

Familia osoarendako ekintzak eta jolasak.
Oxirondo ludotekan, 11:30ean.

OÑATI Lezesarri kofradiaren batzarra

Ostean, auzoan hildakoen aldeko meza egingo dute ermitan.
San Esteban ermitan, 11:45ean.

BERGARA Ekidazu Abesbatza

Lezamako taldearen kontzertua.
Seminarixoan, 12:30ean.



IMANOL SORIANO

ELGETA Erle Eguna

Erleak, erlezaintza eta ezti ekoizpena gaitzat hartuta, goizean azoka eta arratsaldean jardunaldi berezia egingo dute. Gainera, Debarroko erlezain elkarteak aurkeztuko dute.
Zapatuan, Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA Araba Txistu Bandaren emanaldia

Familiendako kontzertua.
Arkupen, 12:30ean.

OÑATI Los Tiki Phantoms taldea

Kontzertua egingo du. Sarrerak, bost euro.
Gazteleguan, 12:30ean.

OÑATI 'Lope' filmaren aurkezpen emanaldiak

Bi egingo dituzte: 17:00etan eta 18:30ean.
Santa Anan.

BERGARA Potx eta Lotx

Herriko festetan ikuskizuna eskainiko dute.
Osintxuko frontoian, 17:30ean.

ESKORIATZA Beldurrezko film laburrak

Arimen Gaua girotzeko ekintza egingo dute.
Gazteleguan, 17:30ean.

ARRASATE 'BELDURREZKO ETXEAN' BISITA GIDATUAK

Adin guztietako herritarrendako bisita misterioitsuak.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Ttak!'

bakarrizketa umoretsua
Euskaraldiaren harira, saioa egingo du Beatriz Elgezabal *clown* eta antzerkilariak. Hizkuntza ohiturei buruzko hausnarketa egingo du ikus-entzuleekin.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARETXABALETA 'San José, hecho un Cristo' antzezlana

Umorea ardatz duen helduendako lana egingo du Diego Perezek. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI La Banda Del Abuelo taldea

Rockanrolla mailu bat da CD-liburua aurkeztuko du. Debalde.
Iturri tabernan, 19:00etan.

ARAMAIO 'Honeydripper' pelikula

Musikarekin lotura zuzena duen pelikula.
Kultura etxean, 19:00etan.

ELGETA Herrixa Dantzan

Ikasturteko lehenengo emanaldia egingo dute Patxi Monterok gidatuta. Sarrera, debalde.
Espaloian, 19:00etan.

ASTELEHENA 29

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea

Urriko azken deialdia.
Durana kalean, 16:45ean.

OÑATI '1918, Eusko Ikaskuntza kongresua' erakusketa

Argazki erakusketa, Artixa taldekoen eskutik. Ikusgai egongo da azaroaren 4ra arte. Gaur egingo



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Kezkatzeko datuak

Pasa den astean, Bergarari, Debagoienari eta Gipuzkoari buruzko zenbait datu estatistiko iritsi zitzaizkidan eskuetara. Kuxkuxeatzen hasi nintzen, bestelako interes handirik gabe. Ez nuen ezer berezirik bilatzen, eta, hara non, lehenengo orrian biztanleriaren datuak agertzen ziren, eta 2000. urtetik hona biztanleriaren bilakaeraren datua negatiboan daukagun bakarrik gara. Hortik aurrera, interesa piztu zitzaidan ondorengo orrialdeetan ageri ziren beste datuei ere erreparatzeko.

Hona hemen datu gehiago: adinaren batez bestekoa altuagoa daukagu. Hau da, zaharragoak gara. Ikasketa-mailari erreparatuta, ikasketarik gabeko gehien Bergarak ditu. Okupatu gabeko etxebizitzaren ehuneko altuena daukagu. Lanari dagokionez, aktiborik gutxien eta ez-aktiborik gehien daukagun herria gara eskualdean eta herrialdeko datuak baino eskasagoak ditugu. Industrian ari diren landunen kopurua eskualdekoa baino askoz txikiagoa da. Honako hauek dira gainerakoak baino hobeto ematen digutenak: euskararen ezagutza, errenta-maila.

Hasierako kuriositate hura sentsazio larri bihurtu zen. Bergararrok –elkarrekin eta elkarlanean– gure herriaren etorkizunari buruzko hausnarketa sakona egin beharra daukagu berandu baino lehen biziraun nahi badugu, behintzat.

BUKATZEKO

Mugikorrei begira berrituta dator 'Goiena.eus' ataria

Gaur egungo erronkei erantzuteko eraberritu dute 'Goiena.eus' ataria. Mugikor bidezko nabigazioaren hazkunde nabarmena aintzat hartu da webgune berriaren egitura eta diseinua erabakitzerakoan; horrekin, ordenagailua eta tableta ahaztu gabe

Itziar Larrañaga DEBAGOIENA

Interneten nabigatzeko modua aldatu egin da. *Goiena.eus*-eko irakurleen %60 mugikor bidez sartzen dira, eta joera goranzkoa da. Horregatik, aurreko diseinuetan ez bezala, oraingoa smartphoneetarako pentsatu da, eta hortik abiatuta egokitu da ordenagailu eta tableta formatuetara. Webgune berria hainbat hilabetean elkarlanean egindako lanketa baten emaitza da. Behar berriak identifikatu ostean, CodeSyntaxeko, Goienako eta Tokikomeko hainbat kide elkarlanean egin dituzte webgune berrirako urratsak. Izan ere, berrikuntza Tokikom plataformaren baitan gauzatu da.

Hasierako orriaren pisua arindu nahi izan da, karga denborak azkarragoak izan daitezten. Mugikorrek kontsumo denborak murriztea ekartzen du; erabil-tzaileek azkartasuna bilatzen dute; horregatik, begiratu batean informazio gehiago erakusten da orain; hala, irakurleak, interesatzen zaizkien gaiak azalean identifikatu ostean, albiste horietara sartu daitezten. Irudiek indar handiagoa hartzen dute eta testu gutxiago dago azalean. Bestalde, bideoak ez dira hasie-



Goiena.eus berritua mugikorrean. IMANOL SORIANO

rako orrian kargatuko; albistearen orrialdean erreproduzitu dugu. Horri esker, azalaren karga arintzea lortzen da.

Ordenagailuko bistan, orain arteko zutabe erako antolaketa ordezkatu egin dute. Diseinua horizontalagoa da; izan ere, azala ezkerretik eskuinera doazen bloke bidez egituratzen da.

Berrikuntzak

Azalean egindako aldaketak ez ezik, herri eta gaietako orrialdeak ere eguneratu dituzte. Goiena telebistaren orrialdeak nahieran estiloa hartu du. Baita Arrasate Irratiak ere. Bestalde, komunitateak itxura modernoagoa dauka; kideei presentzia handiagoa eman zaie, parte-hartzea saritzeko.

Argazki galeriek interes handia pizten dute, eta horiek erakusteko era aldatu egin dute, bildumak erosoago ikusteko.

15 urte Interneten

2003ko azaroan jaio zen Goienaren Interneteko ataria, duela hamabost urte. Helburuak –besteak beste, unean uneko informazioa euskaraz eskaintzea– ez dira aldatu, baina teknologian eta gizartean gertatu diren aldaketetara egokitzen jakin du webguneak bere sorreraz geroztik. 2010ean, multimedia izan zen erronka nagusia, eta webguneak berrikuntza prozesua bizi izan zuen, behar horiei erantzuteko. Horri esker, *Goiena.eus* artikulu, argazki galeria eta bideoekin osatzen da; azken biek presentzia handia dute.

Orain, erronka berria mugikor bidezko trafikoa da, eta webguneak horri erantzuten dio.



ZTB

Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara

2018 JARDUNALDIAK
Azaroak 11ra arte

ERAKUSKETAK

AZOKA

IKASLEENTZAKO JARDUERAK

HITZALDIAK

TAILERRAK



Informazioa: www.ztbergara.eus • 943769003